



ARTE APLIKATUAK

— I —

HISTORIA GRAFIKOA (XIX-XX)
GRABATUAK - BIÑETAK - KOMIKIA

Jose Ma^aUnsain

ZUZENDARITZA

Enrique Ayerbe Echebarria

EGILEA

Jose M^a Unsain

ITZULPENA

Jokin Aisetaran, Amagoia Lizaso eta Euxebe Portugal

Iñaki Igerabide

Karmele Urdanpilleta Urdanpilleta

ARGITALETXEA

© Ostoia, S.A.

Pza. del Caddie, 1. Lasarte-Oria

ARTE APLIKATUAK

– I –

HISTORIA GRAFIKOA (XIX-XX)

GRABATUAK - BIÑETAk - KOMIKIA

José M^a Unsain

AURKEZPENA

ARTE APPLIKATUEN BILDUMA	6
XIX-XX MENDEETAKO HISTORIA GRAFIKOAREN SAILA	8

XIX. MENDEKO GRABATUAK HISTORIA GRAFIKORAKO MATERIALAK

HISTORIA GRAFIKOAREN ATZETIK	10
ERREPRESENTAZIO GRAFIKOEN BALIOAK	10
Balio historiko-dokumentala	10
<i>Forma grafikoen historia</i>	10
<i>Gertakariaren historia grafikoa</i>	11
Balio komunikatiboa	11
<i>Hunkiberatasuna</i>	11
<i>Umorea</i>	11
<i>Iraganaren oroitzapen bizipenezkoa</i>	11
<i>Geroa aldez aurretik bizitzea</i>	12
Balio estetiko eta poetikoa	12
<i>Poetika</i>	12

UMORE GRAFIKOABILBO ETA DONOSTIAKO PRENTSAN (1865-1936)

SARRERA*	13
Kontzeptua, helburuak eta iturriak	13
<i>Marrazkigintzari eskainitako zenbait egile</i>	13
<i>Txiste grafikoa lekukotasun historiko modura</i>	13
LEHEN ALDIAK (1865-1923)	14
Aldizkari satirikoak	14
Bilbo, XIX.aren azken aldera	15
Donostia, XIX.aren amaiera	16
Bilbo, XX.eko lehen hamarkadak	17
Donostia, XX.eko lehen hamarkadak	18
Irudizaturiko aldizkariak	19
Eguneroko kazetaritza	19
Umorezko marrazkiaren balioespena	20
<i>Umoregileen aretoa</i>	21
<i>Erakusketak Euskal Herrian</i>	21
PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA (1923-1930)	22
Testuinguru sozio-politiko	22
Prensa eta zentsura	22
Umore grafikoa	23
<i>"Txistu" haur-aldizkaria</i>	23
<i>Eguneroko prentsan</i>	24
<i>Haziz doan balioa</i>	25
<i>Umorezko astea</i>	25

II ERREPUBLIKA (1931-1936)	27
Testuinguru sozio-politikoa	27
Prensa eta zentsura	28
Umore grafikoa	28
<i>Lehiaketa eta umoregileen aretoa</i>	31
<i>Bakarkako erakusketak</i>	32
<i>Kaleko karikaturagintza</i>	32
JOSE ARRUE	32
<i>Kritika ziztatzaileak</i>	33
<i>Ohitura-txistea</i>	34
<i>Aldekoak</i>	34
<i>Maiseatzaileak</i>	34
<i>Gora-beherak</i>	35
<i>Ohiturazale zenbait</i>	35
<i>Arrueren umorea</i>	35
<i>Formari dagozkionak</i>	36
PEDRO ANTEQUERA AZPIRI	36
EDUARDO LAGARDE	37
<i>Marrazkilaria</i>	37
<i>Eszena jendetsuak</i>	38
<i>Txistek</i>	38
JOAN ZABALO ("TXIKI")	39
<i>Borrokarako umorea</i>	39
<i>Erantzunak eta kontra-erantzunak</i>	40
"KILI-KILI"	41
<i>Mokokaldi politikoetan</i>	41
<i>Ikonoak</i>	42
GERARDO FERNÁNDEZ REGUERA ("FRAG")	42
<i>Nazionalismoaren aurrean harturiko jarrera</i>	43

KOMIKIAREN AURREKARIAK EUSKAL HERRIAN (1890-1939)*

XIX. MENDEA	47
XX. MENDEAREN HASTAPENAK	48
"TELES ETA NIKO"	49
HAUR KOMIKIAK EUSKARAZ	49
"TXISTU"	49
"ZERUKO ARGIA"	50
CELEDÓN	50
JOSE ARRUE	51
30EKO HAMARKADAKO PRENTSA	51
JUAN DE ZABALO "TXIKI"	51
"PERU MALLUKI"	52
"GASTETXU"	52
"POXPOLIN"	52
GERRA ZIBILA	53

AURKEZPENA

ARTE APLIKATUEN BILDUMA

Arte aplikatuak gai-multzoan, arte nagusiak esaten zaien tradiziozko muga kanoniko estuetan lekurik ez duten agerpen eta adierazpen sormenezko guztiak jaso nahi dira; izan ere, haien asmoan eta egikaritzean, berekin dakartzaten estetika-balioek sortze-lan horien artistikotasuna guztiak aitor dezaten eragiten dute, edota sortzaileek beraien eta kritikako sektore esanguratsuek hala direla aldarrika dezaten, eta gizarteak ere halakotzat hartu eta estima ditzan.

Arte berriztat hartuko genituzke sortze-lan horiek, gure baitarako besterik ez bada ere, eta izaera askotarikoa dute, eta oso heterogeneoa. Obra eta jardun-moten aniztasun hori artikulatzeko, paradigma antropologiko bat proposatuko dugu guztiak koherentziaz integratuko dituen.

«ARTE APLIKATUAK» KONTZEPTUA DELA ETA

Beharrezkoa dela dirudi aurretik arte aplikatuaren kontzeptua berriz aztertzea, izendapen hori dekorazio –eta ornamentazio– izaerazko egiteetara mugatu baita. Gainera, museoek izen horren sailetan eskaini duten irudia oso murriztailea da, eta oso urrun dago lan honetako edukietatik.

Gure gogoetaren abiapuntua egitate bat da; alegia, badela estetikaren unibertso osoa, eta pertsona guztien eguneroko bizimodua estetikaren unibertso horretan igarotzen dela eta unibertso horrek eratzen duela norberaren bizimodua, norberak nola sumatzen duen eta nola egiten duen, eta unibertso horretako parametroak erabiliz dihardu elkarreaginean gauzekin eta beste pertsonekin. Kontziente izan edo ez, estetika-balioek jakintza eta egintza baldintzatzen dituzte, adina eta instrukzio edo heziketa akademikoaren maila eta osatzen duten kultur eremua eta gizarte-taldea edozein direlarik ere.

ARTEA ETA ARTISTIKOTASUNA

Saihestu egiten dugu eztabaida akademikoetan sartzea: artea zer den, edo gaur egun zer hartzen den artetzat, etab. Kontzeptuaren marko zabala ezarri besterik ez dugu nahi, artearen azterlanetan eskuarki lekurik ez duten gaien aniztasuna koherentziaz antolatzeke, ezin baitira murriztu teknikotasun edo erabilgarritasun hutsera.

Arte Aplikatuaren eremua, beraz, gizakiaren sortze-lanen eremua da, non estetika-formaren, esanahia-ren eta zentzuaren arazoiek bat egiten baitute hainbat mailatan teknikaren arazoiarekin.

Eremua oso zabala da, eta bizitza osoa, espazio osoa eta egunerokoaren denbora guztia hartzen du bere baitan. Estetikaren asmoa duen sortze-lana; ornamentazioaren eremu zabala; erabilgarritasuna eta edertasuna eta artistikotasuna eta teknikotasuna bateratzea. Eta esan genezake, halaber, praktikotasun atsegintzat hartzen duguna. Sormenaren eremu hori adieraz dezakegu honelako hitzak erabiliz: gustua, ederra, harmoniatsua, ordena, etab.

Sortze-lan horiek komunikazio-funtzioak izan ditzakete, edo erabilera teknikoak bilatu; haietan forma berriak sortzen dira, eta forma horiek harmoniatsuak dira, nahita, eraginkortasunaren, errendimenduaren eta edertasunaren irizpideak hartzen dituzten tramankulu eta tresna teknikoaren fabrikazioan.

Ez gara kokatuko, bada, artetzat hartzen den eremu zorrotzean, baizik eta kontzeptuaren espazio zabalagoan, artistikoan alegia. Espazio zabal horretan, gai eta jarduera desberdinetara aplikatutako hainbat estetika-irizpidetan mugatuko liriteke arloak.

Arte aplikatuaren artea esanda, plural bihurtua eta adjektiboduna baita, arte deitu ez baina artistikotzat jotzen ditugun egite horietaz ari gara; artistikoak, estetikaren zama nabaria dutelako; edo ederrak direlako, nahita; edo askotan ornamentazio-izaera emateko modelatzen dituzten gauzen erabilgarritasuna gainditzen duten formak erabiltzen dituztelako; edo askotan iturburu arte-lanetan duten formak, agerraldiak, gaiak erreproduzitzen direlako; edo argi eta garbi bat egiten dutelako artearen historiako aroak identifikatzen eta aldian-aldiko bihurtzen dituzten estilo nagusiekin.

ERABILGARRITASUNA, TEKNIKOTASUNA ETA ESTETIKOTASUNA

Artea helburu praktikoetarako erabil dadin iradokitzen dute arte plastikoek. Artearen bateratasunaren ideia iradokitzen dute: erabiltzeko eginarekin bateratua, eta bateratua, artean eta haren egikaritzean dimentsio praktiko-teknikoa aurkitzearekin.

Zehaztugabetasunaren tarte horri heltzen diogu guk, gure egunerokoaren unibertsoa eratzen eta osatzen duten hamaika jardun eta sortze-lan errotulu honen pean biltzeko.

Uste osoa dugu pentsamendu eta asmo estetikoek giza jokabide guztiak agertzen dituztela, formari arreta emanez jarduten dugula, ez bakarrik funtzionaltasunari edo perfekzio teknikoari begira. Ekono- miaren eta erabilgarritasunaren arazoibidea zaintzen da, eta estetikaren arazoibidea ere bai.

PARADIGMA DRAMATIKOA

Arte aplikatuen liburuki-multzoak ikuspegi itxuraz soilik heterogeneoa eskainiko du, eta horrela erakutsiko dute testuingurutzeko lan programatuek. Kokatzen direneko marko zabalak paradigma antropologikoa osatzen dute, eta horrek nabarmenduko ditu gizakiaren izaera dramatiko eta gogoetarako, jakintzarako eta komunikaziorako haren jardun osoak eratzen duen izaera adierazgarria.

Honako hau da Arte Aplikatuen gai hau gidatzen duen programa-markoa:

Egunerokoaren eta estetikaren Unibertsoa, edo nahi izanez gero, **Estetikak egunerokoaren unibertsoan**.

Gizakiaren izaera dramaturgikoa

Giza jardunaren izaera irudikatzailea: gizakia bere zentzugabeko ispiluen galerian, gizartean agertzeko izaera mimetiko eta kultur tradizioetik proposatzea ereduak.

Eszenatokia

Eguneroko eszenatokiak (ohizkoak) eta haien diseinuaren eta haietan gertatzen den ekintzaren asmo estetikoak.

Eszenatokiaren eremuak: giza ekosistema eta paisaia, giza kokapenaren eragina. Fluxu-sareak (ibaiak, errepideak, elektrizitate-lineak, komunikazio-dorreak) eta horiei dagozkien obra publikoak (zubiak, tune-lak, presak etab.).

Hiriaren eszenatokia: hiriaren irudia: kokatze geografikoa, hiriaren planoak. Identifikazio-zedarrak. Hiri-higigarriak eta ikonoak. Dimentsio sinbolikoa eta enblematizazioa.

Etxearen eszenatokia. Etxea. Etxea paisaian eta etxeko barnealdeak; daukan funtzioaren bilakaera eta esanahia. Altxariak eta dekorazioa. Diseinua eta barne-diseinua.

Atrezzoak

Tramankuluak eta tresna tekniko ohikoak, makina eta fabrika. Produkzio-paisaiaren estetika. Industriaren arkeologia. Industri diseinua.

Drama

Ekintza dramatiko eta errepresentazio eta arte-jarduerak. Komunikazio ekintzak. Bitartekaritza teknikoak eta artistikoak: argazkia, zinema, komikia, ziber-arteak. Ikuskizunak (obra iragankorrak). Publizitatea (komunikazio gertakari berezitua, bitarteko eta teknika zenbait dituelarik).

Aktorea

Subjektua, pertsona eta haren pertsonaia. Niaren asmakizun estetikoak. Norbanakoaren aurkezpen publikoak. Gorputza: ergonomia eta apainketa. Jantziak: laneko arropa eta jantzi zibil eta folklorikoak. Esanahiak eta sinbolismoa. Moda.

Ikuslea

Ikuslea, bere buruaren errepresentazioaren ikusle.

* * *

Planteamendu hau ez da antzerkia metafora edo konparazio gisa erabiltzeko; aldiz jarrera antropologikoa da, zeinaren giltza baita aintzat hartzea gizakiak bere burua errepresentatzen duela, buruz eta bere obretan eta ekintzetan, eta horrela ezagutzen duela bere burua; ulertzeko errepresentatzen dituela inguruan dituen errealitateak; errealitatearen errepresentazioen mundua eraikita ulertzen duela bizi den mundua eta bere burua; behin eta berriz irudikatuz, ikusten duena bere buruari azalduz, gertaera bere buruari kontatuz historia edo autobiografia bihurtzen duen arte.

Inguru irudikatuta ulertzen du inguruak, marraztuz, margotuz, deskribatuz eta izendatuz; alegia, natura paisaia bihurtaraziz.

Gizakiak eszenatokia eraikiz ulertzen du mundua eta bere burua, eta agertoki horretan bere bizitza eta ingurukoa islatzen duten ekintza dramatikoak eta dramatizatuak gertaraziz.

Gizakiak bere burua irudikatuz ulertzen du bere burua, bere buruari bere historia kontatuz, gertaerak bilduz berari gertatzen zaionaren ahots narratzailea izanez, aktore protagonista bihurtuz, kontakizun dramatikoak eraikiz berak bere eszenatokian eta beste batzuetan, eta saio eta egokitzapen desberdinetan irudikatuzko, bere dramaren, bere bizitzako gertaeren ikusle bihurtuz.

1 eta 2. Liburukietan, sortze-lanen azterketa-bildumak aurkeztu ditugu, eta sortze-lanek dituzten ezaugarriak direla eta, Marrazketaren Arteak izenburupean multzokatu ditzakegu.

3. Liburukian, Arte Fotomekanikoak izenburupean multzokatu daitezkeenak jorratuko dira; gainera, tarte garrantzitsua eskainiko zaio hain garrantzitsua den komunikazio-gertakariari, Publizitateari hain zuzen, non, beste askoz gainera, arte grafikoak eta fotomekanikoak biltzen baitira.

1 eta 2. liburukietako zati handienak grafikoaren kalifikatiboa bete-betean hartzen duten sortze-lanez arduratzen da; grafikoak, arte grafikoekin zerikusia dutelako, hain zuzen ere, inprimatzearekin, marrazkia izan edo argazkia izan errepresentatzeko edo irudikatze prozedura.

Kalifikatibo ikusizkora hurbilduta erabiltzen dugu guk grafiko hitza. Baina, antza, ikusizkoak bat-batekotasun handiagoa ematen digu aditzera, etereotasuna edo iragankortasuna, unean-unean begiestekoa; grafikoak, berriz, iraunkortasuna iradokitzen du, agian arte grafikoek inprimakia berezkoa dutelako askotan, eta horrek irudi materialagoa eta iraunkorragoa eskaintzen du euskarri. Horregatik nahiago izan dugu grafikoarena, eta lehendabiziko bi liburuki hauetan, aztertutako sortze-lanak grafikoak dira, ikusizkoak eta inprimatuak diren aldetik.

3. Liburukian, Arte Fotomekanikoak eta Publizitatea jorratzen baitira, honako hauek aurkituko ditugu:

Argazkiaren gaia, zeina ere euskarri-paperean inprimatua iristen baitzaigu aldizkako eta eguneroko argitalpenetan, ohi denez informazio grafikoaren edo aldizkari grafikoaren errotulupean.

Animazio Zinemari dagokionez (Marrazki bizidunak), han jorratuko baita, esan beharra dago gehienetan obra horiek komikian dituztela aurrekariak, edo zinematik paper inprimatura igarotzen dira. Zinematografiaren eta telebistaren gai espezifikoak badu bere tratamendua Zinemari, Antzerkiari eta telebistari eskainitako liburuki berezian.

Ziber-artearen ere, sarearen ekosisteman kokatzen baita nagusiki, inprimagarria da; horrenbestez, historia grafikoaren epigrafe emankorrean sar daiteke desitxuratu eta estutu gabe, hartako adierazpenak egungo gizartearen eta kulturaren isla historiko gisa jorratzen ditugunean hemen.

Eta Publizitateari dagokionez, zerbait aplikatu daiteke esandako guztiatik. Ia guztiak, batera edo bestera, euskarri-paperean bertsioa izaten du eguneroko prentsan, aldizkarietan, publizitate-hesietan edo gure postontziak betetzen dituzten liburuxka eta prospektuetan.

Argitaratzaileak

ARTE APLIKATUAK
— | —
HISTORIA GRAFIKOA (XIX-XX)
GRABATUAK. BIÑETAK, KOMIKIA

Jose M^a Unsain

XIX. MENDEKO GRABATUAK HISTORIA GRAFIKORAKO MATERIALAK

Sarrerako kapitulu honek material grafikoaren laginak biltzen ditu, eta Herrialdearen historia ikusizkoa egiteko bidea jorratzen dute. Orain, ausaz eta gaika taldekatu nahi dira grabatuak, garapen kronologikoak alde batera utzita.

■ HISTORIA GRAFIKOAREN ATZETIK

Errepresentazio grafikoaren balio historikoa azpimarratzea da liburu honen planteamendu teorikoak hartzen duen ikuspegia.

Ekarpen baztuk aurreratu nahi dira, forma grafikoaren historia eratzen laguntzeko: eboluzioa, egileak, estiloa eta egitea.

Kapitulu labur honetan, errepresentazio grafikoek gordetzen dituzten eta askotan aitortzen ez zaizkien informazio historikoaren balioak azpimarratu nahi dira nagusiki. Liburu eta ipuinen ilustrazioak, obra geografikoaren mapak eta grabatuak, gertakari historikoaren eszenak, etab.

■ ERREPRESENTAZIO GRAFIKOEN BALIOAK

● BALIO HISTORIKO-DOKUMENTALA

Testuek duten balio dokumental bera izan dezakete errepresentazio grafikoek.

Marrazkilariak lekukoarena egiten du, bere testigantza ekarpen ikusizkoa eginez. Baina, gertatuaren albistearenaz gainera, garai hartako teknika grafikoaren eta formaren testigantza uzten digu.

FORMA GRAFIKOEN HISTORIA

Historia Grafikoko liburuki hauetan agertzen diren gaiek historiaren zedarrak ezartzen dituzten forma grafikoaren aurrean kokatzen gaituzte.

Historikoak dira marrazkietan eta grabatuetan eta biñeta komikoetan, komikian eta publizitate-karteletan tarteko diren zenbait alderdi. Eta halaxe dira, sormenaren eta gustuaren elementuengatik, produzitzeko eta zabaltzeko alder-diengatik, sortzeko teknikengatik eta euskarriengatik eta zabaltzeko modu eta bideengatik.

Lehenik eta behin, ez da zalantzarik biñeten eta zerrenden egungo marrazkilariak askoz ere baliabide gehiago eta hobekak dituela joan den mendearen lehen erdialdekoak baino. Pentsa dezagun trazatuaren elementuetan, txantiloak metatzekoetan, mugimendua sortzeko baliabide informatikoetan, etab.

Eta, bestalde, bigarrenik, aldea ikaragarria da bitarteko fotomekaniko eta inprimatzeko modernoek eta paper-euskarriek dagokienez: kalitate bikaina eskaintzen dute jatorrikoa erreproduzitzeko.

Eta hirugarrenik, ez dezagun ahaztu izugarri hazi dela errepresentazio grafikoaren zabalkuntza eguneroko prentsan eta aldizkako *aldizkari ilustratuetan*: gero eta egunkari gehiago dago eta kioskoak aldizkariz gainezka egoten dira, eta guztien ale-kopuruak hazkuntza esponentziala izan du.

GERTAKARIAREN HISTORIA GRAFIKOA

Baina eguneroko gertakarien errepresentazio metatuak, azkenean, marraztu egiten diote egungo ikertzaileari, bai iragan politikoa, bai teknikaren eta ekonomiaren garatze-prozesua, bai garaiko gizartearen koadroa.

Horrela, orain berriz eraiki dezakegu, eta oroitu, irudi ikusizkoetan, historiaren oroitzapen dramatizatuaren panorama osoa. Arreta hartu beharko litzateke, aukera baitugu oraindik ere mende honetako irudi grafikoei lekukoek diktatutako testua jartzeko. Oraindik ere bizi dira pertsonak marrazkietan jasota dauden gertakarien aktore, protagonista, edo konpartsa, edo ikusle izan zirenak. Gaur egun, oraindik, ahozko oroitzapenaren testigantza eransterik badugu marrazkiaren testigantza. Testigantza grafikoa pizgarria da norberaren oroimena egu-neratzeko.

Historia politikoa. Batik bat umorezko biñetek ematen digute aukera bititza politikoaren historia berreraikitzeke. Grafikaren historiak umorearen ikuspegitik berreraikitzen du giro politikoa, eta baita soziala eta kulturala ere. Horrek dituen abantaila eta desabantaila eta guzti, aurrerago esango dugunez.

Aldizkari grafikoak nobedade izan ziren komunikabideen sarean, hain zuzen ere, gaurkotasuna iruditan emateko aukera zutelako.

Garapen teknikoaren eta ekonomikoaren historia. Garapen teknikoa eta ekonomikoa hiri-paisaietan, industria-instalazioetan, tramankulu teknikoetan errepresentatua dago.

Kultur eta gizarte historia. Arestian aipaturiko errepresentazio grafikoaren edozein zirrikitutatik agertzen dira kulturaren eta gizarte-ohituren datuak. Eta, bestela, errepresentazioen zio zuzenak ere izaten dira.

- BALIO KOMUNIKATIBOA

Hitzaren eta irudiaren balioak aurrez aurre jarri gabe, egoki ez baita, esango dugu oso handia dela emozioak komunikatzeko marrazkiak duen gaitasuna, eszena bat askoz ere azkarrago eta zehatzago igar baitaiteke deskripziozko edo azalpenezko diskurtso bat baino.

HUNKIBERATASUNA

Grabatuen eta errepresentazio grafikoaren gainean aurkezten dugun testigantza dokumentu historikoak dira, zeinetan, orain, komunikazio-elementuaren balioa nabarmendu nahi baitugu hunkibe-ratasunezko baliabidearen bidez. Marrazkien indar dramatikoak berekin dakar oso eduki hunkigarriak komunikatzea. Pentsa dezagun biñeta komikoetan; horiek adierazgarritasun ikonografiko eta kari-katurazko handia izateaz gainera, irakurleari asmamenerako erronka egiten dioten testua izaten dute; edo marrazkiaren irakurketa surrealista izaten da testua, edo interjektiboa, edo eliptikoa; edo testuaren beharrik gabe ezartzen da esanahia, buruz azaltzera behartuz.

Iraganeko gertaera testigantza grafikoaren hunkiberatasunez gogoratuek balio antropologiko handia dute, eta, aise eta zabal gaingitzen du askotan historiari ematen zaion informatze soilaren balioa. Erruki izan zutenekin errukitzea eta atsekabetzea, eta barre egin zutenekin barre egitea. Iraganarekiko lotura da; hain zuzen ere, lotura horren bidez balioesten da literaturan edo pinturan, esaterako, eta komikia edo txisteei bezalako sortze-lan grafikoei, ez zaie ematen daukaten balio emozional osoa, nahiz eta aitortzen zaien informatze-soilaren balioa.

UMOREA

Umöre-zuntzaren balio testigantzakoa aparteko kasua da. Umöreak, alaitasunak eta penak bezala, edo tragediak bezala, sentsibilitatearen urruntasuna edo hurbiltasuna ezar dezake, eta aldagarri psikologiko, estetiko edo/eta etikoetan eragin.

IRAGANAREN OROITZAPEN BIZIPENEZKOA

Grafikaren historiaren bidez, oroimenaren berreskuratze sentimenduzkoa nabarmendu nahi dugu, denborazkotasunaren aporia agerian jarrita: izana izan zen, baina orain ez da; hala ere, aldi berean eta nolabait, iraun egiten du, ez oroimenaren irudian bakarrik, pertsonen errealtate sentimenduzkoetan errepro-duitzeke aukeran ere irauten du, irudi- eta testu-ekintzen bidez.

Gogorapena da, oroitzapena, oroitza; historiara hurbiltzea da, ez albiste jakitun gisa, zeinak gertakariaren azalpena gordetzen baitu iraganeko kontaketa kohesioaren alde, baizik eta, horretaz gain, iragana bizitzeko aukera eskainiz gertakari historikoen oroimenean. Iragana gaurkotu egiten da, berregin, kausa-indarrak gabe orain, orainaldiaren puntualtasuna hautsiz.

GEROA ALDEZ AURRETIK BIZITzea

Antzekoa gertatzen da geroarekin, aldez aurretik bizi baitaiteke, irudimen proiektziozkoaren indarrez, etorkizuna irudimenaz sortzearen indarrez. Oroimen irudimenezkoak eta irudimen proiektziozkoak gaingitu egiten dute orainaren estutasuna, historia nolabait berpizteko aukera emanez eta historiaren diziplina gizakiaren dimentsio denborazkoa bizitzeko elementu bihurtuz.

● BALIO ESTETIKOA ETA POETIKOA

Edozein hizkera korapilaturekin aldera daitezke plastika-formaren poetikak onartzen dituen modulazio eta estilazio formalak.

Baina forma grafikoak jorratze horretan, agerian jartzen da haien historikotasuna, isla baitira, ispilu-irudi, ez bakarrik egunerokotasunarena eta prozesu politikoena, izan ere, artistikotasunetik hurbil dauden edo zalantzarik gabe artistikoak diren isla ere bai baitira, hots, kulturaren historiaren eta sormen estetikoaren sentsibilitatearen agerpenen isla. Mentalitatearen historian kokatzen gara, zeren gustuaren, sentsibilitate poeti-koaren, umorearen elementuak islatzen baitira.

Eta denboraren joanak ikuspegia zabaltzen duen heinean, eta oroimena testigantza grafiko hauetan erabakitzen den heinean, eta oroitzapenaren euskarriak desagertzen direnean, orduan aitortzen zaio garaiko testigantzaren balioa.

POETIKA

Sortu ziren garaiko estetikaren arauekin sortu eta egin dira sortze-lan grafiko horiek; horregatik, garaiko estetikaren arauak eta sentsibilitatea doku-mentatzeko balioa dute edo balioak dira. Bi adibide aipatuko ditugu: grabatu erromantikoek egiten duten paisaiaren estilazioa, kalifika genezake manierista, eta kulturaurkako komikiak egiten duten estilazio zatartzailea. Baina bakoitza dokumentua da, balio historikoa duena garaiko ohitura baten testigantza egiten duen aldetik.

Narrazioan sartuta dagoen ilustrazioak irudimena pizten du, eszenatokiak, pertsonaiak eta ekintzak irudikatzeko. Eszenak imajinatuz gozatzeko baliabidea gogorarazten dio irakurlari; jakina, irakurlea horixe egiten ari da, baina estiloaren parametroak ematen dizkio, eta pertsonaiaren gorputz-estereotipoak, eta keinuenak eta jantziarenak eta garaiarenak, marrazki dramatikoari esker alderdi erretorikoak betiketuz.

UMORE GRAFIKOA

BILBO ETA DONOSTIAKO PRENTSAN (1865-1936)

Kazetagintzaren eta gertakizun politikoaren arteko loturak, historia politikoaren denborazko sailkapen klasikora jotzea eskatzen zuen.

Denbora tarte bat mugatu beharrak bi aldi jakin aukeratzera bultzako zuen: Primo de Riveraren Diktadura (1923-1930) eta II Errepublika (1931-1936). Txiste grafikoak gertueneko errealitateari, ekintza eta gertaera jakinei atxikimendua zionez gero, askotan, marko soziopolitikoaren halakoxe ezaguera bat ezinbestekoa zen ulertu ahal izateko.

■ SARRERA*

● KONTZEPTUA, HELBURIAK ETA ITURRIAK

Umöre grafikoak, funtsean, karikatura pertsonalera, txiste grafikora –oinean testuduna ala testu gabea izan–, irudi eta istorioen adierazpen haietara ikuspegi komiko edo satirikotik iristen den kontzeptua da. Adierazpide mota hauek denek prentsa izango dute beren zabalkunderako garraio nagusia.

Ikerlan honen garrantzia, hasiera batean, Euskal Herrian arte grafikoetarako garapen gogoangarria izan zen 1920 eta 1930ko hamarkada haietan Bilbo eta Donostiako prentsan umöre grafikoak zenbat eman zuen jakitean datza. Askorik ibili gabeko alorra baitzen miaketara bultzatzen zuena.

Gertutasunagatik umorezko istorioei eta irudiei jaramon egiten bazaie ere, txiste grafiko eta karikatura¹ dira lan honetako gairik garrantzizkoenak, Bilbo eta Donostiako prentsan 1923 eta 1936 bitartean argitaratu zirenak.

Lehenagoko etapatako umöre grafikoari buruzko ikerlanik ez dagoenez, alor honetan Bilbo eta Donostiako prentsaren ibilbidea zirriborrazteko bederen balioko duen zenbait ohar ere jaso dugu, XIX. mendetik hasi eta 1923 bitarterakoak.

Erabili dugun iturbururik nagusia prentsa² bera izan da, jakina, elkarrizketa pertsonala behar-beharrezkoa gertatu bada ere. Marrazkigilerik jakitunenak aspaldi samar hilak izateak eraman gintuen informazioa familiakoen inguruan biltzera.

MARRAZKIGINTZARI ESKAINITAKO ZENBAIT EGILE

Uste dut hemen eskaintzen dugun ibilbideak, Bilbo eta Donostiako prentsan agertzen den umöre grafikoaren lehen etapei buruzkoak, nabarmen uzten duela beronen kultur eta ekonomia maila mugatuaz gain (argitalpen askoren iragankortasuna, karikaturagileen kolaborazioetan iraupenik eza), euren atzetik zalantzarik gabeko garrantzia zeukan lana utzi zuen marrazkigile bakan batzuen presentzia: Antequera, Azpiri, Lagarde, Jose Arrue, Frag, Kili-Kili, Txiki...

TXISTE GRAFIKOA LEKLIKOTASUN HISTORIKO MODURA

Denbora esparru bat mugatu beharrak, bi aldi jakin hautatu beharra ekarriko zuen gero: Primo de Riveraren diktadura aldia (1923-1930) eta II Errepublika aldia (1931-1936). Historia politikoa aroka sailkatze klasikora jotzea eskatzen zuen kazetaritzaren eta gertaera politikoaren arteko lotura estuak.

Txiste grafikoa berehalako errealitatearekin, gertaera eta jazoera jakinekin atxikirik dagoenez gero, ezinbestekoa gertatzen da sarritan, ulertuko bada, marko sozio-politikoak apur bat ezagutzea. Oinarritzko datuak zertxobait nahasirik edo loturak egin gabe eduki ditzakeen irakurlegoa gogoan hartuta, laburpentxo batzuk sartu ditugu bi aldiotako historiari buruzkoak.

Kantitateari, kalitateari eta iraupenari buruz egin daitezkeen aipamenez aparte, begien bistakoa da, dokumentu historiko bezala, txiste grafikoaren eta karikatura pertsonalaren balioa; Ramon Berraondo «Martin Angiozarkoa» idazleak 1930.ean sumatu zuen balioa: «Dokumentu historiko ofizialekin aski ez iruditzen, eta, gertakariei eta gizon-emakumeei argia eman ahal izateko agertzen diren monumentuen artean jakitunek ikerlanean jarduten duten egunotan, ez litzateke arrazoizkoa giza biziaren alderdi irriargi horren —ez baita gutxi— diseinu pikaresko eta alaiak gutxiestea».³

■ LEHEN ALDIAK (1865-1923)

Ilustrazioak eta umore grafikoak XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren hasieran garrantzi nabarmena ezagutu zuen Espainiako prentsan. Sartaldeko herrialde guztietan goizago edo beranduago eta indar gutxi edo gehiago eman zen gertakaria dugu. Prentsa industrializatzeak eta erreprodukzio-teknika berriek (litografia-harritik hasi, eta zinkografiatik igaroz, fotografitura bitartekoak) oinarriak jarri zituzten testuaren aurrean irudiaren balioztatze berri eta etengabekoa gerta zedin. Aldizkari satirikoak eta *magazinak* izan ziren prozesu honen euskarri nagusiak. Argitalpen hauetarako lan egin zuten marrazkigileak, sarritan, benetako kazetari grafiko bihurtu ziren, aretoetako berriemateak edo testigantza kostunbristetatik harantzago, euren garaiko gizartera begirada kritiko eta alai batez hurbiltzez jakin zutenak.

Madrilera eta Bartzelonara, argitalpen-gune garrantzizkoenak bezala, satira motako argitalpen asko ikusiko zuten sortzen aldi horretan. Espainiako beste puntu batzuetan, Valentzia, Sevilla edo La Coruña ere, irudiak garrantzia erdietsiko duen aldizkari satirikoak azalduko dira, baina, gutxi izango dira estatu mailako hedapena lortuko dutenak. Tokian tokiko izateak, inprenten maila tekniko apalak eta komunikazio-sistemaren mugak izango dira gertakari honen arrazoiak.

Kontuan hartzeko loratzea ezagutuko du Euskal Herriak aldizkari satiriko eta umorezkoetan XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.eko hasieran. Garai honetan Bilbo eta Donostia argitaraturikoek bakarrik, berrogei izenburu erraz gaunditzen dituzte.⁴ Argitalpen hauek gehienetan bizialdi iragankorrekoak izanik, inolako arrastorik utzi gabe desagertu, edo aurkitzen eta kontsultatzen zailak direnez, beren ezaugarri orokorrak finkatzea ezinezkoa gertatzen da.

Erabili ahal izan ditudan aleei eta inprimaturiko zenbait baliabidek emandako erreferentzia idatziei jaramon eginez, badirudi aldizkari hauetako askok behintzat euren orrialdeetan jaso zituztela nolabaiteko ilustrazio eta umore grafikoaren adierazpenak. Herri honetan tradizio plastikoaren eta argitalpenen mugak kontutan hartuta, eman zitezkeen salbuespen eta ezustekoez at, pentsatzekoa da kalitate grafikoak ez zuen maila handirik izango.

● ALDIZKARI SATIRIKOAK

Espainian 1883.ean finkatu —Sagastaren legea—, eta Borboien Monarkia Konstituzionalaren Berrezarpeneko aldi luzean zehar iraun zuen prentsa eta inprentako araudi onargarriak, argitalpen satirikoaren loraldia eragin zuen Euskal Herrian, hauek biurteko progresista eta seiurteko iraultzaile hartan euren presentziaren berri eman bazuten ere. Beraz, Isabel II.aren erregealdia amaituta, 1865ean, *El Látigo* eta *El Ganorabaco* aldizkari satirikoak argitaratuko ziren —hurrenez hurren Donostia eta Bilbon— zeinetan karikatura marrazkiak azalduko diren.

Antza denez, *El Látigo* hartatik ez da ale bat bera ere gorde. *El Látigo* «astekari ez-politiko bat zen, karikaturez ilustraturikoa. Argitalpenak egiten 1865eko abenduan hasi zen, Frantziako Etxague zuzendari zela Irunen inprimatuz. Hogeiren bat ale argitaratu ziren».⁵

Eduardo Quijanok zuzentzen zuen *El Ganorabaco* egunkari satiriko-burleskoak orri-buruan ezaugarri grafiko modura Bizkaiko baserriar baldar bat agertzen zuen, urte batzuk gerorago

Jose Arruek egunkari eta aldizkari desberdinetan parrastatuko zituen karikaturen aurrelari bezala har daitekeena.

Aurretik finkatutako geografia-esparrua hautsi behar bada ere, XIX. mendeko euskal prentsako umorezko irudiez hitz egiterakoan, ezin dezakegu 1868-69 urteetan Gasteizen argitaratu zen *El Mentirón* delako astekariaren aipamena saihestu. Aldizkari honen egilea –idazle eta marrazkigile bakarra– **Rikardo Becerro Bengoa** izan zen (Gasteiz, 1845-Madril, 1902), urte batzuk beranduago iragarkigile bezala egin zuen lan emankorragatik eta politikagile eta akademiko bezala jardun zuelako nabarmendu zena. Recaredo Bay izengoitia harturik, *El Mentirón*-erako marrazki bikaineko txiste eta karikatura ugari egin zuen. Garrantzia berezia dute bere ideia errepublikazale eta foruzaleak agertzen dituztenak.⁶

Argitalpen satirikoak ez ziren aldizkarietan ere ager zitezkeen karikaturak. Hauxe izan zen 1870ean Donostian argitaratzen zen *El amigo de las Señoras* aldizkariaren kasua, antza denez gorde ez den moda eta literaturazko hamabostekaria.⁷

Aldizkako argitalpena ez izan arren, garai honetako umore grafikoari buruzko beste nahitaezko aipamen bat *Album del Auxiliar* deritzana da. 1874ko *Setio bitarteko gertakariak dira*, 1874. aldera argitaraturiko postal neurriko koadernoan, 16 marrazkitan karlisten setioaren aurrean Bilboko defentsaren beste hainbat alderdi agertuz. **Jose Bringas** (Bilbo, 1847), 5. Compañía de Auxiliares-eko kide den egile honek gaitzetsi egin zuen arma kontutan ohikoa zen ikuspegi epikoa, umorezko ikuspegi bati helduz, J. Graf-ek lehen gerra karlistari buruzko litografia saileko zenbait estampa ekarrarazten duelarik apur bat gogora (*Civil war in Spain...*, Londres, 1837).

XIX. mendearen azken herenean irudi eta karikaturetara ireki ziren hauek, merezimendu osoz, artxibategi publiko nahiz pribatuetan –osatu gabe eta zenbait kasutan zatikaturik– gorde izan diren astekari satiriko eta dibertigarrien artean daude:

- *El Chimbo* (c.1876-78),
- *Fray Supino* (1878),
- *Bilbao Cómico* (1883) eta
- *El Arenal* (1894),

Bilbon argitaraturikoak,

eta Donostiako beste hauek

- *La Semana en San Sebastián* (1887-89),
- *La Galerna* (1890),
- *La Semana Euskara* (1894),
- *El Thun Thun* (1894),
- *El Aurreku* (1894) eta
- *San Sebastián Cómico* (1896).

● BILBO, XIX.AREN AZKEN ALDERA

Ezer gutxi esan daiteke *Fray Supinori* buruz, marrazki eskaseko txiste bat daukan egunkari-zati batek baino ez baitu biziraun, adierazpen gutxikoa, bestalde, testuingurutik kanpo gertatzen baita.

Anselmo Guinea Ugalde (Bilbo, 1854; Bilbo, 1906) marrazkigileak zuzenduriko *El Chimbo* astekari liberalak argi eta garbi kritikatu zuen garai hartako udal kudeaketa eta bertako beste zenbait gai. Aldizkari honetan marrazkigile anonimo batek ere esku hartu zuen –Guinea berak, seguru asko, garai hartan Bilboko Arte eta Ofizioetako Eskolako irakaslea baitzen–, irudimen handiko karikatragile eta sendotasun grafiko handiko azaldu zelarik.⁸

*El Chimbo*k 1878ko irailaren 29ko data duen ale batean izenburuz «Divaguemos» duen artikulua anonimo bat sartu zuen, zeinetan satiraren beharraz jarduten zuen: «Satirak bizioak gaitzetsi behar ditu barregarri utziz, bereziki norbaitenak ala gizartekoak. Gainbeheraren aldiak markatzen ditu satirak, bizio haiek zuzentzeko ohartarazpen filosofikoek ahalmenik ez dutenean erabili ohi da. Maitemin gutxi eragiten dit niri satirak barregarri uzten baitu gizona, eta gizona, zutitua edo eroria izan, izaki arrazionala baita; baina Juvenalen zigorra beharrezko deritzait askoren harrokeria jipoitzeko».

Interes grafiko urriagoa izango zuen *Bilbao Cómico*-k kontsultatu dugun ale bakarria kontutan hartuz gero. Kalera 1883an irtengo zen «astekari satiriko eta politiko» bezala. Argitalpen hau foruzalea zen, kritika politikoa, ele-meleak, gertaerak eta literatur kolaborazioak zituena. Bizkaiko Foru Aldundiari buruzko marrazki satiriko bat azaltzen zen azalean «Agor» goitizenez sinaturik.

El Arenal-ek (1894) Bilboko M. Echeverria inprentan egiten zituen botaldiak. Hemen kanpokoen eskuz eginak izan ohi ziren sail grafikoak: Cilla, Mecachis, Rojas, Pons... Literatur alderdian *El Arenal*-ekin Paulo Alzola, Manuel Bueno, Fermín Herrán, Alfredo Laffite, ea. esku hartu zuten.

● DONOSTIA, XIX.AREN AMAIERA

Aldi honetako Donostiako argitalpenak ia denak gorde dira. Euren arteko ezaugarrien artean daude herri mailako gertakarietako arreta eta hitz lauz nahiz bertsoz –euskarak ia denetan zuen bere tokia– eginiko artikulua eta literatur sailen konposaketa, zeinetan tarreak, irudi, txiste grafiko eta karikatura eta istorioekin banatzen zituzten.

1887an sortuko da *La Semana en San Sebastián*, **Pozo y Cía**-k inprimatzen zuena. Festa giro eta kulturari buruzko berriak aurkezten zituen, baita literatur sailak, epigramak eta hitz-igar-kizunak ere. Antonio Peña y Goñi eta Martzelino Soroa bezalako idazleek esku hartzen zuten. Euren marrazki eta karikaturekin **Frantzisko López Alen** (Donostia, 1866-1910) marrazkigile eta idazlea zenak eta gure ustez, urte batzuk beranduago espainiar umore grafikoaren ordezkari gailenena izango zen **Pedro Antonio Villahermosa** zen (Zaragoza, 1869-1945) «Sileno» zeritzan batek esku hartzen zuten. *Madrid Cómico* moduko argitalpenen ibilbideari jarraikiz bere azaletan pertsonaia donostiarren karikatura makrozefaloak agertzen ditu. Karikatura hauetan inoiz ez da aurpegierarik desitxuratzen. Zilegi den itxuraldaketa bakarria gorputzaren aldean buruaren neurria handiagotzea izaten da, antza denez, II Inperioan Frantzian sortu zen modari jarraituz.

La Galerna 1890ko otsailean aurkeztuko zen «astekari koshkero» moduan.⁹ Lehenbiziko alearen azalak makila sendo batez armaturiko mutilaren presentzia erasotzailearen irudia bazuen ere, aurrekoaren gisa, hiriko joan-etorrietan oinarrituriko argitalpen atsegin bat izan zen. Alejandro Iruretaren ikasle izan zen **Federiko Alvarez** «Efea» zeritzanak *La Galerna*-rako erretratu sail bat, ilustrazioak eta istorioak egin zituen, mendearen azken aldera turistaren kontura garatzen hasi zen Donostiari buruzko lekukotza grafiko –ohitura-kutsuzko eta pasadizozko– interesgarri bat osatzen dutenak. Aldizkariko beste marrazkigileak **Joan Garzia** –zenbaki batean baizik ez zuen esku hartu, baina, istorio interesgarria eskaini zuen– eta **Bitoriano Iraola** izan ziren. *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren lantegietan inprimatzen zen eta Antonio Arzak, Jose Artola, Martzelino Soroa edo Anjel M^a Castell bezalako kolaboratzaileak izan zituen *La Galerna*, 35 zenbaki argitaratu ondoren, desagertu egin zen. **Práxedes Diego Altuna** izan zen bertako zuzendaria.

La Semana Eúskara (1894) **Gerardo Failde** «**Jolín**-ek» zuzentzen zuen argitalpen liberal-foruzalea zen eta *La Voz de Guipúzcoa*ren lantegietan inprimatzen zen *La Galerna* bezala. Begiratu ditugun lau aleetatik ondoriozta daiteke **Federiko Guevara** zela arduradun grafiko nagusia. Marrazkigile irregular bezala azaltzen zaigu Gurevara, gai politikoak baztertzen ez dituen eta txisteaz baino istorioez gehiago arduratzen dena. Nafarroako Foru Ogasuneko ministro Germán Gamazoren ekimena kritikatu egin zuen «Ir por lana...» bere istorioa interes handikoa da, marrazkiaren trakestasunaren gaintetik eta garai hartan ohiko zenaren kontra, testua eta marrazkia batzeko halakoxe ahalegin bat nabari zaio, elkarriketak emanaldi fokuetara hurbilduz.

La Semana Eúskararen lehen alea argitaratu eta ia hilabete bat igaro orduko, *El Thun Thun* irtengo da kalera, *La Galernaren* antzera «Astekari koshkero» bezala definitzen zena. Auto-izendapen jator horrekin bat etorritik, aurrekoak baino bertakoagoa izaten jarraitu zuen eta kazetaritza politikoari uko egin zion espresuki. **Tiburtzio Osácar** «**T Cá Rosa**» zuzendariak bere literatur kolaboratzaileen artean izan zituen Martzelino Soroa, Pepe Artola eta Antoni Arzak.

El Thun Thun-ek kolorea sartu zuen hasierako orrian eta **Bitoriano Iraolaren** tipo-litografiako establezimenduan inprimatzeaz gain, berau arduratuko zen alderdi grafikoaz ere oso-osorik. Poeta eta euskal antzerkigilea zen inprimatzaile eta marrazkigile izateaz gain, Bitoriano Iraolak (Pasai Donibane, 1841-Donostia, 1919) istorio zenbait egin zuen *El Thun Thun*-erako, baita txiste, karikatura eta irudi ugari ere.¹⁰ Bere marrazkigintza, gerora, *El Aurreku*, *Novedades*, *Baserritarra* eta *La Baskonia* argitalpenetara luzatuko zen.

El Thun Thun-erako egin zituen txiste grafikoetan askoz ere adierazkorragoa azaldu zen Iraola karikatura pertsonaletan baino, umorezko alderdi nagusia sarritan elkarrizketatan (euskaraz eta gazteleraz idatzietan) pilatzen bazen ere. Nolanahi ere, Iraolak garbi utzi zuen bere umorea literaturaz harantzago zihoana izan zitekeela. Hauxe dugu «Copiando del natural» istorio muarearen adibidea.

Arloteak, pikaroak eta *koshkeroak* ohiko pertsonaiak dira Iraolaren txisteetan, aldizka genero adeitsuaren inguruan sartu-irtenak egingo baditu ere. *El Thun Thun*-eko umore grafikoak, oro har, argitalpenaren literatur alderdi apur bat neutro eta sainete-tonukoarekin bat datorrena da.

Ezagunak ez zaizkigun arrazoiengatik desagertu egingo da *El Thun Thun*, 28 zenbaki argitaratu ondoren.

Berehalakoan hartuko dio erreleboa, aurreko ekipoko batzuk –zuzendaria eta inprimatzailea barne direla– uztarturiko *El Aurresku*-k argitalpenak. *El Aurresku*, *El Thun Thun*-en formatu eta konposaketa –hamargarren zenbakiaz geroztik bertsio murriztu eta bi tintatan hartu zuena– bera gorde du, baina aldatu egin da azpтитulua. Oraingoan «Astekari koshkero satirikoa» izango da. Udal –eta eskualde– bizitzari buruzko gai jakin batzuetan bere ikuspegia –aurkituriko lau alei jaramon eginez–, satirikoa izango da. **Bitoriano Iraolak** («Sei» eta «Lata» izengoitiak hartuta) iraungo du marrazkigileen artean, aldizkariaren zuzendari eta jabe zen **Tiburtzio Osácar**-en sinadura erantsita. Zenbaitetan inola ere arbuiaitzekoa ez den Osácar marrazkigilea izango da, bertako prentsaren alderdi batzuk kritikatzuz eta Udalaren eta beste erakundeen aurka erasoz, itxura politikoa zuten txisteak egingo zituen bakarra. *El Aurresku* desagertu zenean, sozialismoaren aldekoa zen *Irunsheme* astekari iruindarraren ardura hartu zuen. Eta urte batzuk beranduago, gerra zibilaren hasieran nafar hiriburuan eraila izan zen.¹¹

San Sebastián cómico-k bere lehen alea 1896ko maiatzaren 3an atera zuen «donostiarrei tarte atseginak eragiteko» aldizkaria izateko asmotan. **Anjel Blasco**-k –15. zenbakira arte– zuzendu eta **Anjel Pozo**-k inprimatzen zuen astekari hau, 22 zenbaki argitaratu ondoren, desagertu egin zen.

Literatur aldetik Aemecé, Eusebio Blasco, Basilio Olalde eta Martzelino Soroa aritu ziren, besteak beste. Hiriko egunerokotasuna eta festa giroa izaten ziren gaiak, baina, noizean behin eztenkadak botatzen ere bazekien integritismoaren aurka. Kubako altxamenduaren oihartzunak ere entzun ohi ziren aldizka.

Marrazkilarien artean nabarmendu zirenak: **Amarante** –kolaboratzaile ohikoena–, **M.P.** eta **Enrike Dorda**.

● BILBO, XX.EKO LEHEN HAMARKADAK

Mende amaierarekin batera, antiklerikal amorratua zen *El Ruido* egunkari sozialista azalduko da lehenbizi; Bilbon argitaratu zen 1900etik 1911 bitartean, erredakzioa aldi batzuetan Irunen kokatua izan bazen ere. «Gizalegez eta jainkotasunez barre-algaraz ibili eta irria darion astekari lizun» bezalako azpтитuluak erabili zituen argitalpen honek, 1907an bederen, esku anonimoz eta kalitate nabariz eginiko txiste eta karikaturak argitaratu zituen, beti ere, apaizgoa isekaren miran jarrita. Ikonografia antiklerikalaren patroiei jarraikiz, apaizen ezaugarri modura azaltzen dira: gula, haragikeria eta zurikeria.

El Ruido, berriz, **Valentin Hernández**-ek fundatua zuen, aurretik Bilbon *La Lucha de Clases*, 1903 eta 1905 bitartean, proselitismo asmoz hainbat marrazki satiriko argitaratu zituen astekari sozialista zuzendu zuenak.¹²

El Ruido-ren zuzendaritza, alditxo batez bederen, **Abilio F. Peñafiel**-en eskuetan egon zen, zeinak 1912an ziurtatzen zuen, 22 urtetako kartzela zigorrera zeukala eta 14 epai-prozesaketei aurre egin behar ziela. *El Ruido del Norte* –*El Ruido*-ren antzeko izenburua eta ideiak, baina bere etsai sutua zen Donostian argitaraturiko egunkariak– zioenaren arabera, Peñafielen aurka zuzenduriko epai-prozesu garrantzizkoenetako bat: «ezmorala izateagatik, *Academia Sodoma* izenez argitaraturiko artikulu bategatik, eta Bilbon behin-behineko alkate izan zen **Fatrás** jaunari egindako irain larriengatik» izan ziren.¹³

Oso bestelako irizpide politikoak zituena izan zen *El Pueblo* (1905) egunkari bizkaitarra. Izengoitiz «Desperdicios» zen **Aureliano López Becerrak** zuzenduriko hamabostekari hau ideia kontserbatzaile eta antisozialista baten zerbitzura egon zen. Bi zenbakietako marrazkiak ikusi ondoren, kalitate desberdineko marrazki satiriko, irudi eta binetak zituela esan behar.

Bilbon, 1908an, argitaratzen hasiko zen *El Coitao* astekari satirikoak, nahiz eta bere berriemaileen maila literarioa eta plastikoa handia izan, ezin eutsi izan zion zortzi zenbaki baino gehiagori. Ertilari gazte talde batek sustaturiko astekari liberal honen orrialdeak “bizkaitarrak” eta jesuitak maiz ederki astinduta irtengo ziren jarduera kultural eta politiko baten zerbitzura jarri ziren. **Gustavo Maeztu** eta **Alberto** eta **Jose Arrue** anaiak arduratu ziren irudiez.

Alderdi literarioan aldiz, Migel Unamuno eta Ramiro Maeztu sonatuez gainera, hauexek dira esku hartu zutenak: Erramun Basterra, Rikardo Gutiérrez Abascal, Jose Maria Salaberria, Tomas Meabe, Erramun Sánchez Díaz eta Estanislao Maria Agirre.

Argitalpenetako gora-beheren arduradun nagusienetakoa, antza denez, Jose Arrue izan zen. Hasierako kapitala (800 pezeta) jartzeaz gainera, Unamunoren lankidetzatza lortuko zuen bere marrazkien ordainetan.¹⁴

Salamancako erretoreari zuzenduriko eskutitzean, Arruek honela azaldu zuen nolako egunkaria lortu nahi zuten: «gutziz liberala, hemen esan daitezkeen gauza guztiak eta zeuk esaten dituzunak esateko aukera emango duena, gogorrek izanda ere».¹⁵

El Coitao-ko karikatura, txiste eta irudien, ezaugarri komun bezala, irudietan eta hondoetan erabilera zirriborotsua, eta halakoxe kutsu modernista suma daiteke. Jose Arruek nekazari giroko eta hiriko pertsonaia eta eszenak agertzen ditu, bere obrarik ezagunenetan ez bezala, estilo libre eta askatu batetan. Gustavo Maezturen karikatura pertsonalak ere aipatzeko modukoak dira.

XX. mendeko bigarren hamarkadan sarturik, ale bat baizik ezagutzen ez dugun bi argitalpen azalduko dira Bilbon: *Klin-Klon* eta *La Risa*. Biak ere, 1911.ean hasi ziren argia ikusten.

Bilbotartasun eta independentzia politikoarekin harro agertuz, *Klin-Klon*-ek irudi ugari hedatuko zuen, «**Sapi-ren**» txisteekin eta **Jose Arrue**, **Anselmo Guinea Zugaza** eta beste marrazkigileen irudiekin. Aldizkariak definizio ideologikorik ez izateak ez zuen satiraren ukapenik ekarri udal-politikako gaietan.

Klin-Klon agertu eta hilabete batzuk beranduago, umore aseptikoko *La Risa* astekaria aurkeztuko zen, eta antza denez, urte batzuk lehenago *El Arenal* bezala, oinarrizkoetan besteren irudi produkzioetatik elikatzen zen.

Jose Arrue esku hartu zuen beste argitalpen bilbotar bat *Sinsorgo* dugu «herri-ekimeneko astekari chirene bat», 1915ean argitaratzen hasi zena. Manuel Llano Gorostizak ez zuen zalantzarik izan astekari hau *El Coitao*-ren bigarren bertsio «eskas eta zoritzarreko» bezala jotzen.¹⁶

Amania agertuko zen hurrengo urtean, Estanislao Maria Agirre idazle eta arte kritikariak Gumersindo Gil eta Gil, Mena haraneko kazikeari deklaratu zion gerra pertsonalaren zerbitzuko argitalpena izango zena. Bilbon argitaraturiko astekari honek **Jose Arrue**, **Felix Agüero** eta **Antonio Gezala** irudiak izan zituen, eta beste aldi bat ere ezagutu zuen, *Amania Nueva* izenpean, **Bon** karikaturagileak esku hartu zuelarik.¹⁷

● DONOSTIA, XX.EKO LEHEN HAMARKADAK

Hamarkada horretan bertan Donostian umore aldizkari irudiztatu batzuk argitaratuko dira. 1911 eta 1912an argitaratuko da lehen aipaturiko *El Ruido del Norte*, «jendaila atzerakoiari gogor erasoko dion aldizkari independentea». Aztertu dugun aldizkari bakarraren arabera, binea satirikoak eta euskal nazionalismoaren ukapenarekin, langiletasuna eta antiklerikalismoa uzartzen zitueneko gogoetak erakusten zituen.

El Duende astekari satiriko donostiarrari buruz, berriz, 1913.ean *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikarrak eskaini zion agurra besterik ez dugu aurkitu. Lan honetan «irudien alderdiak ugaria eta akatsgabeko garbitasuna zuela aipatzen zen, eta gainerako egitura gustu artistiko bereziz aurkeztua zegoela».¹⁸

Arrasto apurrak baino ez dira, aldi honetako beste argitalpen donostiarrek utzi dituztenak, *El Pitorreo* (1915) esate baterako, «zorakeria librea lantzen duen kalterik gabeko astekaria» azpigitulua duena.¹⁹

Aldi batez bere zuzendaria, **Jose Martínez Amuategi** «**Amua**», umoregile grafikoa izan zen; argitalpena desagertu ondoren, urte batzuk beranduago prentsako elkarrizketa batean deklaratu zuenez, *El Pitorreo* argitalpenaren defizita egutegiko erredaktoreek estali behar izan zuten aste

askotan zehar; eta zentsura zela eta, eransten zuen, egunkariari sarritan izena aldatu beharra gertatu zitzaiola *El Kirikiri*, *El Ciclón* edo *La Avispa* bihurtuz, «elkarrizketa haserre baten ondoren, Marqués de Atarfe gobernariak aldizkariaren argitalpena debekatu zuen arte».²⁰

Ixteko erabaki honetan arrazoi pertsonalen bat izango zen, Gipuzkoako gobernaria bera, izan ere, iseka grafikoaren xede izan baitzen behin behintzat.²¹

Donostian *Tontolin!* «irudi artistikoak zituen astekari satiriko» honen agerpena aldarrikatuko da 1920an²² eta *El Parlanchín*²³, umorezko astekariarena eta *Kaiku*, «astekari satiriko nazionalistarena» ondorengo urtean.

Azken honenak 36 zenbaki, bederen, argitaratu ziren (1921ko azaroa eta 1922ko uztaila bitartean) eta begiratu ditugunengatik –29 ale– dakigu argitalpen elebiduna zela, non Comución Nacionalista Vasca-ko gaztediak zalantzarik gabeko propaganda asmoz eginiko artikuluen ondoan, txiste grafiko eta istorio bakan batzuk ere egin ziren.²⁴

Divad, Kixkur, Kaperu (Flores Kapeotxipi?) eta Ikatza izan ziren *Kaiku*-ko kolaboratzaile grafikoek erabilitako izengoiti batzuk. Orokorrean, hemengo txisteez ez dute zaletu gogotsuen maila gaintutuko. Azaldu zuten gogortasun politikoa ez zen bat etorri berauen adierazpen gaitasunarekin. Aipaturikoen artean, **Divad** (David Álvarez-en izengoitia, antza denez) izan zen marrazkigilerik nabarmenena.²⁵

Kaiku-k bere marrazkigileak izan zituen, baina, *Le Rire*, *Simplicissimus*, *Buen Humor* edo *El Mentidero* bezalako aldizkarietako txisteez ere hartu zituen. Beste argitalpenetatik zetozen –inolako eskubiderik ordaindu ere egin gabe– txisteez sartzea asko hedatu zen baliabidea gertatu zen garai hartako aldizkarietan eta prentsan.

● IRUDIZTATURIKO ALDIZKARIAK

Txiste grafikoari eta karikatulari tarte bat egin ziotenak ez ziren aldizkari satiriko eta jai girokoak bakarrik izan. Oparotasun gutxi edo gehiagoz, bereziki irudizko aldizkari edo *magazinenak* zirenak ere tarterik egin zioten.

1909 eta 1919 bitartean Donostian argitaratu zen *Novedades* astekari irudiztatua izan zen, bere generoaren barruan Euskal Herrian argitaratu zirenen artean ospetsuena. Argazki-informazioa izan zen honen aukera nagusia, baina bazuen tarterik –benetan ez ttipia bezainbat zorrotza– umore grafikoarentzat. Maiztasuna gora behera *Novedades*-en esku hartu zuten marrazkilariak Alonso Martí, Joakin Larregla, Amua, Bitoriano Iraola, Felix Arteta, Anjel Cabanas Oteiza, Felix Agüero eta Antonio Gezala izan ziren.

Iritzi politikorik ez agertzea –zuzendaritzak behartuta, ziur– izan zen denen ezaugarria. **Amua** eta **Iraola** izan ziren, euren karikatura eta txisteetako irudi xaloeekin, gehien iraun zutenak.²⁶ **Felix Agüero** eta **Antonio Gezalak** 1915 eta 1916an argitara eman zituzten karikatragile eta idazleak nabarmenduko dira, estilizazio garbia eta kalitateko plastikotasuna zutenak.²⁷

Bilbon 1907tik 1915era argitaratu zen *El Nervión* egunkariaren eranskin irudiztatuak ere eskaini zion lekuri txiste grafikoari. Anjel Ugarte-Revenga eta Raimundo Padillak hantxe kale-ratu zituzten indar eskaseko txisteez.²⁸

Gai honetan garrantzia handiagoa izan zuen *Garellano* aldizkariak. Astekari irudiztatu hau 1921ean azaldu zen Bilbon, **Bon** eta **Herrero**-ren karikatura eta txisteez argitaratu zituelarik. Rikardo Opisso eta Jose Maria Asua «Pisarrín-ek» ere esku hartu zuten, baina, gutxiagotan. Bigarren aldi bat izan zuen aldizkari honek 1922an *Bilbao Gráfico* izena hartuta. Marrazkigile bikaina zen **Erroman Bonet «Bon»** (1886-1967) bartzelonarra arduratu zen 1922aren erdialdera *Bilbao Gráfico*-ko «zuzendaritza artistikoaz», azalak, irudiztatzeak eta txisteez eginaz. Herroren jardun zuen hemen, baita Anjel Ugarte-Revenga bezalako beste marrazkigileak ere.²⁹

● EGUNEROKO KAZETARITZA

Eguneroko kazetaritza espainiarraren giroan irudia bere tokia egiten zebilen XIX.eko azken 20 urteetan, baina, umore grafiko moderno, gaurkotasunezko gertaeren ikuspegi ironikoa, ez da XX. mende hasiera arte hasiko bidea egiten. Bartzelonako *La Tribuna* egunkaria aitzindari izango zen 1905an, Luis Bagariaren karikaturak argitaratzean.

Euskadiko eguneroko egunkarietan, badirudi Bilboko *El Pueblo Vasco* dela, bertako marrazkigileei tokia eskainiz, umore grafikoari lotu zitzaion lehena. 1910ean fundaturiko egunkari monarkiko, kontserbatzaile eta antinazionalista honen lehen zenbakietan txiste eta karikatura zenbait argitaratuko dute Jose Arruek eta Gustavo Maeztuk.

Marrazkigile liberal hauen jarrera ikusita agian, *El Pueblo Vasco*-ko aholkulariek urte horretan bertan, ekainean, karikatura lehiaketa batetarako deialdia luzatuko dute, oinarrietan honoko hauek azalduz: «Gaiaren hautaketa lehiakidearen erabakia izango da, moralaren arabera, beti ere. Gaurkotasun politikoa duten gertakariak eta entzute handieneko pertsonaiei buruzko trazuak izango dira gustukoena». ³⁰ Epaimahaikideak Manuel Losada, Rikardo Gutiérrez Abascal eta Pedro Mourlane Mitxelena izan ziren. Badirudi lehiaketaren emaitza ez zela publiko egin, baina egunkariko gidarien artean «**Chirlora**» izan zen, zalantzarik gabe, begikoena, bera izango baita sarrien esku hartuko duena. Bere txisteen bidez Chirlorak amorruez erasoko du sozialismoa eta langile mugimendua.

Bilboko *El Pueblo Vasco*-n bertako marrazkigileen esku hartzeak, antza denez, 1912an eten egingo da, 1919an berriro anonimatuari gelditu nahiago duen marrazkigile zirtzil mingarri batekin proportzio desberdinean bada ere, –Chirloraren trazak dituenarekin– abiatzeko. Urte batzuetan Euskal nazionalismoa eraso egin behar zaion pizti beltza izango da.

Rafael Pikabearen –*Novedades* astekariaren jabea ere bazena– Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkari kontserbatzaile moderatuak ere, umore grafikoaz interes goiztiarra sumatuko du. **Cyrano**-ren txiste batzuk argitaratuko ditu, baita Arkauteren karikaturaren batzuk ere. ³¹ Aragoar kazetari eta komediografo **Ramón López Montenegro**, Cyrano izengoitia zeramanak, egunkarian irudiz nahiz literaturaz esku hartu zuen hamarkadan zehar. ³² **Amuak** (1916tik), **Luis P. Solero** eta **Eusebio Martín Ygartiburu** umoregileek ere esku hartuko dute, 20ko hamarkadaren hasieran *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikazalean lanean zihardutenak. Oro har, hala-holako irudiz –maila batean salbuespen izan zen Eusebio Martín– marrazkigile multzo honek umore politikoa bezalatsu landu zuen *doako* umorea. Gehien errepikatu zen gaia I Mundu Gerra izan ohi zen, estatu nahiz herri politikari buruzko aipamenik ez bazen ere falta izaten.

Bilbon 1913an fundaturiko *Euzkadi* egunkari nazionalistak umore grafikoa bere kredo politikoa zerbitzuan jarriko du hastapenetik. Lehenbiziko zenbakia argitaratu eta egun gutxitara, «**Mirri**» izeneko, beste asko ez bezalako, marrazkilari eraginkor eta garratza bat hasiko da esku hartzen, lehendik –1910– Bizkai Buru Batzarraren organo ofizial *Bizkaitarra* astekarian txiste politikoren bat argitaratua zuena. Esanahiaren aldetik zirikatzaile zirela eta, Mirriren txisteak protesta bat baino gehiago eragin zuten. *Euzkadin* bera esku hartzen hasi eta hirugarren hilabetera orduko, *El Nervión* aldizkariak «kexa egingo zuen grafikoki irainak egiteko gaitasun beziak zituela-eta». ³³

Gerra Handia lehertzearekin batera, Mirrik eten egingo du bere partaidetza, nahiz eta *Euzko-Deya* (1916-1918) eta *Aberri* (1916-1921) bezalako beste argitalpenetan agertuko den. Izengoiti berriean «**Kili-Kilik**» jarraitu egingo du *Euzkadi-ko* bere partaidetzan 1919an, beraren antzera, umorea arma jaurtigai bezala erabiltzen zekiten **Crisanto Lasterra** «*Cri-To*» eta **Bon** marrazkilarien ondoan. ³⁴ Sabinoren aldeko sustrai xenofobo edo arrazista tenorekoa azalduko da zenbaitetan Kili-Kili eta Cri-To-ren marrazkietan.

Beste alor ideologiko batean, hamarreko hamarkadaren erdialdera, Bilboko *El Liberal* ireki egingo zaio, lotsati antzera, umore grafikoari, **Bon** eta **Jose Arrueren** lan batzuk argitaratuz. 1915 eta 1924 bitartean –gutxi gorabehera, urte hauexetan emango dio Horazio Etxebarrieta handikiak norabide errepublikazale eta liberala egunkariari– Jose Arruek, modu zehatz eta errealean karikaturizaturiko txistetan bere pertsonaiak eta herrixketako eszenen profilak ikusiko dira jada, *El Coitao*-n hasitako bide satirikoari jarraipena ematen dioten gai politiko eta sozialak ez direlarik faltako. Bon-ek ere ez ditu *El Liberal*-eko bere aldi laburrean (1916-1918) gai politikoak bazterrean utziko.

● UMOREZKO MARRAZKIAREN BALIOESPENA

Orain arte ikusi dugunaren arabera, bistakoa gertatzen da lehenengo hamarkadan barrena –bigarren erdian batez ere–, euskal prentsan kokamena hartuz joango da umore grafikoa inguruko errealitateari sendo helduz. Goranzko ibilbide horretan umore-marrazkigilearen lana, arte eta kultur produktu bezalako aitortzea, eten gabe goraka doana da.

UMOREGILEEN ARETOA

Madriren, umorismo grafiko berriaren hedapen zentro nagusian, Silvio Lago, Jose Francés edo Manuek Abril bezalako eragin handiko kritikari batzuk defendatu egingo dute prozesu hau. Jose Francés-ek 1915ean hitzaldi bat emango du «espainiar karikatura garaikidea» zertizana, eta urtero, ekitaldi asko ezagutuko duen Umorigileen Areto bat antolatuko du. Aretoan 1917an bildu zirenen artean zeuden Jose Arrue, Pedro Antequera Azpiri, Antonio Gezala, Arta (Felix?) eta Arkaute. Urte horretako erakusketari buruz zera idatzi zuen Jose Francés-ek: «Urte berri bakoitzean erakustaldi hauen garrantzia haziz doa. Lehengo urtean hamahiru ertilari baino ez zen etorri, denera hirurogeita bat obra zekartzatela; bigarrenean –lokala txikia zelako, igorpenen zenbatekoa murriztu beharra gertatu zen– hogeita hamaika ertilari eta hirurogeita bost obra. Hirugarren urte honetan hamasei egileren lanak azalduko dira, lauhun obra baino gehiagorekin.³⁵

ERAKUSKETAK EUSKAL HERRIAN

Halakoxe beroaldi bat suma zitekeen urte horietan Bilbon ere. Espainiar umorigile grafikorik handiena den **Luis Bagariak**, 1916an Euskal Ertilarien Elkartean aretoan, intelektual, ertilari eta politikarien karikatura sail bat zintzilikatu zuen. Erakusketaren katalogoan Ignazio Zuoloaga, Pio Baroja, Jose Ortega y Gasset, Erramun Perez Ayala eta Azorinen testu laburrak sartu ziren, karikaturagile katalanaren obrarekiko zuten miresmen sentimendu komun bat adierazten zutelarik.³⁶

Ondorengo urtean, toki berean, **Bon**-ek ere –ordurako *El Liberal* eta *Amania Nueva*-ko lankide– karikatura sail bat erakutsiko du.³⁷ Urte horretan bertan *Hermes* kultur aldizkari sonatuak Bon eta Bagariaren karikaturak eta Rikardo Gutiérrez Abascal-«Juan de la Encina» kritikariaren artikulu goresgarri ere bat argitaratuko du bigarren honen abrari buruzkoa.³⁸

1920ean, berriz, **Antonio Gezala** (Bilbo, 1889-1956) izango da Euskal Ertilarien Elkartea karikaturez beteko duena. Honela idatziko zuen Crisanto Lasterra arte eta karikatura kritikariak: «Sinpletasuna eta estilazazioa marrazkigile aleman garaikideak baino oraindik ere urrutirago eramanaz, fintasun atsegin lortuko du bere artearentzat».³⁹

Arte Vasco elkartearen organoak Gezalak erakutsitako karikatura batzuk argitaratu zituen eta baita ondorengo iritzi honekin hasten zen Estanislao Maria Agirre «J. Luno-ren» komentario bat ere: «Orain urtebete, halako ausardia eskaintzen zuen mota honetako erakusketek txiki-txiki eginda bota zitzaizkiren aretoko leiarrak».⁴⁰ Urte batzuk lehenago Bon eta Bagariak publikoaren eta kritikoen aldetik lortu zuten arrakasta kontutan harturik, Agirrereren esaldiak, inolaz ere, gehiegizkoa dirudi. Pentsatzekoa da, bestalde, Gezalak erakutsi zituen euskal ertilarien karikaturak, hain sintetikoak izanik, maisu katalan haienak baino harrigarriagoak gertatuko zirela.

Euskal Herrian karikaturen erakusketak eginak ziren Bagaria eta Bon-ek egin baino lehenago.⁴¹

Amuak 1911ean Donostiako El Pueblo Vasco aretoan egin zuen eta Pedro Antequera Azpirik gauza bera 1915ean Bilboko Delclaux aretoan; baina oso litekeena da, bi hauek erakutsitako lanetan karikaturazkoak eta piktorikoak txandaka edo aldi berean ematea, horrela eginez «Artearen Areto» baten eskubidea izateko eragozpen hipotetikoak gainditurik geldituko zirelarik.⁴²

Bilbon arazorik gabe azaldu zituen Jose Arruek bere «umorezko pinturak» –deitura hauxe gustatu ohi zitzaion bere koadroentzat– 1907tik hasita, bederen.

■ PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA (1923-1930)

● TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Primo de Rivera, Kataluniako kapitan jeneralaren matxinada emango da 1923ko irailaren 12tik 13rako gauean. Alfontso XIII.aren baimenarekin gobernu parlamentarioaren lekuan diktadura jarriko da, klase politikoaren eraginkortasun eza, militarrek Marokon izandako porrota, gizarteko gogorkeria eta inguruko nazionalismoen indartzea izan ziren aldaketa honen hazkuntza-likidoa. Iraultza proletario bat eman zitekeela eta, eragiten zuen beldurrari erantzun autoritario bezala, estatu kolpeak lotura puntu asko zituen Mussolinirenarekin. Espainiako kasuan, halaz ere, Diktadura ez zen autoritarismo sistema moderno bezala ezarri, Konstituzioaren aldi bateko etenaldi baten antzera baizik.

Gainerako Espainian gertatu zen bezala, Primo de Riveraren Diktadurak hasiera hartan ez zuen Euskal Herrian aurkako askorik izan. Elizako hierarkiak itxaropenez hartu zuen aldaketa, eta ez karlistak, ez mauristak ez ziren oso deseroso sentitu, azken batean, «Aberria, Erlijioa eta Monarkia» aldarrikatzen zuen erregimen batekin.

Konbentzimendu handiagoz edo txikiagoz, liberalek, errepublikazaleek eta sozialistek babes-tu egin zuten Diktadura, ongizate ekonomiko handiagoa gertatu zen heinean. Euren aurkakotasuna hazi egingo zen, ordea, erregimena itzulerarik gabe krisian desegiten zihoanaren arabera, 1930an Erregeak Primo de Rivera boteretik kenduko duenean amaituko zelarik.

Diktaduraren errepresioa, batez ere, honako hauek jasango dute: CNT-ek, Alderdi Komunistak eta katalan eta euskaldun nazionalista erradikalak. Ekimen politikoak garatzeko ezintasunaren aurrean, euskal nazionalismoa, bere herri-zimenduak sendotzea lortuko duten propaganda kulturalak, kirol antolaketak eta ekimen erlijiosoak antolatze lanetan babestuko da.

Primo de Riverak onespren orokorra iritsi zuen, pronuntziamendua zuritu zuten bi arazoak konpontzeko garaian: ordena publikoa eta gerra koloniala. Porrot egingo zuen ordea, sistema egituratu nahian eta partiduen erregimena, inguruko nazionalismoa eta klase borroka betirako deuseztatzeko saiakeran.

Primo de Riveraren politika ekonomikoak korporatibismoa, nazionalismoa eta autarkia ezau-garri izanik, hogeigarren hamarkadako urte haietan, mundu guztiarentzat izan zen aurrerapen ekonomikoarekin irabazle irteten asmatu zuen. Garapen ekonomiko honen eta zorieko lan-harreman politiko baten eta gizarteko errebindikapenen gainean langile mugimenduen eragina gora-behera, eta egitura zaharrak mugitu ere gabe irauten bazuten ere, gertatu zen bateratzeak, oro har, aldi egonkor eta gizarte moderno bihurtu zuen hamarkada hau, hirigintzaren garapenean, eskolagabeak gutxitzean, gizarteko emakumearen egitekoan eta abarretan sumatu zitekeena.

Masa-kulturaren garapen itzela ere adierazten dute hogeiko hamarkadako urte hauek. Zinearen errotzea eta irratia-aren hedapen nabariarekin batera, futbola, txirrindularitza eta boxeoa bezalako kirol ikuskizunen hazkunde azkarra nabarmenduko da.

● PRENTSA ETA ZENTSURA

Prentsa eta adierazpen askatasunari dagokionetan, erregimen diktatorial batean espero zitezkeen modura gertatu ziren gauzak. Berme konstituzionalak kentzeak bilera eta propagandako ekimen ooren berehalako kontrola eragin zuen. Aurretiazko zentsurari men egin beharra gertatu zitzaion prentsari, zigor ekonomikoa edo behin-behineko nahiz behin-betiko ixtea gerta zitzaiokeelarik.

Pronuntziamendua gertatu eta bost egunetara, 1923ko irailaren 18an, Errege Dekretu bat jakinaraziko du Primo de Riverak salbuespenezko legeen gehikuntza ekarri zuena, tribunal militarrei «patriaren segurtasun eta batasunaren aurkako delituetan eta, zatitzera, indarra kentzera eta bere kontzeptua hitzez nahiz idatziz, inprenta edo publizitate eta hedabiderako bitarteko mekaniko ala grafiko bidez, nahiz edonolako ekimen edo adierazpenez, gutxitzera joko lukeen edozertan» eskumen ematean.

Migel Artola historialaria bizkorra izan zen Primo de Riveraren zentsurari buruz hitz egite-rakoan: «Gerra-egoerak, lehenbizi, eta botere bereziak, gerora, babes egoeran eduki zuen pren-tsa, erregimenak iraun zuen bitartean eta inolako legerik erantsi beharrik ez zen izan, ez bai-tzagoen delitua egiteko inolako ahalbiderik».⁴³

Zentsura aplikatzeko inoiz ez zen arau orokorrik eman, gai batzuk bereziki debekatuak izan baziren ere. Ezin zitekeen epailearen akatsei buruz hitzik egin, ez eta errusiar iraultza goraipa-tzerik, ez italiar faxismoa kritikatzetik ere.⁴⁴ Praktikan, kritikan jarduteko tarterik edo zirriki-turik ukan ala ez ukan, txandako zentsorearen aukeran eta nahieraren arabera egoten zen.⁴⁵

Zentsura ezartzeko arduradunaren jarrera apetatsuari buruz, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikazaleak 1930eko otsailaren 27an honela azpimarratuko zuen: «Aurretiazko zentsurak aukera desberdinak izan ditu Donostian. Zenbaitetan bere asmo txarreko zorroztasunez ito be-harrean, eta besteetan –probintzia batzuekiko– halakoxe axolagabekeriaren akatsa zuen. Zuriu-neak eta zirriborroak argitaratzetik ez zigun inoiz onartu. Bilboko eta beste hirietako egunka-riek zirriborraturiko zutabe osoak agertzen zituzten bitartean, guri ez zitzaigun onartzen forma-ren gainean hitz bakar bat ere borratzerik. Hilabete askotan egunero bost, sei ala zortzi plana berregin behar izaten genituen, zeinak posta asko galdu araziko zigun, kalte ekonomiko larriak eraginez...».

Diktaduraren erorketa ondoren, *La Voz de Guipúzcoa* globalki epaitu zuen Primo de Rive-raren zentsuraren kontrola: «Zazpi urte eta lau egunen buruan etengabe jardun ondoren, desa-gertu egin da aurretiazko zentsura. Etengabeko kezurik eta sakoneko nahigaberik gabe jasan ez dugun irain gorrotagarri bat zen (...). Normalean, diskurtsorako ezgauzak ziren eskolagabeko gizagaixoen eskuetan zegoen zentsuaren eginkizuna; intelektueltasun eta garbitasun izpiritual zen guztiaren etsai amorratuen aginduen menpe, galeradek ateraldi komikoak erregistratu behar zituzten, irainak irribarrez estal zitzaizketenak. Baina, arkatz baldar eta itsuki erabili hura zen diktadoreen politika arrearen tresna eraginkorra (...).»⁴⁶

● UMORE GRAFIKOA

Satirarako hain gutxi ongarrituriko alorra izanik, ez da inola ere harrigarri, espainiar umorez-ko aldizkariak transzendentziarik eta konpromisorik gabeko gaiak erabiltzea garai horretan, in-guruko errealtate sozio-politikoari buruzkoetan. Batzuetan zentzugabeko eta ero, eta askotan marrazki eta adierazpen hizkeran halako kalitate oneko umore iheskor horren adibideak izan ziren Madriliko *Buen Humor*, *Muchas Gracias* eta *Gutiérrez* aldizkariak.⁴⁷ Euskal Herriko argi-talpen batzuk hauen txisteetan baliabide samurrak aurkituko dituzte, euren orrialdeak alaitzeko.

Berezi gabeko irakurlegoari zuzenduriko umorezko aldizkarien ondoan, irudizko haur-aldiz-kari ugari asko azalduko da Madrilen eta Bartzelonan, asmo apostolikoak eraginda pedagogo eta ordena erlijiosoek bultzaturik. Katalunian, Diktadurak katalanarekin neurri zapaltzaileak hartu arren, 1923 eta 1930 bitartean zortzi haur-aldizkari berri bederen argitaratuko dira, ko-munitateko hizkuntza eta kultura berezia sendotzea helburu hartuta.⁴⁸

TXISTU¹ HAUR-ALDIZKARIA

Donostian eta testuinguru honetan sortuko da *Txistu*, *Argiak* sustaturiko haur-aldizkaria, apain eta sekular talde batek bereziki baserri-girokoei zuzendurik argitaratzen duena. Hain zu-zen ere, *Txisturen* arrasto grafiko bakarra astekari honetantxe lortu ahal izan duguna da. Lehe-nengo zenbakia kalera irten baino lehen, hilabete batzuk lehenago (1927ko urtarrilean), *Argiak*, haur aldizkari berri honen azalak izango zuen gutxi gora-beherako itxura erakutsiz aldarrikatu zuen proiektu hau; zortzi orrialde izango zituela adierazi zuen bestalde, eta hauetako bost edo sei marrazkiz beteak, gainerakoak berriz, irakurtzekoak eta denbora-pasak.⁴⁹ Aipatutako “azalean”, «Mutikoak bezalaxe» istoriotxo zaharkitu eta moralista nabarmentzen da, zeinetan marrazkilari anonimoak animalia batzuei giza bizia grazia ederrez emango dien.

Txisturen amateur izaera, zeregin honetan Madrilen bizi ziren euskal ikasle batzuk jardun izanak bistaratuko du. Dakigun gauza da, arkitekturako ikasle batzuk, hasierako etapa batean, original ugari bidali zutela argitaratzeko. Astekari honetako sustatzailerik nagusia zen Abdón Alaiza arabarrak Madrilen buruturiko kultur animazioaren emaitza izango zen seguruenik esku hartze hau.⁵⁰

Txistu ezagutarazte zereginen, *Argiaren* almanakaren publizitatea gurasoei zuzendurikoa izan zen, lortu nahi zuten helburuaren berri emanaz: «Sarritan diozu ezin dituzula zure seme-alabak euskaldundu. Gaurtik aurrera ezin kexatuko zara horretaz».⁵¹ *Euzkadi* egunkariak aho betean babestu zuen aldizkari berria. Egunkariko ideologo nagusiak, Engrazio Aranzadi «Kizkitzak» horrela idatzi zuen: «Haurrek euskaraz irakurriko badute, behartu egin behar zaie. Ez dira berez horretara helduko. Baina eurak konturatu gabe behartu behar dira; sendotasun eta xamurtasunez behartu. Hauxe lortu nahi du *Txistu*-k, euskaraz idatzitako egunkari alai eta grafikoak».⁵²

Prentsako erreferentziaz dakiguna da hamabi zenbaki gutxienez argitaratzera iritsia zela *Txistu*.

EGUNEROKO PRENTSAN

Bigarren hamarkadako urte haietan, gora egiten jarraituko du umore grafikoak. Espainiar nahiz atzerritar argitalpenetara joko du txiste bila sarritan euskal prentsak, eta beren txiste eta marrazkiez esku hartu zuten bertako marrazkilariak ugari dira. Halaz ere, gutxi izango dira jarraipenezko lan baterako bere marrazkilariak dituen egunkariak.

Gipuzkoan euskal nazionalismoari plataforma bezala balio izan zion Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkari kontserbatzailea, Madrileko⁵³ literatur tertulia haietan egunkaririk eskatuena zen, Saiz Valdiviesok esanaren arabera, aurreko hamarkadan hasitako umore grafikoarekiko arretaren ibilbidea luzatu zuena. Diseinu grafikoan hainbat alderdi desberdin landuko dituen **Joan Zabalo** «Txiki» marrazkilariak 1922 eta 1930 bitartean egunkari honetan argitaratuko ditu txisteak, testuak euskaraz edo gaztelerazko dituztela, baita kultur munduko pertsona ospetsuen karikaturak ere. Txikiren urte hauetako umorezko izaera apolitikoa edo *doakoa* zentsuraren presiopekoa izan zenik ez daiteke ziurta, estatu-kolpea baino lehenago ere, bere txisteak ildo horretatik baitzihozten.⁵⁴

Erregimenaren aldaketa hartan kaltetuena nazionalisten prentsa suertatu zen. 1923ko irailaren 18ko «Propaganda eta jarduera separatistaren» aurkako dekretuak *Aberri*⁵⁵ egunkari erradikalaren berehalako ixtea ekarri zuen ondorioz.

Euzkadi egunkariak bizirik iraun zezakeen, iritzi politikoari eta euskararen presentziari – hasierako une hartan bederen – uko egingo zion baldintzarekin.

Euzkadik 1919an bildu zuen umoregile politiko talde sonatuak (Bon, Cri-To eta Kili-Kili) ezin jarraitu izan zuen bere lanarekin. **Cri-To-k (Crisanto Lasterrak)** baizik ez zuen jarraituko 1929ra arte, noizean behin egiten zituen ertilarri eta intelektualen karikatura zoragarri haiekin.⁵⁶ Kolpearen aurretik Cri-To-k argitaratu zuen «Atentatu baten biktima» txistearen? garraztasunak ez du tokirik testuinguru berrian.

1924.ean *Excelsior* sortuko da, Espainian argitaratzen zen kirolean aditua den lehenbiziko egunkaria, *Euzkadi* kaleratzen duen argitaldari taldearen emaitza. Aldizka bertan esku hartzen duten marrazkigileen artean daude:

- Luziano Quintana «Nik»,
- Jose Luis Goikoetxea «Goiko»,
- Cri-To,
- Jose Maria Mugerza,
- Pedro Antequera Azpiri,
- Zesar Estefania eta
- Jose M^a Asua «Pisarrin».⁵⁷

Kirolarien karikaturak egingo dituzte, batez ere. Umorezko irudiak, txisteak eta kirol gaietako istoriotxoak landuko dituenik ere izango da:

- Nuere,
- Mugerza eta
- Pasarell.

Nazionalisten prentsak baino askatasun tarte handiago bat izan zuen, zalantzarik gabe, *El Liberal* bilbotar egunkariak; 1923tik hasita eta Indalezio Prietoren bitartez, ideologia sozialista eta errepublikazale liberalen arteko elkargune –1916az geroztik eutsitako norabidearen ikuspe-

gia definitzailea—bihurtuko da. Inoiz edo behin, **Jose Arruek** kalterik gabeko txantxa politikoren bat erabiliko du *El Liberalen*, baina 1924ean eta zergatik ez dakigula, esku hartzeari utzi egingo dio.

El Liberal «Bilbon XX. mendaren lehen herenean zehar gehien irakurriko zen egunkari hau»⁵⁸ 1925tik 1936ra alor ia guztiz agorra izango da umore grafikoarentzat.⁵⁹

Jose Arruek Bilboko *Vida Vasca* urtekarian txisteak eta istoriotxoak argitaratzen ditu 1924 eta 1932 bitartean, Toribio Eskasena eta F. Usabiaga bezalako marrazkigileak ere jardungo dute bertan.

Aparteko kontua izan zen *La Voz de Guipúzcoa-rena*. Joera moderatuko egunkari errepublikazale hau izan zen, hamarkadan zehar, euskal egunkarietan umore grafikoari arretaz begiratu dion bakarra, era sendo eta iraunkor batez. Txiste eta karikaturen argitalpen-maiztasuna egunkari honetan, Donostiako *El Pueblo Vasco*k eduki zuenaren aldean, askoz handiagoa izan zen.

Eusebio Martín Ygartiburu eta **Pedro Antequera Azpirik** txandaka esku hartuz ibiliko dira *La Voz de Guipúzcoa*n 1923.aren hasieran, eutsitako iseka politiko bat sarritan loratzen zaien txistekin. Umoregile baino marrazkilari hobea den Eusebio Martínek kolpea baino apur bat lehenago esku hartzeari utziko dio, Antequera Azpiri berriz, zentsurarekin arazoak ekar diezazkiokeen gai ziztagarriak alde batera utziz, aldizka kalitate estetiko fineko lanak bidaltzen jarraituko du, 1927ra arte.

Baina, urte hauetan lanik oparoen eta zabalduena **Eduardo Lagarde** burutuko du. 1924ean hasi eta bere maiztasunezko esku hartzearekin, *La Voz de Guipúzcoa*-ko orrialdeetan garai hartako ezaugarri diren gizarte eta kultur alderdi batzuen testigantza utzi zuen, —bakanetan politikoa—. ⁶⁰

HAZIZ DOAN BALIOA

Hogeigarren hamarkadan zehar umoregile grafikoaren lanarekiko begirune artistikoa nabaritzeko moduan hazi zen.

Donostiako *El Pueblo Vasco*-k 1921an «umorezko artearekiko haziz zihoan jakin-nahiari eta publikoaren begirune gero-eta handiagoari erantzun nahiez» epaimahairen erabakia jakiterik lortu ez dudana Ilustraturiko Karikatura eta Txiste Lehiaketa bat antolatu zuen.⁶¹

UMOREZKO ASTEA

Adierazpen artistikorako baliabide bezala, ikus-txiste eta karikaturaren balioa agertzerakoan, sakonetik eragingo zuen garrantzizko gertakaria *Donostiako Nazioarteko Umorearen Aste Nagusia* izango zen, zalantzarik gabe; Gipuzkoako Ateneoak —eragile nagusi bezala, Pedro Antequera Azpiri zuela— 1926an Udalarekin lankidetzan antolatu zuena.

Umore grafikoa erakustez gainera, hitzaldiak (Manuel Abril, K-Hito, Bon), humorezko kontzertuak eta antzerki, dantza eta ikuskizun saioak antolatu ziren. Erakusketan aurkeztu ziren marrazkigile frantsesak nahiz espainiarrak 76 izan ziren, hauetako asko entzute handikoak.

Frantsesen artean zeuden Forain, Poulbot, Chaperon, Chancel, Herman Paul, Radignet eta Leroy.

Espainiarren artean eta eskualdeka aurkezturik, antza denez, Bagaría, Bon, K-Hito, Emilio Ferrer, Frantzisko López Rubio, Martínez de León, Apa eta Antonio Barbero euskaldun hauekin batera, Jose Arrue, Pedro Antequera Aztiri, Ismael Cuesta, Antonio Gezala, Joan Izagirre, San Román, Cri-To eta Txiki.

Eskulturak ere izan zuen tokirik: Jose Díaz Bueno, Emiliano Barral, Migel Oslé eta Luziano Oslé.⁶²

Umorearen Aste Nagusiak, antza denez, izan zuen aparteko oihartzuna inauguraziora Maria Kristina Erregina etorri izanak eman zion.

Bi aurrekari. Donostiako umorezko ospakizunak 1925ean bi aurrekari apalago izan zituen. Irunen, bere Udalak antolaturik, urte horretako uztailean *Pintura, Karikatura eta Argazkigintza*

Erakusketa bat ospatuko zen. Karikaturen sailera Salvador Bartolozzi, Amua, Aristo Téllez, Cri-To, Txiki, Cabanas Erauskin (?), Runi, Muro, Albarez eta abar aurkeztu ziren.

Jose Salís, Pedro Murlane Mitxelena eta Iñigo Andiaz (Jose Díaz Alberdi kritikariaren izen-goitia) osaturiko epaimahaiak lehenengo saria Salvador Bartolozzi-ri, «Gaztelako bi panpina» aurkeztu zituenari eman zion, bigarrena berriz, Txiki eta Cri-To-ren artean banatu zuten.⁶³

Hondarribiko Udalak bi hilabete beranduago, 1925ko irailean, Fiestas Eúskaras zeritzaten haien barruan *Arte Ederretako Erakusketa* bat antolatu zuen, Arkitektura, Pintura, Eskultura, Argazkigintza, Literatura eta Musika sailetara deialdia luzatuz. Lehiaketako deialdian erretratuez gainera «herrian bertako kontu eta gaietan inspiraturiko» marrazkiak aurkezitezela gomendatzen zitzairen.⁶⁴ Karikaturaren Aretoan azaldu zirenak: Cri-To, Jose Arrue, Agustin Lazard, Cabanas Erauskin, Sáenz «Runi», Ignazio Zabalo «Nor-Nai», Faustino de la Rosa eta Paulino Rubio.⁶⁵

Gainerako adierazpen artistikoekin alderatuta, karikaturak zuen balore estetiko mailaren seinale esanguratsua, lehiaketa hauetan dirutan ematen ziren sarien zenbatekoa izan ohi da. Irunen, pintura saria 500 pezetakoa zen, karikaturarena berriz, 325ekoa.⁶⁶ Lehenbiziko sariak honela finkatu ziren Hondarribian: Karikatura 250 pezeta, Pintura 500 pezeta, Musika 500, Literatura 300, Eskultura 300, Arkitektura 250 eta Argazkigintza 200.⁶⁷ Artearen gorengo adierazgarriak bezala distirutzen zuten pinturak eta musikak, baina, inola ere gaitzestekoa ez zen tokia zeukan karikaturak.

Bakarkako erakusketak. Umore grafikoa aurrera zihoala, bakarkako erakusketen zenbatekoak gora egitea ere bazen seinale.

Antequera Azpirik, berriek diotenez, arrakasta handia lortu zuen bere erakusketarekin 1927ko abuztuan, Lagardek Donostian zuen areto-estudioan.

Umorezko marrazkigintza pinturarekin txandatzuz Donostian egin zituzten euren erakusketak:

- Eusebio Martinek (1924ko abuztuan; 1929ko otsailean; 1930ko martxoan),
- Lagardek (1928ko irailean) eta
- Emilio Ferrer-ek (1929ko otsailean).

Bilbon, berriz:

- Mon (1929ko abuztuan) eta
- Nik (1929ko otsailean).

Kritika. Euskal Herriko arte kritikariak prentsan hauen eta beste umoregileen lanari buruzko iruzkinik egin gabe ez ziren gelditu, baina umore grafikoaz hitzaldi eta idatzi teoriko askorik ez zen azaldu.

Arte kritikari eta *Diario de Navarra*-ko erredakzio-burua zen Jose Iribarnek, 1926an Gipuzkoako Ateneoan, «umorezko marrazkigileak» hitzaldia eman zuen. Orduko hartan, Iribarnek, espainiarren umoreak kritikaren jarduera librea onartuko zuen gizarte demokratiko baten beharraz hitz egin zuen. Karikaturaren aurrerabide formalaz ere jardun zuten hitzaldian: «Adierazpideak sinpletzera jotzen dute karikaturagile handiak; lortu nahi duten sentipena, ahal duten marrarik gutxienaz ematera, alegia. Hauxe da benetako karikatura»⁶⁸

Erramun Berraondo «Angiozarko Martin» arte kritikariak 1930ean, *Euskalerraren Alde* aldizkarian artikulu labur bat argitaratu zuen umore grafikoari buruzkoa. Garrantzia eskaseko zenbait bidenabarren artean, txiste grafikoaren balioaz iruzkin egoki bat azaldu zuen, testu honen hasieran aipatua dugun agiri historikoa.

■ II ERREPUBLIKA (1931-1936)

● TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Primo de Riveraren erorketak trantsizio aldi bat ireki zuen 1930ko urtarrilean, II Errepublikaren aldarrikapenarekin 1931ko apirilaren 14ean amaituko dena. Aldaketa demokratiko honek ilusio itzela sortarazi zuen Espainia osoan, baina erregimen berriak antolaketa eta egituraketa mailan, aurre egin behar izan zion tamaina hartako arazo konplexuak handiago izan ziren konpontzeko gaitasuna baino.

Erljio kontuak eta prozesu estatutarioa izan ziren II Errepublika bitartean euskal bizitza politikoan gairik garrantzizkoenak.

Eliza eta botere politiko berriaren arteko gatazka errepublika aldarrikatu eta hilabetera leher-tu zen (komentuak erre, Mateo Mujika gotzain integrista bota ea.), Euskal Herria izango zelarik ukituena, non borroka politikoa une batzuetan lehia amorratu bat bezala agertuko baitzen, katolikoaren dogmatismoa eta doktrinatzeko antiklerikalaren artekoa.

Estatuaren antolaketan berrikuntza serio bat aldarrikatzen zuten indar politikoentzat, Errepublikak itxaropena adierazten zuen. Erregimen aldaketatik egun gutxitara Eusko Alderdi Jeltzaleak autonomia baten aldeko kanpaina ongi antolatu bat kaleratuko du, Lizarrako Estatu-tuan eta hauteskuntetarako koalizio bat osatuz amaituko duena. Errepublika laikoa borroka-tzeko indarrak biltzeko helburua hartuta, karlistak eta katoliko independenteak EAJ-rekin eta estatutuaren errebindikazioarekin elkartu ziren, Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan (1931ko ekainak 28) garaituko duen kandidatura aurkeztuz. Lizarrako Estatuaren izaera konfesionalak errepublikazale, sozialista eta Eusko Abertzale Ekintzaren (ezker biguneko alderdi akonfesionala da, 1930ean EAJ-ren zatiketa bezala 1930ean sortu eta espainiar Errepublika federalaren barruko autonomia lortu nahi zuena) mesfidantza esnatu zuen. Euskal Herria kokamen kontserbatzaile, tradizional eta teokratiko («Gibraltar vatikanoarra» Indalezio Prietoren hitzetan) batetan geldituko zenaren beldurrez, errepublikazaleak eta sozialistak Gorteetan onar-tuak izatearen aurka irten ziren euren parlamentuko gehiengoa ezarriz.

1931aren azken aldera prozesu autonomiko berri bat abiatuko da. Gobernuak Estatutua lantzeko prozedura desberdin bat finkatuko du, Foru Adundietako Gestoreak izan beharko zutela erabakiz Estatutu berri bat aurkezteko eginkizuna zutenak. Autonomia ekimena (Gestoreak Gobernuak izendatuak izaten ziren) errepublikazale-sozialisten elkartasunaren eskuetan jar-tzea suposatzen bazuen ere, lortu zuen azkenean EAJ-ren babes, hau, eskuin tradizionalistare-kin etetera eramane bazuen ere. Errepublika aldian, EAJ-ak alderdi bezala, barruko demokratiza-tze prozesu bati helduko dio, zeinak Aranaren postulatu ideologikoak aztertzeraz ez eramane ere, erdigune politikora eramango duen, gerora alderdi demokrata-kristauak izango diren haien ondora.

Tramitazio geldi baten ondoren, Gestoreen Estatutua 1933ko azaroaren 5ean izan zen hauta-tua, EAJ eta EAE-ren babes beroa zuela. Estatutuaren aldeko gertatu zen botazioaren gehiengoa Bizkaian eta Gipuzkoan, Arabak aldiz autonomia zaletasun txikiagoa azalduko zuen. Kanpoan gelditu zen Nafarroa nazionalista eta karlisten arteko ituna hautsi ondoren.

Estatutuaren hautaketa egin eta egun gutxira hauteskunde orokorrak ospatu ziren (1933ko azaroaren 19) zentristez eta eskuinekoez menderaturiko Gorteak sortuz, autonomiarekiko so-zialistak eta errepublikazaleen ordezkariak baino sentiberatasun gutxiago zuten indar politikoak zirelarik. Faktore ekonomiko desberdinak –mundu-krisia, besteak beste– ezkerrekoen lekual-daketa eragin zuten. EAJ-ak, halaz ere, bere hauteskunde historiako garaipenik handiena lortu zuen, lehenengo indar politiko eta soziala gertatu zelarik, indar hegemonikoa izatera iritsi ez bazen ere.

1934ko udan EAJ ezkerrearekin elkartuko da (sozialistak, errepublikarrak eta Eusko Aber-tzale Ekintza) hitzarmen ekonomikoa babesteko, elkarrekin ekimenean hasiko dira, eskuin ka-tolikoaren erasoaren erdigune bihurtuko delarik. Atzean geratua zen 1933ko nazionalisten eta errepublikar-sozialisten arteko borroka bortitza. 1934ko Urriko iraultza ez zuen EAJ-ak ofizial-ki lagundu, baina alderdiko gune batzuetan babes aurkitu zuen, Euskal Langileen Solidaritate-ko –kristau inspirazioko sindikatua, EAJ-ren gertuko, 1931tik aurrera garapen azkarra izan zuena– zentralarena batez ere, UGT-koek deituriko grebak eginez.

Frente Popularreko hauteskundeetan (1936ko otsailaren 16an) EAJ galtzaile nagusia izan zen. Errepublikaren bigarren biurtekoan ezkertera hurbiltzeak bere bezerotik kontserbatzaileen botoak kendu zizkion. Ezkerraldeko indarrak elkartuta, posizioak hobetu egin zituzten. Sozialistak, ezkerreko errepublikarrak, AEA-tarrak (Eusko Abertzale Ekintza) eta komunistak Fronte Popularraren egitasmoa adimenez hedatu zuten Estatutuaren promesarekin eta euskal nekazariari hainbeste erasaten zion maiztergoa kentzea indargabetuz. Eskuinak edo Bloke Kontrairaul-tzaileak ez zuen gora-behera handirik izan.

Fronte Popularraren garaipen ostean, ezkerrek, Indalezio Prietoren gidaritzapean, Autonomia Estatutua bultzatuko du. Bitartean, eskuina azpijokoan saiatuko da, Espainian benetan bizituriko parlamentarismo demokratikoaren lehenbiziko esperientzia kendu nahian.

● PRENTSA ETA ZENTSURA

Prensa askatasunaren alorrean, era murriztaile batean jokatu zuten elkarren segidan etorri ziren gobernu errepublikarrek. Eragozpen legalak zirela eta, Errepublikako Konstituzioaren (1931ko abenduaren 9) 24. artikulua aplikapena galarazi zioten: «Edozein pertsonak bere ideiak eta iritzia askatasunez adierazteko eskubidea du, edonolako hedabidez baliatuz. Liburu eta egunkarien argitalpenik inola ere ezin bilduko da, epaile eskudunak agindu ezean. Inolako egunkariaren itxierarik ezin agindu daiteke, epai finko batez ez bada».

Konstituzioaren onarpenaren aurretik, Errepublikaren Defentsarako Legea (1931ko urriaren 24an) aldarrikatu zen, prentsa-delitu espezifikokoak sorrarazi ziezaioketen «Errepublikari eginiko erasoak» tipifikatuz. Botere osoko lege honen ezarpena Barne-Arazoetako ministroaren hautamenean geratzen zen eta Konstituzioak onartzen zuen prentsa eta inprentako askatasun zabalari muga jartzen zion.

Pedro Gómez Aparicio kazetari eta historialariak dioenez, Errepublikak iraun zuen bost urteetatik hiru laurdenak baino gehiagotan, aurretiko zentsuraren mende egon ziren, egunkari askoren itxiera eman zelarik, auzitegiaren epai finkorik gabe, gainera.⁶⁹

Esku zapaltzaile hauek ulertu ahal izateko, Espainia errepublikar hartan, gordintze politikoa eta tentsio ekonomiko eta sozialaren areagotzea kontutan hartzea ezinbestekoa da, ibiliak baitziren asaldatze-giroaren eta gerra zibilaren ertzetik –1936a baino lehenagotik– behin baino gehiagotan.

Errepublika ezarri eta laster, 1931ean, Gobernuaren neurri antiklerikalek 15 egunkari katolikoren itxiera eragin zuten Euskal Herrian: *La Gaceta del Norte*, *Euzkadi*, *La Constancia*, *El Día*, *Excelsior* ea.⁷⁰

Bahiketak eta zigorrak bat bestearen atzetik etorri ohi ziren 1932 eta 1933an zehar, maila desberdinetan eraginez euskal egunkari hauei: *La Constancia*, *Euzkadi*, *Jagi-Jagi*, *El Día*, *Acción Vasca*, *La Gaceta del Norte*, Bilboko *El Pueblo Vasco* eta *La Cruz*.

Biurteko erradikal-cedatar hartan zehar prentsan kontrol zorrotza ezartzen jarraitu zuten eta itxiera ugari gertatu ziren. Migel de Unamunok 1935ean zentsura probintzia hauetan eta bestee-tan desberdinki ezartzen zela-eta kexatu egin zen; Bilbon ezartzen zenaz kexatu zen bereziki.⁷¹

Fronte Popularraren garaipenarekin egunkari batzuk erasoak jasan eta erreak izan ziren. Prentsa-aren zentsura zorrotzak iraun egiten du.

● UMORE GRAFIKOA

Botere errepublikarrak neurriak finkatu bazituen ere adierazpideetan, kritikarako tartea Diktadura garaikoaren aldean askozaz ere handiagoa izan zen. Prentsa satirikoa bera ere berriro azaldu zitekeen Errepublikarekin. Umore politiko sarkor haren erakusgai bikainak izan ziren: *El Be Negro*, egunkari katalanista eta liberala, eta Madrilen argitaraturiko *Gracia y Justicia*, eskuindar amorratua.

Errepublikarren urteak, hogeita hamarreko hamarkadan, masa-kulturak mundu mailan biziko duen garapen eta zabalkundearekin bat etorritik, garrantzizko uneak izango dira Espainian prentsa irudiztatzeko. Euskal Herriari dagokionez, eduki politikoa duen txiste grafikoak nabaritzeko gorakada lortuko du eguneroko prentsan. Baztertu ezin zitekeen arma zen huraxe mutu-

rreko politizazio-aldi haietan. Sainz Valdiviesok honela laburbildu zuen kazetaritzako giro hura: «Euskaldunen labean, asaldaturik, beren prentsaren zorigaitza egosten da, bere burua defendatzeko eta erasotzeko guztiz armaturik, azken batean, bereak ez bezalako iritziak desegiteko».⁷²

Grafismo satirikoa EAJ-ri loturiko prentsak erabili zuen sarrienetan. Errepublika garaian, propaganda aparatu bikain batez hornitzen asmatu zuen masa-erakunde sendo bat bihurtu zen EAJ: bost egunkari, hamarren bat astekari politiko eta hainbat aldizkari eta argitaletxe. Txiste grafikoaren baliabideez, mezu politiko eskematiko eta garbien eramaile bezala, *Jagi-Jagi* astekaria eta *Euzkadi* eta *El Día* egunkariak, bederen, ohartu ziren.

Donostiako *El Día* arratsaldeko egunkariak Jose Aristimuño «Aitzol» animatzaile nagusi izan zuenak, 1930eko ekainean agertu eta hilabete gutxi batzuetara, **Joan Zabalo** «Txikiren» txiste eta karikaturen laguntza ordainezina izan zuen. Donostiako *El Pueblo Vasco*-n hogeiko hamarkadan isuri zuen kaltegabeko umoreaz ahaztuta, ideia nazionalista, katoliko eta kontserbatoristaileen bozeramaile grafiko irmo bihurtu zen Txiki, *El Día*-k 1936an desagertu zenera arte berekin izan zuen.⁷³

Euzkadi, EAJ-ren organo ofizial eta egunkari nazionalista nagusia (bere tiradak *El Liberal* eta *La Gaceta*-ren parekoak ziren) sabindar ortodoxia estrategia posibilista batez biguntzen asmatu zuen egunkaria zen. **Kili-Kili** –argitzerik lortu ez dudana izengoitia–, bere zerbitzura jarri zen berriro. Txikiren antzera, Kili-Kilik asmatu zuen bere txisteen bidez, EAJ-ak beste erakunde politikoekin iritzieta zituen desadostasunak adierazten, Estatuaren antolaketa, ekonomia, heziketa, Eliza edo ordena publikoari buruzko gaietan.

Kili-Kilik, 1934aren erdialdetik aurrera, Euzkadi-n bere umore-esparrua Jose Maria Saralegi «**Sagi**-rekin» banatu behar izan zuen; maila apalagoko marrazkigilea zen eta egunkariak⁷⁴ berak aurretiaz eginiko «Karikaturen Lehiaketa» deialdian irabazle irteteaz gainera, *Jagi-Jagi* astekari bilbotarrean txiste batzuk argitaratuak zituen.⁷⁵

EAJ-ko joera erradikal eta independentistak, hogeiko hamarkadako abertzaletasunaren oinordekoak, *Jagi-Jagi* izan zuen adierazpen organoa bezala. Jazarpen-nazionalistaren mistika eginenez, tonu desafiataile eta zitalari eutsi egin zion, horrela gobernuko agintariekin arazo ugari sortu zitzaizkiolarik. Komunikabideetatik bost aldiz erretiratu eta hirutan salatua izan zen 1933tik 1935 bitartean. Larunbatetako irteera ikuskizun komikoaren ezaugarri janzten zen. Sainz Valdiviesok dioenez, «astero iristen zen polizia Gran Via-ko 46ko inguruetara zabalkundea eragoztera. Polizien zainketa engainatzeko, Jagiko gizonak amarrurik itxuragabekoen eta bixienak egiten zituzten: batzutan egunkariak arrantzale-emazteen otarretan sartzen zituzten; beste batzutan ehunka globori lotura leihotik botatzen zituzten».⁷⁶

Txista grafikoak eta irudizatzeak 33an garrantzia berexia izan zuen *Jagi-Jagin*. Behin baino gehiagotan txiste- eta istorio-aldizkari bihurtuko zen oso-osorik. **Kili-Kili**, **Sagi** eta **Gatzelu** ziren astekari sonatuko punta-puntako marrazkilariak. Beren marrazkietan garraztasunez islatu rik geratzen da 1933an euskal nazionalisten eta errepublikar-sozialisten artean gertatu zen borroka gogorra.

Kili-Kilik, 1933ean, aldi berean *Jagi-Jagirentzat* (Gurpil izengoitiz) eta *Euzkadi-rentzat* lan egitea ez da desegoki gertatzen, harik eta, 1934ko maiatzean *Jagi-Jagi* nazionalismoak EAJ-ren diziplinarekin hautsiko duen arte. Eusko Alderdi Jeltzalearen esparru barruan sartu beharrekoak dira *Gastetxu*, *Txiki* eta *Poxpolin* haur argitalpenak.

Gastetxu orri solte bat zen, alde batetik hiru tintaz inprimatua, eta zuri-beltzez bestea. Aztertu ditugun hiru orrien arabera, bizkaieraz idatzitako istorio, txiste eta denbora-pasak egiten zituen. Bilboko Ordorika litografian inprimatuta, 1932tik 1934ra Bilbon argitaratzen zen eajotar *Euzko* astekariaren atal erradikalaren eranskin bezala banatzen zen.⁷⁷ *Gastetxu*-rentzat lan egin zuten marrazkilarien artean nabarmenduko dira «J.M.A.» (Arano?), eduki politiko gogorra duen istorio baten egilea, eta **Antonio Santafé Lartxaga** (Bilbo, 1911-1985), urte batzuk beranduago, batez ere margolari bezala, ezagutuko dena.

1933ko uztailean *Euzkadi* egunkariak, *Txiki* astekariaren berehalako agerpenaren berria ematen zuen; Bizkaiko Euzko *Gastetxu* Batzaren haur taldearen organoa zen, urte horretan bertan Bilbon EAJ-ak fundaturikoa. *Txiki* ez zen kioskoetara inoiz iritsiko, argitaratu zen zenbaki bakarra Bizkaiko gobernari zibilaren aginduz erretiratu gertatu baitzen. Fiskaltzak astekariaren zenbait eduki salatu ondoren, Sabin Etxeko sotoan pilaturiko edizio osoa –10.000 ale– konfiskatu zuen gobernuaren polizia eta ondorenean Eraikin horretan bertan kokaturik zeuden EAJ-ren erakundeak ixten hasi ziren: Bizkaiko Buru Batzarra, Euskal Idazkaritza Orokorra, Batzokia eta

Euskal Eskolen Federazioa, Eusko-Ikastola-Batza.⁷⁸ Argitalpen honen ezaugarririk ez dugu ezagutzen, ez baitugu alerik aurkitu, ez eta horri buruzko berririk ere, baina litekeena da txiste grafikoak edo istorioak edukitzea.

Poxpolin, istorio, txiste eta denbora-pasen haur aldizkaria, oso-osorik euskaraz idatzitakoa, 1935ean hasi zen argitaratzen, **Isaak Lopéz Mendizabalek** Tolosan zuen argitaletxe-inprentan (gerora administrazioa Donostiara lekualdatuko zen). Idazle sonatu eta EAJko burkide zen López Mendizabalek aurretik lortua zuen (doan bere seme Xabierrek zioenez) Bartzelonako TBO aldizkariaren argitaletzeko baimena *Urda, Serra Massana, Cuvillier, Forton, Opisso*, abarren zenbait istoriotxo erabiltzeko. *Poxpolinen* bertako produkzioan batez ere, **Joan Zabalo**, «Txiki» nabarmenduko zen. Bereak izan ziren –bataz beste– bere zortzi orrialdetatik bi.

TBO, Espainiako haur aldizkariaren barruan izan zuen garai hartako arrakasta komertzial itzel hark (hogeita hamarreko hamarkadan izenburua bera, haur argitalpenak izendatzeko, generiko izaten hasiko da) guztiz markatu zuen jarraitu beharrezko bidea. *Poxpolinek* ez zuen bere konposizio koloreanitzta eta istorioaren ikuskera kontserbatzailea mimetikoki kopiatzea baino egin, testu lagungarriak bineten oinetan luze jartzearen aldeko, eta testua eta irudia elkartzeko bokadiloak erabiltzearen aurkakoa zen. Bide espresibo hauen barruan, Txiki, aldizkariari bertako kontuen distira emateaz arduratuko da, sarritan didaktikoak eta nabarmenki moralismoan oinarriturikoak ziren txiste eta irudizatze batzuekin batera, istorio komikoak edo elezaharretakoak, ipuin herrikoiak edo pertsonaia historikoen bibliografiak argitaratuz.

Txikiren marrazkiak direla-eta *Poxpolinek* kutsu euskaldun eta konfesionala hartuko du, EAJ-ren ideologiaren ondora hurbilduko duena. Zentzu honetan, esanguratsua gertatzen da aldizkariaren izena bera: alderdiak sortutako dantza eta kantu taldeek «Poxpolin» izena hartzen zuten. Kontu ezaguna da, gainera, euskal nazionalismoaren barruan garrantzizko irudia zuen Jose Aristimuño «Aitzol» apaizak jardun zuela gidoiak egiten.⁷⁹ EAJ-rekin zuen lotura zuzen-zuzenekoa izatera iritsiko da, 1936a baino lehen Gipuzkoa Buru Batzarra bera egingo baita aldizkariaren kargu.⁸⁰ *Poxpolinek*, halaz ere, zuzeneko eragin politiko oro saihestu nahi izan zuen. Aldizkaria sortu izan zeneko planteamendua ongi uztartzen dela dirudi, Aitzolek euskararen eta euskal kulturaren defentsa eta propaganda lanari zentzu apolitiko, euskaltzale eta ez nazionalista zorrotz kutsua emateko sortu zuen Euskaltzaleak kultur elkartearen espirituarekin. Haurrak euskaraz heztearen garrantzia izan zen elkarte honek –hogeita hamarreko hamarkadan oso dinamikoa izan zen– bereziki azpimarratu zuen puntuetako bat.⁸¹ Isaak López Mendizabal bera, euskararen didaktikaz benetan kezkatu zen gizona dugu, haurren euskalduntzeari buruzko hedapen handia lortu zuten liburu batzuk argitaratuko zituen.

Poxpolinek euskararen defentsan egin zuen merezimenduzko ekarpen apala zakarki etena gertatu zen gerra zibilarengatik. Hilero kaleratu zirenak, antza denez, 13 zenbakira iritsi omen ziren. Eguneroko prentsara itzuliz, *Tierra Vasca* topatuko dugu, Eusko Abertzale Ekintzaren organoa zena. Donostiako *El Pueblo Vasco*-ren egunkarian 1933ko urtarrilean botatzen hasi zen aldizkari honen bitartez, Autonomia Estatutuaren aldeko kanpaina egin ahal izan zuen EAE-ren nazionalismoak, eta bere ideologia akonfesionala, liberala eta errepublikazalea zabaldu. *Tierra Vasca*-ko marrazkilaria politikoa, urte batzuk lehenagotik *Acción Vasca*-ko kolaboratzaile –EAE-ren egunkari galkorra– **Jose Arrue** izan zen, baita Madrileko *El Sol* eta *Crisol* egunkari errepublikarretakoa ere.

Tierra Vasca-n Jose Arrueren esku hartzea 1933ko maiatzera baizik ez zen iritsiko. Bi hipotesia erabili daitezke halako *baja* goiztiarra adierazteko. Zailtasun ekonomikoez beti estu ibili ohi zen egunkari honek arau orokor bat zuen, alderdikoak ziren esku hartzaile haiei ez ordaintzekoa, eta Jose Arrue halaxe izaki.⁸² Bigarren aukera berriz, desadostasun politikoa izango litzateke: EAEko gidariak EAJn –Arruek oso begiko ez zuen alderdia, nonbait– txertatu zirenean utziko du Arruek, hain zuzen ere, bere esku hartzea, Gobernuaren politika antinazionalistari aurre egiteko.

Primo de Riveraren Diktadura garaian *La Voz de Guipuzcóa*-k umore grafikoaz erakutsi zuen ardura, Errepublikako lehen urteetan zehar luzatuko zen.

Eduardo Lagardek, 1930aren amaiera aldera, bere tokia **Miguel Anjel Agirretxeri** (Donostia, 1895-1958) utziko dio, eta honek bere txiste eta karikaturen bidez egunkari donostiarraren orrialdak jantziko ditu 1933ra bitartean. Agirretxe ez zen marrazkigile oso bikaina izan. Bere lorpenik hoberenak politika eta kultura munduko pertsonaien karikaturetan iritsi zituen. Honen txisteetan –Bagariaren eraginez markaturikoak–, erregimen berriaren etorrerarekin, sortu ziren arazo jakin batzuen aurrean, euskal errepublikazaleen ikuspegia islaturik geldituko zen.

La Voz de Guipuzcúa-n hain sarritan esku hartzen ez zutenak izan ziren:

- Frantzisko Argüelles –bere txiste batzuetan izugarri mingarria–,
- Felix del Pozo,
- Murillo,
- Martínez Utrilla,
- Cerezo Vallejo,
- Txaka,
- Shanti Dueñas eta
- Felix Llanos.

Donostiako *El Pueblo Vasco*-k ez du garai horretan interes handirik eskaintzen. Eduardo Lagardek 1931 eta 1932 artean jai-giroko marrazki sail polit bat argitaratu du. Gainerakoan, Felix Llanos-ek eta Segués-ek noizean behin egingo dituzten karikaturak baino ezin aipa daiteke.

Badirudi *La Gaceta del Norte*-k 1933an aurkituko dituela umore grafikoaren ezaugarri gaitzesgarriak.⁸³ Urte honen ezaugarri izango den eskuinaren mobilizazio itzelarekin (Renovación Española-ren eta CEDA Confederación Española de Derechas Autónomas-en eraketa) bat eginik, Jose Maria Urkijoren inspirazioz eta animazioz sorturiko egunkari «katoliko independente» bilbotarra **Gerardo Fernández de la Reguera** «Frag-en» txisteak argitaratzen hasiko da, auto-izendapenez «umorismo nazionalaren muturreko organoa» *Gracia y Justicia* astekari madrildarreko marrazkilaririk entzutetsuena delarik berau. Frag-en aurkituko du *La Gaceta del Norte*-k bere antiliberalismoaren adierazlerik borrokagileena.⁸⁴

Joan Olazabalen gidaritzapean Donostian argitaraturiko *La Constancia* egunkari integrista ez zen oso noizean behin baino ausartuko bere orrialdeetako konposaketa monotonoa txiste grafikoen bidez hausten. **Miguel Legarra** eta «**Asun**» bertako marrazkigileak –baliabide adierazkor mugatuak zituzten zaletuak– izan ziren noizean behin Errepublika eta euskal nazionalistak xaxatzeko ardura euren gain hartu zutenak.

Donostiako *La Cruz* astekari katolikoak txiste ugari argitaratu zuen 1931 eta 1936 bitartean, nahiz eta bere marrazkigileak garbizaletasunagatik eta inboluzio politikoagatik gehiago nabarmendu, euren dohain artistikoengatik baino. Hauek ziren, besteak beste: «**Artzak**» –emankorrena–, **Amiano Mitxelena**, «**Onaz**», «**Ziri**», **Santos** eta **Miguel Legarra** «**Miguel**». Azkeneko honek 1935 eta 1936 bitartean *El Diario Vasco*-rako ere jardungo du, orduko hartan Renovación Española monarkikoari loturiko egunkari donostiarrean.⁸⁵

Bilboko *¡Adelante!* (1931-32) izeneko beste astekari katolikoak ere txiste politikoak argitaratu ditu. **Jose Luis Goikoetxea** «**Goiko**» gailenduko da, batzuetan «Gogor» eta «Utz» izen goitiak ere erabiliko dituena. Honen lan satirikoetan adierazpide egoki asmatuak emango dira.

Prentsatik at, umore grafikoarekin zerikusirik bazuen gertakizunik ere eman zen, aipatzea bederen merezi duenik.

LEHIAKETA ETA UMOREGILEEN ARETOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean, Donostian 1931ean, ospaturiko *Artista Berrien Lehiaketarako* deialdia «karikatura» egileetara hedatu zen. Ezohiko marrazkigile Felix Llanosek 250 pezetako saria jasoko zuen. Pintura saileko sari nagusia 4.000 pezetakoa zen.⁸⁶

1926ko Nazioarteko Umore Aste Nagusiak adinako oihartzunik lortzera iritsi ez bazen ere, 1932an Donostian Umorigile eta Irudigileen Aretoko ospakizuna nabarmentzeko gertakaria da. Pedro Antequera Azpiri eta Eduardo Lagardek antolatutako erakusketa hau Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea (CAT) aretoan (Viktoria Eugenia Antzokian) ospatu zen eta bisitaririk goraiatuena bezala Errepublikako lehendakaria zen On Anizeto Alcalá Zamorak bisitatu zuen, zeinaren segizioan aurkituko zen Queipo de Llano generala.

Lagarde, Antequera Azpiri, Martínez Utrilla, Lekuona eta Díaz Bueno –harriz eginiko taila bat ekarri zuen honek eta brontzezko zenbait «panpinatxo»– euskaldunen artean zeuden, besteak beste, Bente, Garrido, Boch, Bartoli, Apa, K-Hito, Cornet, Junceda, Karikato, Apeles Mestres, Prat, Galindo eta Opiiso. Egunkarietako berriak kontutan hartuz, katalanen presentzia izan zen nabarmenena.⁸⁷

BAKARKAKO ERAKUSKETAK

Errepublikara garaiaren erantzun gisa umoregile grafikoaren bakarkako erakusketak. Aurreko urteetan bezala, pintura karikatura soilarekin elkartzeari sarrirak egiten zituzten. Hauexek izan ziren Donostian ospatutako erakusketa batzuk:

- Eusebio Martínek (1932ko martxoan),
- Eduardo Lagardek (1932ko abuztuan),
- David Álvarez-ek (1932ko abuztuan),
- Pedro Antequera Azpirik (1932ko abuztuan),
- Migel Anjel Agirretxek (1932ko irailean),
- Txikik (1933ko urtarrilean).

Bilbon K-Toño Frade-k 1933ko urtarrilean egin zuen erakusketa.

Tolosan karikaturak agertu zituzten Felix Llanos eta David Alvarezen elkarrekin 1931ko abuztuan.

KALEKO KARIKATURAGINTZA

Bere «kamioi-estudioa» hartuta iritsi zen Bon Bilbora eta Donostiara 1930eko udan, diru-kopuru txiki bat askatzeko prest legokeen edonori karikaturak eginez. Antzeko gauza bat egin zuten 1936ko ekainean Donostiako GU ertilari elkartearen zenbait kidek (Txiki, Jesus Olasagasti, Frantzisko Garrido, Karlos Ribera, eta Asentsio Martiarena), Donostiako Amarako ferietan karikaturak eta erretratuak eginez txosna batean.⁸⁸

■ JOSE ARRUE

Jose Arrue da (Abando 1885 – Laudio 1977) euskal margolaririk herrikoiena inolako zalan-tzarik gabe. Baserrigiroko ohitura gaiei umore puska bat erantsita egin zituen koadroak gero eta ezagunagoak izaten hasiko dira XX. mendeko hogeiko hamarkadaren hasieran Bilboko Lux argitaletxeak eginiko postalen bitartez. Harrez gero, Azkueren postalak –oinean testua duten benetako txiste grafikoak– kiosko eta liburu dendatan aldizkako agerpenik gabe ez dira geratuko.

Jose Arrue askotariko ertilaria izan zen, leku askotan ikasten ibilia, Bilbon (Antonio Lekuona), Bartzelonan (Círculo Artístico) eta Parisen (Grand Chaumiére) eta astoko-pinturaz gainera, horma-kartelak, horma-pinturak, beirateak, zeramikak, irudiztatzeak eta txiste grafikoak lantzeko aukera izan zuen.

El Coitao, 1908 hartako Bilbon sortu eta hil zen astekari satiriko liberalak, berekin izan zuen Jose Arrueren babes beroa.⁸⁹ Han argitaratu zituen udaletako eta eskualdeetako politikari buruzko txiste eta karikatura haiekin eman zion hasiera umorezko irudien jarduerari, Bilboko *El Pueblo Vasco* (1910) egunkari kontserbadorean kolaborazio labur eta paradoxiko baten ondoren, *Sinsorgo* eta *El Liberal* aldizkarietan jarraipena izan zuena.

Arruek 1915 eta 1924 bitartean *El Liberal*-en argitaraturiko txisteak asko ez badira ere, gai politikoak eta sozialak ukitzen dituzten, interes handikoak dira, esate baterako: bizimoduaren garestitzea, espekulazioa, sindikalismoaren errepresioa, sufragioaren eta etsipenaren erabilera antidemokratikoa eta antzekoak. Primo de Riberraren Diktadurak inolako ere, maila batean bederen, autozentsura eragin zion. «Hilketa hirukoitza eta lapurreta» (1919), «Askatasunaren festa» (1920) edo «Leialen fedea» (1923ko maiatza) ezin izango ziren aldi horretan argitaratu. Militarren pronuntziamentuaren ostean, Arruek argitaratuko dituen txisteak erregimenarentzat ez dira dunba berritsu eta kalterik gabekoak baizik izango. Hau da Udal Estatutuaren zeharkako aipamenaren kasua. Halere, zorrozkiago azalduko zen, Diktaduraren hastapenetan lortu beharreko autonomia mailari begira, euskal alderdi politikoen batasunik ezaren aurrean: «Euskal Estatutua ala batasunetik dator indarra».

Arruek prentsari eginiko ekarpenari buruzko haria atzera hartuz, 1924an kokatuko gara *El Liberal* utzi eta kolaboratzaile modura Bilbon argitaratzen den *Vida Vasca* urtekarian hasiko den urtean; aldizkari honentzat egingo ditu txistek, istorioak –beti ere bineten azpian testua dutela– irudizatzeak eta lehen orrialdeak.⁹⁰

Urte honetan bertan, 1924ean, Opisso-rekin Bartzelonan Umoresten Aretoan bigarren sari bat eskuratuko du –lehenengo saria Bagaria handiarentzat izan zen– eta arrazoi honengatik Bilbon omendu egin zuten bazkari batetan, non Felix Legerikak, Pedro Murlane Mitxelenak eta Gustavo Maeztuk diskurtsoak bota zituzten, eta Joakin Zuazagoitia eta Felix Lorenzoren komunikatuak irakurri. Azkena aipatu hau, Arruek ordurako marrazki batzuk eginak zizkion Madrileko *El Sol* egunkari errepublikazale sonatuko zuzendaria zen.

Arruek 1926tik 1931era bitartean, bederen, *El Sol*-en «Maestros de la Historieta» sailean esku hartuko zuen Bagaria, Castelao, Robledano, Tono, López Rubio, Sancha Martínez de León edo Emilio Ferrer-en mailako jendearekin. Arruerentzat –salbuespenen bat kenduta– baserritarak izango dira protagonista aukeratuak, *Vida Vasca*-n bezalaxe.

Baserritarren gertakariak izeneko bere zerrenda marraztuek –ez beti umore berekoak–, zenbaitetan, kutsu antiklerikal irri-eragilea islatzen dute, gerora Madrileko *Crisol* (1931) eta *Luz* (1932-1933) egunkari errepublikazaleetan ere sarriagotan azalduko dena.

Jose Arrue Hego Ameriketara joango da bere anaia Ramirorekin eta han erbestealdiko euskaldunen hainbat txiste eta istorio argitaratzeko bidea izango du Buenos Airesko *La Razón*-en (1928-1929).

KRITIKA ZIZTATZAILEAK

Arrueri Madrileko prentsa errepublikazalean kolaboratzaile izanak ez zion Euskal Herriko hainbat abenturatan parte hartzeko eragozpenik sortu. *Crisol*-erako istorioak marrazten zituen aldi berean, 1931an, Eusko Abertzale Ekintzan Arrue militante izan zeneko ezkerreko alderdi euskaltzale txikiaren *Acción Vasca* egunkari iheskorrean txiste politiko batzuk argitaratu zituen. Txiste hauetako bat zela eta, Arrue, *Euzkadi* egunkariaren haserrearen erdigune bihurtu zen berriro. *Acción Vasca*-n egun batzuk lehenago argitaraturiko marrazkia egunkari jeltzaleak lehen planoan azaldu zuen, «irudi lotsagarria» zela aurpegiratuz. Delako txiste honetan, Azkuek, ikurrinak sortzen ez zion begirunea adierazten zuen –egun haietan ANV-ek alderdiaren ezaugarri bat baizik ez zuen ikusten horretan–, eta EAJ Errepublikarekin amaitzeko prest zegoen indar bezala aurkeztu zuen.

Acción Vasca 1932an desagertu ondoren, ANV-k hurrengo urtean *Tierra Vasca* egunkaria kaleratuko zuen. Berriro ere Arruek bere zerbitzua eskainiko dio 1933ko urtarrila eta maiatza bitartean. Bere txistekin Autonomia Estatutuaren aldeko kanpaina bultzatuko du, eta lotsagarri jarri zentralismoa, klerikalismoa, fanatismo antierrepublikarra eta gainerako beste gaitzak, monarkiarekin harremanetan jartzen zuen faxismoaren gorakada salatzea ahaztu gabe.

EAJ-ren ideologia eta praktikaren hainbat alderdi barregarri utzi gabe ere ez du etsiko: kale-raturiko lehenengoetako txiste batean («Senide arteko elkarbizitza»), *Euzkadi* egunkariak botatuko pilota itzuliko dio, beren iragarkietako horma-kartelak ezartzeko zeregina dutenen arteko abertzale senidetasunaren zentzuari irri ginez.

Gerra zibila bete-betean zela, Euzkadiko Alderdi Komunistaren *Erri* astekari ilustratuan argitaratuko ditu Arruek bere lanak, gehienetan erretagoardiako bizimoduaren eskasiari buruzko zenbait istorio.

Bilbo erori zenean, bere jarduera politikoa kartzelan ordaindu beharko zuen Arruek. Honela deskribatu zuen 1973an argitaratu zuen idatzi autobiografiko laburrean gerra ondorengo txikiziozko panorama hura: «Bi urte preso egon ondoren, errugabe izendaturik irten naiz kalera. Ez daukat soinean jantzirik dudana baino. Desagertu egin da nuen guztia, baita nire lan artistikoa ere. Berrogeita hamar urteak ondo eginak ditudan honetan, bizitzan, hutsetik hasi beharra daukat berriro».⁹¹

OHITURA-TXISTEA

Arruek satira eta ironiaren ondoan erabili zituen *El Liberal*-en ohitura-txistekak, non euskal baserri-giroa, bere margolan gehientsuenetan bezala, ikuspegi irrigarri batez ikusten zen; garai hartan nagusi ziren etnia-ezaugarri plastiko haien formula adierazkor idealizatuetatik urruti. Arrueren eskuetan euskal baserritarrak umorezko itxuraldaketa bat nozitzen du, zenbait alditan iraindua izango zena.

ALDEKOAK

Euzkadi egunkariko iruzkingile bat, «Irrintzi» izengoitiz sinatzen duena irtengo da kontzeptu hauengatik kritikak egiten dituztenen bidera: «Nik bezala aitortuko duzue zuek ere Zubiaurre edo Artetaren baserritar serios, patriarkal eta etxetiarra ederki dagoela. Bere bizitzako alderdi bat da, arruntena ezparik gabe, bere arima pentsalari eta ongileari gehien dagokiona. Baina, Jainkoarren! Ez ahalegindu gaur orkidea bezain bitxia den umorezko txinpartik ezkututzen. Baserritarrak itxura irrigarria, jostaria dauka, guk daukagun bezalakoxea, mundu guztiak bezalako. Eta Arruek hori ateratzen jakin izan dio, Prometeok eguzkiari printza lez, eta lerro horietan azaltzen du, jarrera horretan eta kontraste pozgarrian. Ospa ditzagun barrearen eta xelebrekeriaren ertilari hauek ere (...). Baserritarra ez da inola ere barregarri azaltzen; oso da irri eragilea. Eta denongana iristen den xelebrekeria denez, denok ulertzen dugu eta miresten».⁹²

MAISEATZAILEAK

Jose Maria Ojarbidek, hamar urte beranduago, egunkari nazionalista berean Txikiren karikaturei buruzko artikulu bat argitaratu zuen, bere trebezia «fin eta delikatu» «*euskal karikaturen* betidaniko efektu baldar eta zakarraren bila doazen» marrazkilari haienarekin kontrajarriz. Ojarbideren iritzi «Txiki-rentzat euskaldun bati karikatura egitea ez da, ia marrazkilari guztientzat bezala, *baserritarra* balantzaka, gerrikoa arrastan eta aterkia besapean, edontzia esku batean eta prakatan adabakiak dituela margotzea».⁹³

Arrueren maiseatzaileak 1925ean entzungo ditugu berriro, *Euzkadiren* bitartez oraingoan ere. Postaletan lanik hoberenak erreproduzitzeko helburua harturik, *Argia* astekariak antolatzen duen marrazki, pintura eta argazki lehiaketa baten oihartzuna eginez, kronikagile ezezagun baten honela idatziko du: «*Argia* astekariak ohar hau egiten du, eta egoki egin ere, ez dituela onartuko gure izaeraren erakusgarri modura, gure *baserritarra* barregarri, zangoak okertuak dituela, gerrikoa arrastan eta oreka galdu beharrean aurkezten duten karikatura marrazkiak». Eskuartean maskaldutako lardaskeria horiek desagertu egin behar dute. Hemengo hau eredu artistikoen asmoa da, euskal bizieraren alderdi atseginen edo paisaia erakargarrien eta gure herriko eszenen benetako isla izango direnak».⁹⁴

Jose Arrue zuzen-zuzenean ukitu zuen iruzkin horrek. «Hemen eta hemendik kanpo lardaskeria horien egilerik ezagunena zela» kontuan harturik, Bilboko *El Liberal*-en bitartez erantzun bat eman zuen argitara, bere lana zuzitzen ahalegindu gabe, bere burua lehiaketatik kanpo uzten zuela aldarrikatzen zuena eta bere erasotzailearen maltzurkeria mental eta literarioari trufa eginez, *Euzkadiko* solte hori «mende honetan idatzi den inuxentekeriari abilena» bezala izendatuko duena. Sarien zenbateko ekonomikoen murrizkeria irrigarriari buruz Arruek isekaz esan zuen: «Egiaz, uste dut, gauza onak hain bikain ordainduz baizik ez direla desagertuko, zuen zerbitzari leial honek ohorez egiten dituen lardaskeriak bezalakoak».⁹⁵

Hala da, euskal baserritarraren irudia barregarri azaltzen da Arrueren zenbait lanetan, lotsaizunezko adierazpenak ukituz ala hartan eroriz. Beste batzuetan, aldiz, langintza bereko lagunekin batera, baserri-giroa idealizatzeko joera berdina azaltzen du. Arrueren lana, mutur batetik besterako, kulunka horretan dabil. Joan Irigoien idazleak asmatu zuen landa esparruko adierazgarritasun artistikoen moduetan zegoen desadostasun hau, erreferentzia esparru zabalago baten barruan, kokatzen: «Interpretazioan euskal tipikotasunaren jatorrizko ikuskera, literarioan bezala grafikoan, desitxuratu egin da maila guztietako aurreiritzi hutsalen indarrez (...). Bizitua dugu – jasan dugu, hobeto esanda – “jebo”-aren gorai-pamena ala bere destainazko galera: baserriko gaiekiko lirismo itzela, ala beronen gaitzespena».⁹⁶

GORA-BEHERAK

Azpimarratu ditugun bi muturren artean ñabardura anitzak eta bitarteko estadioak eskaintzen ditu Arrueren obrak. Bere margo eta marrazkiek —«Irrintzik» edo «Juan de la Encina-k» ohartarazi ziguten bezala— noizbehinka euskal nekazari-giroko alderdi alai eta dionisiakoan sartzen ere asma-tu zuten. Hauxe da bere obraren alderdirik jorien eta pertsonalena, ezbairik gabe. Beste kasu be-reziagoetan —txiste eta istorio batzutan—, bi adierekin jokatzeko du Arruek, ageriko xalotasun baten atzean, baserritarrak graziazko xorroxtasun handi bat nola ezkuta dezakeen erakutsiz. Barregarri-tasuna ukazina dirudien zenbait kasuetan ere, ezin baztertu liteke halakoxe zehaztugabeko desmitifikatze edo kritika baikor kutsua. Baserritar mozkorren karikaturak begiratuta, oroime-nera etortzen dira Miguel Unamunok eta Jose Maria Salaberriak *El Coitao*-n idatzi zituzten artikulua, euskaldunen zurruterako zaletasun neurrigabeari eskainitakoak.⁹⁷ Kultur emanal-dietan aldizka loratzen zen baserri-kutsuaren aurka Unamunoren eta liberal joerako beste idazle batzuen mesfidantzak eraginik izango zuen, nonbait, Arruerengan. Hauxe izan baitzen *El Coi-tao*-ren lehen alean Unamunoren gomendioa: «Gogor eman buruan baserriko saroe barruan hesitu nahi gaituen guztiari».⁹⁸

Mesprezuzko baliogabetzea —Irgoiaren espresioa erabiliz— argi eta garbi azaltzen denetan, zilegi da abertzaletasun sentimenduaren zenbait ordezkariaren haserrea sutzen zuten arrazoiei buruz-ko galdetzeak egitea. Beste eskualdeetan, baserriko jendearekiko «oihesen txiste bat» baizik izan ez zitekeena, kale-kumearen harropuzkeria argiaren emaitza alegia, gizarteko sektore batzuen aldetik euskalduntasun ororekiko irain lotsagabe bat bezala bizitzen zen. Kontua, baliabide ideo-logiko garbi baten erantzuna zen: euskal kulturaren identitate-esentzia bertan guztiz bildurik zegoela uste izanik, abertzaletasunak bultzatu zuen baserriko mundua sagaratu izanak iraingarri bihurtzen zuen edonolako satirazko hurbilpena edo berarekiko karikatura ere.

OHITURAZALE ZENBAIT

Arrue ez zen izan, ez, baserritarren ohiturez eta pertsonaiez arduratu zen umore-marrazkilari bakarra. Bere gaien eta irudien imitatzailerik leiala gertatu zen Jose Luis Goikoetxea («Goiko»), aldizka bere-berea zuen nortasuna azaltzeari uko egin gabe, halaz ere.⁹⁹ Goikorekin batera, asko ziren baserri-girora sarritan hurbildu zirenak, hainbeste izan ere, non ez litzatekeen gehiegizkoa izango «baserritarren txisteez» umorezko azpigenero bezala izendatzea. Aurreko kapituluetan aipatu ditugun marrazkilarietako askok, batzuk besteak baino gehiago, behin eta berriz praktikatu zuten umore mota hau. Hortxe daude, besteak beste, espektro osoa estaltzen duten Amua, Cabanas Oteiza, Antequera Azpiri, Lagarde, Agirretxe, Legarra, Frag, Kili-Kili eta baita Txiki bera ere.¹⁰⁰

ARRUEREN UMOREA

«Baserritarren txistea» bezala izendatu dugun hartan, umorezko efektua, testuetan fonetikan ematen ziren imitazioen eta gazteleraz zizaka ziharduten euskaldunaren joskeraren mende egon ohi zen, askotan. Umorezko baliabide hau Cervantes-ek erabili zuen lehenengo aldiz, Don Kixotek Bizkaiko Aitoren semea topatu zueneko hartan. Euskaldunen ezpainetako gazteleraren bihur-rikerien literaturagileak hauek izan ziren: Sabino Goikoetxea («Argos») —XIX. mende amaie-ran—, Pepe Artola eta Manuel Aranz Castellanos.¹⁰¹ Behin baino gehiagotan irudizatu zituen Arruek azkeneko honen «Euskal Koadroak».

Orain arte esandakoaren arabera, begien bistakoa da Arrueren umorea bere garai historikoan kokatzea beharrezkoa dela. Bere baserri-giroko hurbilpena kontraesankorra da batzuetan, zalan-tzazkoa bestetan. Bere obratan presente daude bai iraina eta kritika kutsuak, nahiz goraipamena eta onarpena. Jose Arruerengan, bere garaiko gizonak zibilizazio industrialaren geldiezinezko aurrerapenari eta kultura tradizionalaren erreferentziak zalantzan jartzeari aurka egin beharko dieten ideien eta sentimenduen isla adierazgarria aurki daiteke.

Arrueren txisteeek, formari dagokion alderdian, ez dute garapenik *El Liberal*-etik eta *Tierra Vasca*-ra doazenetan. Errealismoa eta karikatuzko itxuraldatze arteko bidean, pertsonaiak – frankotan gorputz osokoak– lerro-trazuzko marrazkia dute sostengu, aratz aldera, ala hitsa kasuaren arabera, bere irudiei bolumena emateko itzalak erabiltzeko aukera horregatik baztertu gabe.

Behaketarako duen gaitasun aparta elementuen irudikapen anitzetan eta keinuen azterketa egokian azaltzen da.

■ PEDRO ANTEQUERA AZPIRI

Jose Arruerekin gertatu bezala, Pedro Antequera Azpiriren (Madril 1926 - Madril 1975) sormen jarduera ez zen pinturan gelditu. Bere lanen artean garrantzizkoak dira irudiztatzeak, horma-kartelak, iragarki-marrazkiak, umore grafikoak. Hainbat egunkarietan artikulugile modura esku hartu zuen eta baita zenbait liburu idatzi ere, berak irudiztaturiko haur ipuinak gehienetan.

Euskal prentsarako ez zituen marrazki asko egin, baina, hauek duten kalitate grafikoak aparteko arreta merezi du. Ez da ahaztekoa, gainera, 1926 eta 1932 bitartean hurrenez hurren, Donostian ospatu ziren Nazioarteko Umorezko Aste Nagusian eta Umoregile eta Irudiztatzaileraren Aretoan antolatzaile bezala egin zuen lan handia; Euskal Herriko umore grafikoaren duintasun artistikoa lortzeko eragina izan zuten gertakariak biak ere.

Antequera Azpirik Zuzenbidea eta Filosofia eta Letrak ikasi zituen Madrilen, baina, artelantarako bokazioa etengabe bere gogoan zuela. Saritua izan zen 1912.ean Madrileko *El Imparcial*-ek antolatu zuen lehiaketan eta bakarkako erakusketa egin zuen hiru urte beranduago Bilboko Delclaux Aretoan. Umorezko marrazki sail bat –«militarrak», «euskaldunak» eta «jendetzak» deituz multzoka bereizita– erakutsiko zuen Madrileko Arte Modernoko Aretoan 1916.ean eta hemen ikusi zuen bere «nortasun berezia» Jose Frances kritikariak, «konposiziorako eta oreka ederrak aurkitzeko gaitasuna» azpimarratuz.¹⁰²

Marrazki eta pintura erakusketetan (Madrilen, Bartzelonan, Donostian –1926, 1927, 1930, 1932–, eta Parisen, New York-en, Lisboan...) bakarka nahiz taldeka parte hartzeaz gainera, *La Esfera*, *Kikiriki*, *Realidad*, *Blanco y Negro* eta hala nola:

- Madrileko *Nuevo Mundo*;
- Buenos Aires-ko *La Nación* eta *Caras y Caretas*;
- Bartzelonako *Hojas Selectas*;
- Parisko *Le Progrès Lirique* eta
- Londreseko *Advertising Display* bezalako argitalpenetan oparotasunez azaldu gabe ez da gertatu.¹⁰³

Goitik begira ikusitako bere pertsonaia askoren eszenak oso goraiatuak izan ziren.

Antequera Azpiri Donostian jarriko da bizi izaten 1919.ean, bere marrazkien bidez euskal errealitatearen alderdi anitzen interpretari bihurtuz. Errepublikazaleen *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian 1923 eta 1927 bitartean irregulari parte hartuko du karikatua eta irudizko txistee-kin, non txandakatuko baititu guztiz bertakoak diren gaiak (baserri-giroko estampa pintagarriak, Donostiako turismo-giroaren alderdiak, e.a.) eta estatu edo nazioarte mailan mota askotakoak.

Zuhurtzia eta neurria Antequera Azpiriren ironiazko ikuspegiaren ezaugarriak ziren, baina, edozein aitzakia gehiegizkoa gerta zitekeen Primo de Riberaren garaietan. Arrazoi honegatik utziko zituen gai liskar-eragileak baztertera –hozka egingo duen txisterik ez du argitara emango 1923ko pronuntziamentuaren ondoren, Eibarko arma-krisialdian aipatzen duenaren parekorik ez, behintzat– gerora, ezarian-ezarian karikatua pertsonalean eta nazioarteko gai politikoetan barneratuz joateko.

Antequera Azpirik, 1928an argitara aterako zuen *La publicidad artistica para todos* arte eta iragarki teknikari buruzko zabalkundeko liburu interesgarrian, umorea eta satiraren arteko bereizmen kontzeptuala sartuko du, bere obra grafikoa ulertzen lagunduko duena. Satira: «hase-rerrik ezaren eta garraztasun artistikoaren gorengo maila» zen eta umorismoak, berriz, zera suposatzen zuen: «izaera azpimarratzea forman, eta zuzenketa espiritualaren barruan, nahitako zorroz-tasuna sakonean».¹⁰⁴

Hauxe da bere txisteek eta karikaturek jariatzen duten aldartea, «zuzenketa espiritual» dotore bukatutako marrazki baten armonian eta baliabide grafikoetan (punteatzeak, marrazdurak, sarekak, tindatze lauak, itzalezadurak) aberats den hura, desitxuratzeetara iritsi gabe, neurritz, motaz, keinuz eta izaeraz areagotzera mugatzen dena.

Bere lan batzuen ukitu kosmopolitari dagokionez, Jose Simon Valdivielso kazetariak bere umoreaz idatzi zuena esanguratsua gertatzen da: «ipartarren trufaz, frantses *esprit* eta britainiar *humour*-earen nahasketaz eginiko grazia dauka».¹⁰⁵

La Voz de Guipúzcoa utzi ostean, Antequera Azpirik Bilboko kirol-egunkari *Excelsior* deituan esku hartuko du 1928an, apaingarri deigarritzko karikatura bikainak eginez, beti begikotasunaz eta adierazpide neurtuaz zuen ideiarri leial eutsiz.

Bere sinadura Donostiako *El Día* arratsaldeko egunkarian azalduko da berriro, 1932 eta 1933an zenbait karikatura eta irudi argitaratuko baititu hemen.

Madrilen finkatuko da 1934. aldera eta aldizkako argitalpen batzutan esku hartuko du, *La Política*-n besteak beste, ezkerreko errepublikazaleen astekarian.

Honi ere Jose Arrue eta Eduardo Lagarderi bezala gertatuko zaio, Antequera Azpirik kartzela ezagutu beharko zuen gerra zibila zela eta. Marrazteari ez zion utziko, «Martin Hondarribikoa» izengoitia erabiliz, antza denez, kartzelan eman zituen bost urte haietan.

Antequera Azpirik, gerora, bere margogintza eta diseinari grafiko lanbidean jarraituko zuen. *Blanco y Negro* eta Buenos Airesko *La Nación* bezalako argitalpenetan sartuko da.

Antequera Azpiri ikus-arteetako historiografian ahazturik dagoen irudi bat dugu. Bai bere obra eta bai pertsona bera berraztertze baten esperoan daude.

■ EDUARDO LAGARDE

Hogei eta hogeita hamarreko hamarkadan Eduardo Lagarde Aranburuk (Tolosa 1884 - Donostia 1950) lan gogoangarria egin zuen arkitektura, pintura, umore grafikoa, horma-kartela eta arte grafikoetako beste modalitate esparruetan; hori dela eta Donostiako ingurumarian pertsonaia oso ezaguna bihurtu zen.

Eduardo Lagardek, familiako tradizioari jarraikiz, militar karrera egingo du eta Toledoko Infanteria Akademiatik, lehen teniente gradua eskuratuta, 16 urte zituela irtengo zen. Baina bere bokazio autentikoa beste norabide batetik zihoan. Arkitektura ikasiko du Madrilen eta marrazki klase batzuk hartuko ditu Arte Ederretako San Fernando Eskolan.

Donostian jarriko da bizi izaten 1920an eta Felipe Azkonarekin batera arkitekturako estudio bat irekiko du, erakusketa areto ere bazena. Lagarde, arkitekto bezala, obra ugariaren egilea dugu –Jose Maria Martinez de Ubago edo Jose Manuel Aizpurua bezalako arkitektoekin batera eginiko lanak batzuk– eklektikotasunetik hasi eta abangoardiako arrazionalismorik garbieneraino doazenak.

MARRAZKILARIA

Lagarde, marrazkilari bezala, *La Voz de Guipúzcoa*-ren bidez egin zen ezagun. Egunkari errepublikazale honetan egin zituen 1924 eta 1930 bitartean «hogeiko hamarkada zoriontsu» hartako ikuspegi gozo eta alaia islatzen jakin zuten txiste eta irudizatze ugariak. Umore txurria deitua landu zuen Lagardek, beste guztien gaineratik, Donostiari bainu-etxe, festa-giro eta hiri lasaiaren irudia eman ziona, zeinetan, dena edo ia dena hondartzaren eta turisten biran gertatzen zen.

Baina, baziren bere marrazkien galbahetik iragazi ziren errealitateko beste alderdi batzuk ere. Gutxi gora-beherako araztasunez islatzen zituen haietan hogeiko hamarkadan eman ziren sozio-kulturazko gertakari garrantzitsuak, hala nola: masen kirol-ikuskizunek egin zuten gorakada, lehen planoan futbol eldarnioa zuela. Gai hau Lagarderen txiste eta marrazki askoren iturri bihurtu zen. Boxeoari eta automobilismoari eskaini zizkionak ere, ez ziren gutxi izan. Urte haietan Paulino Uzkudun benetako masa-idolo bihurtu eta motorrezko automobilen matrikulazioak goraka zihoazen. Emakumearen askapenezko gaiari ere arreta jarri zion moda eta ohitura kontuetan, honen aurrean –bere garaikide askok bezala– ironiazko eta axolarik ezaren arteko jarrera hartu bazuen ere.

Lagardek noiz edo noiz azaldu zuen aldarre kritikorik Primo de Riberearen diktaduraren aurrean. Bere «Historieta sin palabras muy 1926» hartan adierazpen askatasunaren gabeziagatik desadostasuna nabarmen azaltzeaz gainera, behin eta berriz erakutsi zuen Kasino Handiaren eta Kursaal-aren itxierarekin ez zegoela konforme. Bere begirada kritikoa hainbat arazoetara ere iritsi zen, etxebizitzak garestitzeari buruzkoetara bezala, zinegotzien arreta faltagatik hirigintzako arazo jakinetara edo herri-bideak mantentzeari zegozkionetara. Marokoko gerrari buruzkoetan, Lagardek interbentzioaren aldeko aurpegi gerrazalea agertu zuen –komandante graduari jarduna baitzen bera ere gatazkan– nazioarteko politika-gaietan bakearen aldeko testigantza ematen asmatu bazuen ere.

Hastapena 1930ean izan zuen trantsizio politikoak, zentsuran onarpen handiago bat eragingo zuen. Lagarderen txiste sozio-politikoek inoiz baino jario-tasun handiagoa izango dute urte horretan.

Forma kontutuan aldaberatasun handi bat agertzen du Lagardek. Esperimentaziorako kezkek teknika eta estilo berriak probatzera eramango du, bere eskuaren lana ia beti erraz sumatzen dena bada ere.

ESZENA JENDETSUIAK

Lagardek *La Voz de Guipuzcoa*-n argitaratu zuen lan-multzo osoaren artean, barruko orrialdeetan sartzen zituen neurri handiko jendetza eszenak dira begirada gehien erakartzen dutenak. Umorezko marrazki delako haietan Donostiako eta probintziako beste puntu batzuk islatzen dira –sarritan ingurune arkitektonikoa garrantzi handiz erakutsiz–, jendez alaituriko giroak eta parajeak. Atsedean eta festa-giroaren alde, argiro azalduz, Lagarderi bereziki erromeriak, dantzaretoak, hondartzak –unibertso erdigunea, Kontxako badia– erakargarri zaizkio, baita kirol ikuskizunek ere. Bere lumapean kaiak eta azokak jarraitasunik gabeko zalaparta-giro alai berberaren partaide dira.¹⁰⁶

Joan-etorri handiko eszena nabar hauek Lagardek ikuskizun bihurtzen ditu giza samaldak, Rikardo Opiño edo Pedro Antequera Azpiriren neurriko marrazkilariek egin zuten modura. Lagardek bere eszenak eskematikoago antolatzen dituela egia bada ere. Arkitektoa izanak mugatuko zuen zentzu honetan. Osoko inpresio bat gehiago axola zaiola esan liteke, tipoen nortasuna xehetasunez lantzen gelditzea baino.

TXISTEAK

Bere txistetan jende samalden umorezko marrazkietan bezain lineal, eskematiko eta dekorazio zale ager daiteke Lagarde. Baina bestelakoetan, nahiago izaten du tratamendu zirrimarratsu eta zehaztugabea, berdin luma nahiz pintzela erabiliz, aukera zabal baten barruan, espresionismo ilun batetik marrazki urduri eta solte bateraino doana, eta zenbaitetan gogora Martinez de Leon dakarkiena. Azkeneko formula hau jarraituz, zeren-apunte teknika klasikoak iradokitakoa dirudiena, Lagardek festa, antzerki eta kirol gertakariei buruz marrazki ugari egin zituen.¹⁰⁷ Gu-txiagotan, baina, bere txistetan lerratu ere egin zen geometria forma soiletara.

Donostiako *El Pueblo Vasco*-rako 1931 eta 1932an egin zituen umore-marrazkietan luzatuko du, aldaera askorik gabe, lehen aitaturako panoramika jendetsuen saila.

Umorezko argitalpen espezializatuetan Lagarderen parte hartzea, antza denez, oso epe laburrekoa izan zen. 1930an gai euskaldunei buruz zenbait txiste eta marrazki argitaratu zituen, Aristo Téllez eta Emilio Ferrer-ek urte horretan bertan sorturiko Madrileko *Klaxon* aldizkarian.

Maurizio Flores Kaperotxipi margolari eta idazlearen iritziz, Lagarde «Euskal Herriko marrazkilaririk azkarrena zen».¹⁰⁸ Agian, dohain hau jendaurrean eta kultur aretoetan erakutsiko zuen, Alfonsito R. Castelaoren urratsei jarraikiz, bere hitzaldiak nahiz besterenak paper-plegu handietan irudiztatuz.¹⁰⁹

Hogei eta hogeita hamarreko hamarkadatan Donostian, Baionan eta Miarrizzen zintzilikatu zituen hainbat aldiz bere marrazki eta margolanak. Madrilen eta Parisen ere, antza denez, azaldu omen ziren bere lanak. Bakarkako erakusketak egin zituen 1928, 1931 eta 1932an Donostian. Probintziaren izenean Gipuzkoako Foru Aldundiak Sevillako Erakusketa Iberoamerikarrera 1929an bidali zituen konposizio post-kubista handiak bereak izan ziren.¹¹⁰ Bere dekoratzaile talentua askotan jarri zuen Donostiako herri-jaien zerbitzuan: festa goieskoak, inauterietako karrozak, etab.

Lagardek, Antequera Azpirirekin batera, 1926ko Nazioarteko Umorigileen Aste Nagusian eta 1932ko Umorigile eta Ilustratzaileen Aretoan esku hartu zuen.

Gerra zibila lehertu ondoren kartzelatu izan zen Lagarde monarkiaren aldeko militarra zelako. Esperientzia honi buruz izaera goibeleko marrazki espresionista sail bat egin zuen, Federico Carasaren *Presos de los rojos separatistas* (Donostia 1938) liburua irudiztatu zuelarik.

■ JOAN ZABALO ("TXIKI")

Joan Zabalo Ballarin «Txiki» (Manchester 1892 – Londres 1948) euskal irudigile ezagunetarikoa izan zen hogei eta hogeita hamarreko hamarkadatan. Gerora Joan ala Jon Zabaloren lanak argitaldarien eta erakustokien arreta eskuratzeko zoria izan zuen. Auñamendi argitaletxeak 1973an *Txiki, dibujante y humorista* izeneko liburua kaleratu zuen, bilduma baten modura, horma-kartelgile, liburu ilustratzaile eta umorezko irudigile bezala egile honek burutu zituen lanekin.¹¹¹ Hogeita hamar urte beranduago –2003ko maiatzean– Koldo Mitxelena kulturuneak (Donostia) erakusketa bat eta Txikiren lanen profila ongi islatzen zuen liburu bat egin zituen.¹¹²

Orri batzuk atzerago, beste marrazkigileek «euskal eszenak» erabiltzeko zuten tratatu baldarraren aurrean Txikiren obra «delikatu eta fina» goraiatzen ikusten genuen Jose Maria Ojarbidek, *Euzkadi*-ko artikulgileak, biografiako ohar interesgarri batzuk ematen ditu: «Joan Zabalo da Txiki, gipuzkoar peto-petoa, jaiotzaz izan ezik, Manchesterren jaio baitzen, hala behar eta. Baina haurra zela, Donostiara etorriko da eta geroztik hirian bizi eta bertan marraztuko du. Ez du ertilari bizitza erakargarri eta kontatze korrik. Txingoteak margotzen zituen idazten ikasi baino lehen, eta marrazkietarako zaletasuna erakutsia zuenez, ez zen Don Rogelio Gordonekin klaseak eman gabe libratuko. Arkitekto izan nahi eta, ikasketak aurrera samartuak zituenean, bere nahia utzi beharrean gertatu zen, osasunak laguntzen ez-eta».¹¹³

Profesionalki lan egingo du Txikik hogeiko hamarkada hasieran irudi diseinugile bezala, eta estudio bat ireki eta «Txiki enpresa. Marrazketa artistikoak eta industrialak» izenarekin egunkarietan iragarkiak jarriko ditu.¹¹⁴ Marrazki eta Pintura Akademia bat ere jarriko du martxan.

Txikik 1913an *Euzkadi* aldizkarian txiste solte batzuk argitaratuak zituen, baina, eguneroko prentsan bere kolaborazioa ez zen 1922ra arte hasiko. Urte horren azken aldera Donostiako *El Pueblo Vasco*-ko marrazkigile bihurtuko da, eta 1929ra bitartean, txiste eta karikatura sail bat egin –ez oso handia– Rafael Pikabeak fundaturiko egunkari kontserbatzaile eta nazionalista aldeko honetarako, non formatan eskematizazio alderako nahia igartzen zaion, batzuetan geometriako ariketa huts izatera ere irits litekeena. Karikatura-trazuetan geometriarako joera horrek batzuetan emaitza gogortxoak eta hitsak ematen ditu.

BORROKARAKO UMOREA

Diktadura garaian *El Pueblo Vasco*-n eta lehen aipaturiko Argia almanakan Txikik burutu zuen konpromisorik gabeko umorismoa, atsegina ohi zena, Errepublikara garaian militantzia politikoa bizi bihurtuko zen.

Donostiako *El Día* egunkarian 1930eko uztaila eta 1936ko ekaina bitartean egin zituen txiste eta karikaturak lekuko ederrak dira Txiki nolako nazionalista, kontserbatzaile eta katoliko tinkoa zen jakiteko.

Errepublikar errealitate izatera iritsi baino lehen, Txikik bere «Mutil jatorraren bila» txistearekin hurbiltzen ari den erregimen politikoaren susmoa azalduko du. Baina bere erro politikoak ez dira kanporatuko 1931ko abenduan «Pin, Pan, Pun!» triptikoan, bertako langile eta emigrazioetik etorritako langileen arteko istiluen erreferentzia zena argitaratuko den arte.

Errepublikarren Batasuneko kidea eta EAJ-n antzinako afiliatua zen Pedro Sarasquetak salatzeko zuten zitalkeria krudel berdinez erantzun zuen, gutxienez ere, *La Voz de Guipuzcoa*-ren bitartez: «Jolasean hasita, izenez hain “katoliko” eta unibertsaltasunez eskas diren jeltxide hauek jorrazten ari diren “antivasquismoak” lotsatu egiten gaitu». Erredakzioan, triptiko bateko egunkari-zati bat jaso dut karta-azal batean, “Gora Euzkadi Moskortuta-ko” jaun batzuentzat azaltzen duen karitate faltagatik, eta bere maketa-fobia dei diezaiokegunagatik, oso grazioso izan litekeena. Nik, «euskaldun osoa» eta Zuzentasun zale naizen honek, suturik kexatu baizik ez dezaket egin delako “Pin, Pan, Pun!” odolzale horren aurka, eta sumindurik geratu, Txiki baita, hain zuzen, kristautasunarekin eta odol gorriko euskal nobleziarekin halako lehian dabilen pentsamendu baten marrazkilaria».¹¹⁵

El Día egunkarian “Pin, Pan, Pun!” argitaratu zuenetik, Txikiren kolaborazioa sarriagokoa izango da eta bere txisterik gehientsuenak, berriz, Euskal Herriko politikaren jira-biran dabil-tzanak. Hauetan azaltzen duen haserre politiko ozena –garai horretan zegoenaren isla, inola ere– eta askotan eransten dien grafikotasun xume eta tolesgabearen artean alde itzela egon ohi da.

Erreformaren biurteko horretan Txikik gai askori helduko dio. Autonomia Estatutua buru-belarri defendatuko du eta gobernu errepublikar eta sozialistaren antikerikalismoa eta lan munduko, politika mailako eta gizarteko asaldura salatuko; dibortzioa eta ezkontza zibila erre-alitate bihurtuko zirenenaren ikuspegiarekiko bere guztizko gaitzespena erakutsiko du, gainera.

Erradikal-cedatarren biurteko hartan, Estatutua etsi gabe azpimarratuz, langileriaren iraul-tzarekiko beldurra emango du aditzera, horregatik CEDA-ren, karlisten eta Alfontotarren aurka erasoan jarduteari utzi gabe. Fronte Popularraren garaipenaren ostean oso txiste gutxi argita-ratuko ditu.

ERANTZUNAK ETA KONTRA-ERANTZUNAK

Egunkari desberdinen artean, elkarrekiko kritika –garai hartan oso hedatua zen ohitura, agi-danez– umoregile grafikoek ere berenganatu zuten. *La Constancia*, *La Voz de Guipúzcoa* eta *La Gaceta del Norte* Txikiren zirika-gai bihurtu ziren orduko haietan. *La Constancia* egunkari integrista foruzale harekin erantzun eta kontra-erantzunezko kasu bitxia gertatu zen: Estatutuaren eta Foruei buruzko Txikiren aipamenak *La Constancia* egunkarian erantzuna jaso zuen, beronen txistearen elementu batzuk aldatuta. Erantzun honek izan zuen ihardespentik Txikiren aldetik, sistema bera erabiliz gainera.

Txikik karikatura ugari –EAJ-ko pertsonaia gailenenak gehienetan– egin zuen *El Día*-rako ere, *El Pueblo Vasco*-rako egin zituen haien eskema berekoak.

Euzkadi egunkarirako noizean behingo kolaborazio-lana egin zuen 1931 eta 1934an. Argia aldizkarirako –1921ean txisteren bat jada argitaratua zuen astekaria– propaganda politikorako marrazki segida batzuk egingo ditu 1932 eta 1933an. *Poxpolin* haur aldizkarian esku hartu zuela aipatua dugu jada 3. kapituluaren.

Eusko Jaurlaritzarekin jardungo du gerra zibila bitartean, ondare artistikoaren zaintze-lanetan. Gerora, Frantzia atzerriraturik zen Eusko Jaurlaritzarentzat egingo ditu hainbat lan. Alemanen okupazioaren ostean Londresera joan eta, Ingalaterran jaioa izanik, bertan onartua izango zen. Londresen, antza denez saltzea lortzen zuen bodegoiak eta erretratuak margotzen emango ditu bere bizitzako azken urteak.

■ "KILI-KILI"

Joan Zabalorentzat «Txiki» deitura –txikia baitzen izatez– izengoiti maitekor bat zen benetako goitizena baino gehiago. Bere izena eta abizenak publikoki ezagunak izan ziren beti. Oso bestelako kontua izan zen, Mirri, Kili-Kili, Gurpil, Tximino edo Talo goitzenpean bere identitatea erabateko sekretuan gordetzen jakin zuen umoregile politikoarena. Mozorroa janzteko garaian halakoa izan zen marrazkigile honen zuhurtasuna, non, ezjakinean gordetzen den oraindik ere beronen nortasuna.

MOKOKALDI POLITIKOETAN

Mirri goitizena 1910ean azalduko da jada Bizkai Buru Batzar bozeramale ofiziala zen *Bizkaitarra* aldizkarian argitaraturiko txiste politiko batzuen oinetan. Marrazkilari bezala, bere lana funtsean Bilboko *Euzkadi* egunkariari loturik joango da, batez ere, hemen ariko baita –etenaldi batzuk gorabehera– 1913an sortu zenetik gerra zibilera arte.¹¹⁶

Mirriren txisteetako ahakar politiko zorrotzak protesta bat baino gehiago eragin zuen. *El Nervión* kexatu egin zen, *Euzkadin* kolaboratzen hasi eta berehala, «grafikoki iraintzeko dohain bereziak zituela» esanaz.¹¹⁷

Euskal nazionalismoaren organo erradikal eta independentzia aldeko Aberri-n ere azalduko da 1916 eta 1921eko bitarte horretan. Astekari honetan hasiko da erabiltzen bere izengoitirik ohikoena: Kili-Kili. Zenbait txiste euskarazko *Euzko-Deya*-n ere argitaratuko ditu 1916 eta 1918 bitartean.

Alderdi jeltzalearen banaketa etorriko da 1921ean, abertzale eta komunisten artean. Orduan helduko dio berriro Kili-Kilik *Euzkadi* egunkarian (Comunión Nazionalistaren bozeramalea) 1914ean eteniko kolaboratzeari.¹¹⁸ Berriz ere bere txiste bat errieta-sorburu izango zen 1922an. Bizkaiko gobernari zibilak abertzaleei beren aldeko tratua eskaintzen omen ziela aipatzen zen bertan. *El Liberal*-ek zutabe anonimo bat argitaratuko zuen berehala, zeinetan marrazkiaren esanahiari buruzko uste okerrak hartuta “krudeltzat” jotzen zuen González Reguerual gobernari zibilari egin zion karrikatura.¹¹⁹

Inola ere, Primo de Riveraren Diktadurak prentsa nazionalistaren gainean ezarri zuen kontrol zorrotza izan zen aldi honetan Kili-Kili mututu izanaren arrazoia. *Euzkadi*-n 1929an hasiko da berriro umorezko kontakizunetan, irudiztatze lanetara mugatuz. 1930ean irekiko den transizio garaitik abiatuta baizik ez da itzuliko satira politikora.

Kili-Kiliren txisteak Diktaduraren erorketatik Gerra Zibilera doan aldi horretan, Euskal Herria astintzen zuten gatazka handi nahiz txiki haietan, EAJ-ren pentsamendu eta sentieraren lekuko grafiko adierazkorrak izango dira. Bere umorearen garratzasuna aldi horretan bertan Txikik azaldu zuenarekin aldera daiteke. Halarik ere, Kili-Kiliren marrazki zarpaila, aztoratua eta itxuragabekeriaren mugataraino espresionista dena, hobeto egokitzen da nahiera satirikora, mingarritasuna areagotuz. Kili-Kili, azken batean, errepublika garaiko Euskal Herriaren egoera latz eta alderdikoi hartako adierazle leial bat baizik ez da izango.

Itxurakeriarik ez du erabiliko Kili-Kiliren arkatx zorrotzak politika eta intelektueltasuneko lehen irudi haien aurrean. Errepublikako lehenbiziko biurteko hartan Unamuno erasoko du euskararen aurrean hartutako jarreragatik eta Prieto eta Azaña demagogo eta maskaradako iraultzaile bezala aurkeztuko. Salatu egingo ditu antiklerikalismoa, delinkuentziaren gorakada eta beretzat gezurrezko euskaltasuna dena. Autonomia Estatutua defendatu eta EAJ-ren hazkundearen oihartzun izango da.

1933ko otsaila eta urria bitartean EAJ-ren hegal erradikal eta gogorraren organoa zen *Jagi-Jagi*-n ere esku hartuko zuen, 1934ean bereizirik amaitzeko. Gurpil izengoitiz astekari honetan egingo zituen txisteetan oso garbi islatzen da nolako hoztasun-giroa zegoen hilabete haietan euskal nazionalisten eta errepublikazale sozialisten artean. Hauetan, Jagi-Jagiren ideologiako ezaugarria den errepresioaren mistika eta biktima joera ere ikus daitezke, baita Sabinoren jatorriko arrasto arrazistak ere, jatorriz emigranteak diren langile eta sindikalistak irudikatze garaian suma daitezkeenak. Antonio Elortza historialariaren iritzian, Jagi-Jagi astekariko irudiren batzuk «mende hasierako ikonografia antimaketaren ezaugarriak jasotzen dituzte oinordetzan». Kili-kilik (Mirri) *Bizkaitarra* (1913), *Euzkadi* (1913) eta *Aberri*-n (1919-20) argitaratu zituen txiste batzuei buruz ariko da, agian.¹²⁰

1933ko azaroko hauteskunde orokorretan erradikal-cedatarren garaipenarekin Gil Robles eta Lerroux izango dira Kili-Kiliren angelu trufariaren aurrean jarriko direnak, monarkia zale, tradizionalista eta katoliko independenteen ondoan. Plutokrazia bilbotarra, «pistolari gorriak» eta baita prentsa-arerioak (*El Nervión, La Constancia, La Gaceta del Norte, Bilboko El Pueblo Vasco, El Liberal* e.a.) ere txiste batzuetako gaiak izango dira. Zentsuraren arkatx gorriari buruzko aipamenik ez da falta, ez eta, ezker-eskuineko aukeren aurrean EAJ-ren egoera deserosoari buruzkorik ere.

Iraultzaren mamua eta nekazari-giroko etsipen arazoak gai onak ziren 1936ko hauteskundeei aurre egiteko. Fronte Popularraren garaipenarekin, Estatutua eta Elizaren irakasbide soziala defendatzen jarraituko du.

Askapen nazionalako borrokaren ezaugarriengatik agian, Kili-Kilik bere marrazkietan aipatuko duen nazioarteko gertakari politiko bakarra –gauza ber-bera esan daiteke Txikiri buruz-italiar-etiopiar gerra izango da.

IKONOAK

Txikiren antzera, EAJ-ren nazionalismoa normalean baserritar indartsu baten irudiko sinboloa egiten du Kili-Kilik. Aukera hau arrazoiz garden baten ondorioa zen. Aranaren nazionalismoaren ideologian nekazari-bizimodua euskal identitatearen esentzia eta balio baikorrak bizirik zaintzen zituen gotorlekua zen. Honek erakusten du zenbaitetan («Gure definizioan») «Euzkadi» eta «Nazionalismoa» gauza ber-bera bezala azaldu izana. Txiste batzuetan beste *nahaste* bat gertatzen da «Nazionalismoa» eta «Partido Nazionalista Vasco, EAJ-ren» artean, joera nazionalisten artean bat baino gehiago ematen zirela konturatu gabe.

■ GERARDO FERNÁNDEZ REGUERA ("FRAG")

La Gaceta del Norte-k ez zuen umore grafikoaren aldeko interes berezirik agertu 1933.eko apirila bitartean bertako zuzendari Aureliano López Becerraren umore aldartea frogatua izan bazen ere. Ordurako Espainiako eskuinaren berrarmatze politikoa errealitate izaten hasia zen. *La Gaceta del Norte* egunkari independente bat zen, baina, bestela ezin zitekeenez, bere gurutadarako katolikotasuna, antiliberalismo politiko eta intelektual sutsuarekin batera zihoan.

La Gaceta del Norte Gerardo Fernandez Regueraren txisteak eta karikaturak argitaratzen hasiko da 1933ko apirilaren erdialdera; ("Frag") izengoitia zuen marrazkilari honen biografiazko daturik ez badaukagu ere, dakigun gauza da «*Areuger*» ezizenez *Gente Menuda* (*Blanco y Negro*-ren haurrentzako eranskina), *El Mentidero* eta *Buen Humor* bezalako argitalpenetan esku hartu zuela. Madrileko *Gracia y Justicia*, azpituluz «umore nazionalaren muturreko organoa» deitzen zen argitalpen kontserbadore honen marrazkilari adierazgarriena ere izan zen.¹²¹ Aztarna guztien arabera Frag Madril bizi zen eta handik igortzen zituen *La Gaceta del Norte*-ra bere «esklusiba» guztiak.¹²²

Frag-en erabateko satira grafiko basatia, batez ere, estatu-politikako gai nagusienetan oinarriturikoa izan ohi zen, liderrik agerikoenetan gorpuzten zituelarik gehienetan. Halaz ere, Euskal Herriari buruzko erreferentzia zehatzik ez da faltako. Frag marrazkilari sendo baten modura azaltzen da *La Gaceta del Norte*-rako bere lanetan, fantasiako sartu-irten batzuk eragotziko ez dizkion ikuskera errealista baten barruan. Karikaturan trebezia handikoa izanik, badaki biktimaren fisionomiazko ezaugarriak –maila batean– begirunez erabiltzen. *La Gaceta*-k, zuria eta beltzaz gainera, grisa eta gorria jarriko ditu marrazkilariaren zerbitzuan. Margo gorriaren konnotazio ideologikoak behin baino gehiagotan erabiliko ditu Frag-ek.

Frag-ek 1933ko azaroan emaniko eskuindarren garaipenera arte errepublikazale sozialisten gobernu amorrus erasoko du irakaskintzako laikotasunagatik eta kaleetako indarkeriagatik behin eta berriz kexatuz. Casas Viejas-eko zanpaketa basatia, Azaña-rentzat, Frag-ek behin eta berriz zirikatatu gabe utziko ez duen zauri bat da.

Erradikal-cedatarren biurteko hartan, gizarteko nahas-mahas haren enfasi egiten jarraituko du eta Urriko iraultzaren zirikatzaile bezala agertuko, itzalean ziren Prieto eta Azaña. Asperdura politikoaren giroa eta bere txistek sarri samar mozten dituen zentsuraren gogortasuna –gauza bera emango da 1936an– bere arreta erakarritako gaiak dira.

Txiki eta Kili-Kili bezala, Frag saiatuko da, bere baliabideak erabiliz, hauteskundeetako emaitzetan eragina izaten. 1936ko otsaileko kanpainen marxismoaren aurkako berotasuna bistaratu eta fronte-populistako propagandako horma-kartelekin jolas egingo du ironiaz. Gerora, 1936ko uztailaren hasiera arte, bere txistek espainiar gizarteko gerra-haizeak biltzen dituen haize-errotaren hegalean antzekoak izango dira.

NAZIONALISMOAREN AURREAN HARTURIKO JARRERA

Autonomiaren aldeko borroka eta euskal nazionalismoaren jokaera politikoa beti saihestuko zituen gaiak dira. *La Gaceta del Norte*-ren ezaugarri nagusiak foruzaletasuna eta katolikotasuna izan ziren, 1934ko abuztuaren 9ra arte EAJ-rekin ulermen-maila on bat eragin zutenak. Haus-tura ekarriko zuen data horretan EAJ ezkeraldera gerturatzeak.

Frag-ek ez zuen iruzkinik egin, ez aurretik ez gerora, Euskal Herriko Autonomiari buruz, nahiz Galiziako Estatutuari buruz (1936ko ekainak 12) destainazko txantxa bat bere buruari onartu. Nahiz eta *La Gaceta del Norte*-ren aurka Txiki eta Kili-Kilik pozoituriko azkonak jaurti, Frag ez da unetxo batez ere euskal nazionalismoaren aurka altxatuko.

Frag 1936an zendu zen.¹²³ Beste daturik ezean eta, lehen eman ditugun marrazkilarien bio-grafiak kontuan harturik, gerra zibilak horretan zerikusirik izango zuenaren susmoa saihestea zaila gertatzen da.

OHARRAK

* Lan hau Bilboko Arte Ederretako Museoa 1986an eman zuen beka bati esker egin ahal izan zen. Nire esker ona Soco Romanori adierazi nahi diot testu hau idazteko bide izan den eskuizkribuari hautsak astinduz berridaztera animatu naue-lako. Nire eskerrak baita laguntza preziatua eman didaten Maia Aguiriano, Joan Jose Agirre, Amelia Antequera, Natividad Arrue, Arantxa Arzamendi, Jon Bagüés, Saturnino Casillas, Jose Antonio Durán, Juanxto Egaña, Idoia Estornés, Carmelo Garitaonaindia, Joan Antonio Gisaola, Iñaki Golkoetxea, Emili Lagarde, Eduardo Lagarde (semea), Xabier Martiarena, Iñaki Martínez Gorrotxategi, Ana Iza, Adelina Moya, Pilar Mur, Xabier López Mendizabal, Marisa Pérez de Arenaza, Jose Ramon del Puerto, Modesto Vicente, Fernando Viñuela eta Mercedes Zabalari ere. Testu honen bertsiio laburbilduak 1994ko azaroko *Muga 90*. znb. an aurki daitezke («El humor gráfico en la prensa de Bilbao y San Sebastián. 1865-1936») eta, izen berarekin VV.AA.n, *Revisión del arte vasco entre 1875-1939*, Eusko Ikaskuntza, 2004.

(1) XIX. mendeko adieran, karrikatura izenak umore grafikoari dagokion adierazpide multzoa biltzen du. Horrela, karrikatura pertsonalaz, sozialaz ala politikoz hitz egin daiteke beraz. Lan honetan karrikatura pertsonala aipatzeko bestetarako ez da erabiliko, pertsona baten hazpegiak areagotzen ala desifuratzten dituen adierazpide grafiko hura, alegia.

(2) Esku artean erabilitako prentsa, umore grafikoaren sendotasun puska batez agertuko zen aldikako argitalpenak atzemateko balioko zuen aurretiko laginketa bati erantzunaz aukeratu zen. Oso-osorik kontsultatu ziren ondorengo aldizkari eta egunkari hauek: *El Liberal* (1923-1936), *Euzkadí* (1923-1936), *La Gaceta del Norte* (1923-1936), *Tierra Vasca* (1933-1934), *El Día* (1930-1936), *La Voz de Guipúzcoa* (1923-1936), *El Pueblo Vasco* Donostiakoa (1923-1936), *El Diario Vasco* (1934-1936), *Vida Vasca* (1923-1936), *Hermes* (1917-1922), *Novedades* (1909-1919), *El Nervión Edición Ilustrada* (1907-1915), *Garellano* (1921-1922), *Bilbao Gráfico* (1922), *Argia* (1921-1935), *Aberri* (1916-1923), *Jagi-Jagi* (1932-1934), *Arte Vasca* (1920), *El Coitao* (1908), *Kaiku* (1921-1922), *La Cruz* (1931-1936), *¡Adelante!* (1931-1932), *Baserritarra* (1907-1911), *Euzko Deya* (1916-1920), *Bizkaitarra* (1903-1913), *La Galema* (1894), *El Thun Thun* (1894), *El Arenal* (1894) eta *Kendu* (1921-1922). Hainbat aldizkariren zenbaki solte batzuk ere aztertu ziren. Ikerketa sistematikoak eta zati batzuen kontsulta egin genien aldizkariaren artean daude: *La Constancia*, *El Pueblo Vasco* Bilboko, *Excelsior*, *Excelsius*, *La tarde*, *El Noticiero Bilbaino*, *El Nervión*, *La Noche*, *Agere*, *Junior*, *Euzkadí* (aldizkaria), *La Hoja del Lunes* Bilboko, *Gipuzkoarra*, *Ibaizabal*, *Euskaldun Ona*, *Euskal Egnalea*, *Yakintza*, *Euskalerriaren Alde*, *La Información*, *Ekin*, *El Centenario*, *Las Noticias*, *Azul y Blanco*, *Laurak Bat*, *Euzkotarra*, *Alkartasuna*. Hauen eta aldizkako argitalpen batzuen azterketa zehatzago batek garrantziko aurkikuntzak eragingo litzukete. Kontsultatu ditugun aldizkaritegiak eta artxibategiak: Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostiako Udal Liburutegi Zentrala, Gipuzkoako Ateneoa, Bilbaino Elkarte, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia, Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea (Euskal Ikerkuntzen Ikastegia), Loiolako santutegia, Lazkaoko Beneditarrek, Antso Jakitunaren Fundazioa, Euskal Legebiltzarra, Gasteizko Udal Artxibategia, El Correo-ko Aldizkaritegia, Madriliko Udal Aldizkaritegia, López Mendizabalen Artxibategia, Auñamendi Argitaldarien Artxibategia, Pasaiaiko Udal Artxibategia eta Bilboko Euskal Museoa.

(3) Angiozarko Martin, «Género festivo» *Euskalerriaren Alde*, 30. znb., 1930ko abuztua.

(4) Hauetako askoren erreferentziak aurki daitezke Jabier Fernández Sebastián-engan, «El despegue de la prensa en Bilbao, 1813-1914. Periodismo, política, información y sociedad», VV.AA., *Bilbao, arte e historia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990, 2. libk., 81-109. or.; Arantxa Arzamendi, «Catálogo de publicaciones periódicas donostiaras: 1800-1936», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 38. urtea, XXXV. libk., 1. go znb., 1990eko urtarril-ekaina, 133-158. or.; Adolfo Ruiz de Gauna, *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*, Donostia, 1991.

(5) Jose Manterola, *Guía-manual geográfico-descriptivo de la provincia de Guipúzcoa*, Donostia, 1871, 252. or.

(6) Ricardo Becerro de Bengoak urte batzuk beranduago *Aquello* (1871) astekari satirikoa argitaratu zuen Palentzian. Argitalpen hauei buruzko erreferentziak lan hauetan aurki daitezke: Anjel Martínez Salazar, *Ricardo Becerro de Bengoa, catedrático, académico, publicista y representante popular*, Arabako Foru Aldundia, 1995; Maria Camino Urdiain, *Ricardo Becerro de Bengoa, 1845-1902. Documentos biográficos*, Gasteiz, 1995. Kontuan hartzeko beste XIX. mendeko argitalpen satiriko arabarra *El Danzarín* dugu, 1887 eta 1889 bitartean Gasteizen argitaratu zena. Inazio Díaz de Olano «Galop» marrazkigilearen txistek eta karikatidak dituenak. *El Danzarín*-i buruzkoak ikus daitezke Joan Jose Ortiz de Mendivilen, *Comentario a la edición de El Danzarín (El Danzarín-en argitalpen faksimilean sarturiko liburuak)*, Gasteiz, 1986.

(7) Arantxa Arzamendi, op. cit., 138. or. Karikatidak sartzen zituen beste argitalpen donostiar bat *La Zurriola* (1881) izan zen, eta hau ere gorde ez zena. *San Sebastián. Despedida de La Concha y de La Zurriola* (1881eko irailak 25) bi argitalpen hauek elkarrekin eginko agurtzeko zenbakian adierazten zenez, *La Zurriola*-ko alderdi grafikoaren arduradun Zaragozako Lasun eta Alonso Peréz artistak izan ziren.

- (8) Anselmo Guineak ere esku hartu zuen bere umorezko marrazkiekin *Eco de Bilbao* astekari politiko-literarioan (1893-1984). Rafael Rochelt izan zen argitalpen honetako beste marrazkilaria. *Eco de Bilbao* delakoari buruz informazioaren bat azaltzen da Alfonso Carlos Saiz Valdivielso-ren *Bilbao, periódicos y periodistas*-en, Bilbo, 2000, 23-25. or.
- (9) *Koshkero* hitzarekin Donostia hiriko zatirik zaharreneko biztanleak aipatzen dira.
- (10) *El Thun Thun*-eko txiste eta istoriotxo gehienetan «Lata» izengoitia azaltzen bada ere, hauen atzean –berdintasun grafikoagatik– Iraola bera ezkutatzeko zela ziurtatu daiteke. Bitoriano Iraolaren biografia labur bat *Pasaian eta zenbait ipuin*, Kilometroak 97, Donostia, 1997, Bitoriano Iraolari Gotzon Egjak egindako lanaren hitzaurrean aurkitzen da. Beste honetan ere ikus daiteke: Bernardo Estornes Lasa, «Bitoriano Iraola», -, Donostia 1986.
- (11) Anjel Garcia Sanz de Markotegik ematen dituen biografiako datuen arabera (*Republicanos navarros*, Pamplona, 1985, 65. or.; «El Pamplonés» *Ernaro*-an, Deustuko Unibertsitatea, 2. znb., maiatza 1986) litografiako langile bat izan zen Tiburtzio Osacar, eta beste lanbideen artean sailzaile ibiltaria. 1896 eta 1898 bitartean *Irunsheme* astekari sozialistaren zuzendaria izana zen. XX. mendeko bigarren hamarkadan Aragoiko *El Ideal*-en esku hartu zuen eta alderdi erradikalari loturiko jarduera politiko zuzena izan zuen. Gerora PSOE-ko kide egin zen eta Iruñera itzultita, bertan fusilatuta zuten gerra zibil garaian.
- (12) Jabier González de Durana, «Arte y socialismo según 'La Lucha de clases' de Bilbao. 1894-1905, *Koble*-n (Arte Ederrek Saila), 3. znb., 1985-6. González de Duranak astekari bilbotar sozialistari buruzko bere lanean ez ditu aipatu gabe pasako lau marrazki satiriko, «bertan eginikoak, behar bada», 1903 eta 1905 bitartean argitaratu zituenak. Aurretik ere zifratan azaldu zuen González de Duranak *La Lucha de Clases*-ek irudierekiko 1894 eta 1905 bitartean zuen interes eskasa: «Aldi honetan zehar argitaraturiko 545 aleetan, ez ziren 17 irudi baino gehiago azaldu, beste hainbeste orrialde osorik edo zati batean irudiztatutak zituela».
- (13) *El Ruido del Norte*, 1912ko otsailak 10.
- (14) Manuel Llanos Gorostiza, *Pintura vasca*, Bilbo, 1965, 154. or. Jose Arruek Unamunori idatzi zizkion (1907ko abenduaren 29 eta 1908ko urtarrilak 4) eskutitzetatik dakigu Unamunoren lehenbiziko artikulua marrazki batez ordaindu zuela. Eskutitz hauek erreproduziturik daude González de Duranaren *El Coitao*. *Mal llamao*-ean, Bilbo, 1995, 346-349. or. Liburu honek azterketa monografiko bat dakar astekariari buruz eta beronen berargitalpen osoa. *El Coitao*-ri buruz ikus baita Pilar Mur-en *La Asociación de Artistas Vascos*, Bilbo, 1985, 8-9. or.
- (15) Jose Arrue Migel Unamunori (1908ko urtarrilak 20) eginiko eskutitza, Jabier González de Duranaren erreproduzita, *op. cit.*, 350. or.
- (16) M. Llano Gorostiza, *op. cit.*, 154. or. 2. aipamena.
- (17) Kosme de Barañano, «Estanislao de Agirre», *Arbola*-n 6. znb., 1987ko otsaila.
- (18) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1913ko urriaren 11.
- (19) Jesus M^o de Arozamena, *San Sebastián, biografía sentimental de una ciudad*, Madril, 1964, 325. or.
- (20) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1925eko irailaren 19. Amua izan zen Manuel Andrés-en ordezkoa, *El Pítorreo*-ko zuzendari bezala.
- (21) Jose Martínez de Amuategi «Amua» donostiarrak lehenengo hamarkadan *Novedades*, *La Información* –egunkari donostiar honetan bere txiste batzuk argitaratu zituen A. Capocci-k– eta *El Pueblo Vasco* Bilbokoan esku hartu zuen. Amuak 1925ean eginiko elkarrizketa batean *La Voz de Guipúzcoa*n Jokin Aznar zuzendari zela soldatapean egon zela (1920-1922 gutxi gorabehera) adierazteaz gainera, umoregile frantsesenganako miresmena azaldu zuen, Sem-ekiko batez ere. Amuak Madriliko *Gran Via* aldizkariako ere aritu zen lanean. Hogeiko hamarkadan trapuzko panpina batzuk jendarteratu zituen, baserri-giroko tipoen karikatutak, eta sail hauetakoa bat Donostiako San Telmo Museoa erosi zuen 1925ean (*La Voz de Guipúzcoa*, 1925ko irailaren 19an); Julian Martínez, *La escultura en Guipúzcoa*-n, Donostia, 1981, 33. or. Gerra zibilaren ostean, antza denez, Amuak kartzelako zigorra nozitu zuen errepublikazalea zela-eta.
- (22) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1920ko otsailak 26.
- (23) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1921eko urriak 22.
- (24) Komikiaren historiografian genero honen aitzindaritzat hartzen den Wilhelm Busch alemanaren istoriotxo bat argitaratu zen zenbait emanalditan eta euskaraz.
- (25) Divad-ek noizean behin «Divad. A» izenpetzen zuen. David Álvarez «Chalinas» izango zen inolaz ere, urte batzuk beranduago karikatragile bezala halakoxe ospea lortu zuen marrazkilaria. Bi karikatura azaltzen dira *Kaiku*-n D. Álvarez deituraz izenpeturik.
- (26) «Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintzako interesak defendatzen zituen» *Baserritarra* izeneko hamabostekarian argitaratu zituen Bitoriano Iraolak 1907 eta 1908 urteetan bere txiste batzuk. Iraolak 73 urte zituen *Novedades*-en esku hartzen hasi zenean.
- (27) Gerra Handia gai bezala hartuta, marrazki satirikoz eginiko postal sail bat argitaratu zuen Gezalak. Bilboko *El Liberal*-en 1914ean (azaroaren 11-13an) erreproduzitu zituenak. Gai ber-bera hartuta egin zituzten postalak Jose Arruek, Luisa Arruek eta Anjel Ugarte Revengak. Umorezko postalak azalduak zituen Luis Bagariak 1905erako jada. Eusgari honen erabilera egin zuten Amuak, E. Lagardek, A. Uriartek, L. Boadak eta Looz-ek ere data desberdinetan. Lehenengo hamarkadan Gezalak eta Anjel Cabanas-ek zurean ebakirik karikatutak egin zituzten.
- (28) Mendearen hasieran umore grafikoa dosi txikietan, irudiztatze, satira edo umore marka berezirik ez zuten argitalpenetan ere presente zegoen. Lehen aipaturiko *Baserritarra* eta *La Lucha de Clases* honen lekuko.
- (29) *Bilbao Gráfico*-k Anjel Ugarte-Revenga arukeztu zuen (1922ko ekainaren 17an) «marrazkilaria, karikatragile eta idazle» bezala.
- (30) *El Pueblo Vasco*-n, 1910eko ekainak 15.
- (31) Jose Díaz Alberdi, «Iñigo de Andia» arte kritikoa, Arkautek esku hartzen zuen euskal ertilarien elkarteko erakusketaren baten komentarioa eginaz, karikatragile handi baten tankerak ikusi zituen honengan (*Novedades*-en, 321. znb., 1915).
- (32) *El Pueblo Vasco*-n, 1920ko abenduaren 12 eta 13.
- (33) «Las Caricaturas de Euskadi» *El Nervión*-en, 1913ko maiatzak 19.
- (34) 1918aren azken aldera *Euzkadi* eta *Aberri*-n «Agur» izengoitiaren txisteak argitaratu zituen, zeinaren atzean agian Bon aurkituko zen. Bere beste izengoiti bat «Iñor» izan liteke (*Euzkadi* eta *Aberri*, 1919). Cri-To-k *Aberri* astekarian argitaratu zituen bere zenbait txiste (1919-1920).
- (35) Jose Frances-en «La vida artística», *Nuevo Mundo*-n, 1917ko urtarrilak 12.
- (36) Pilar Mur-en *La Asociación de Artistas Vascos*, Bilbo, 1985, 47-48 eta 236. or.
- (37) «El arte y los artistas. La Exposición de Bon» *El Liberal*-en, 1917ko urtarrilak 5. Bon-ek 1920ean Bilboko Majestic-Hall-en eskegi zuen marrazki sail bat, San Frantzisko auzoko pertsonaiei eta jende taldeei buruzkoak, «Hampa!» deituraz izendatuz (El Pillete de Brooklyn), «Bon en el Mayestic-Hall», *Euzkadi*, 1920ko otsailaren 25ean; J. Llano-ren «Por los salones de pintura», *Arte Vasco*-n, 3. znb., 1920ko martxoa. Crisanto de Lasterrak bere arte kritiketan «El Pillete de Brooklyn» izengoitia erabili zuen noizean behin.
- (38) Joan de la Encinaren «Luis Bagaría, vasco honorario», *Hermes*-en, 1917ko azaroan. Bagaría ri buruzko beste iruzkinak M. Flores Kaperotxipiren *Pintores vascos y no vascos*, Buenos Aires, 1947, 28-32. or.; *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1926ko maiatzaren 2an eta irailaren 23an.
- (39) Crisanto de Lasterra-ren «Exposición de caricaturas», *Euzkadi*-n, 1920ko urtarrilak 20.
- (40) J. Lunoren «Por los salones de arte» *Arte Vasco*-n, 2. znb., 1920ko otsaila, 31. or. Gezalaren karikaturei buruzkoetan ikus daiteke Pilar Mur-en *Antonio Gezala (1889-1956)*, Bilboko Arte Ederretako Museoa, Bilbo, 1991, 82-85. or.
- (41) Antza denez Espainian eman zen karikaturen lehenbiziko erakusketak Bartzelonako Parés Aretoan 1095ean Bagariak egin zuena da.
- (42) *Novedades*, 1911ko urtarrilaren 1ean; «P. Antequera Azpiri» *Enciclopedia Universal Ilustrada Espasa*-n. 1. go libk. -aren eranskina, 1930.
- (43) Migel Artola, *Partidos y programas políticos*, 1808-1936, Madril, 1977, V.I., 147. or.
- (44) Antonio Elorza, «Luis Bagaría: humor y compromiso político» VV:AA.-n, *Bagaría (1882-1940)*, Madril 1983, 92. or.
- (45) Pedro Gómez Aparicio, *Historia del periodismo español*, IV. libk., Madril, 1981, 47. or.
- (46) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1930eko apirilak 18.
- (47) Antonio Martín, *Historia del cómic español, 1875-1939*, Bartzelona, 1978, 79-80. or.
- (48) *Ibid.*, 105. or.
- (49) *Argia*, 261. znb., 1926ko apirilak 18.
- (50) Javier Díaz Noci, «Abdón Alaiza: un alavés artífice del primer cómic vasco», *Kultura*, 2. znb., 1990eko ekaina, 111-117. or. Artikulu honetan lehenagoko komiki aldizkari baten argitalpen proiektu baten berri ere ematen da, euskaraz eginikoa eta *Zeruko Argi*ko argitaldaria ziren Iruñeko kaputxinoek sustaturikoa: «Erlizoso-kongregazio honek 1923an Euskaltzaindiari 'T.B.O. eta Pepito-ren (?) moduko' haur-aldizkari baten argitalpena proposatu zion, haurrak euskara lantzen zaletu zitezen helburutzat hartuta. *Umeentzako euskal-ingitxo*a behin-behineko deitura hartu zuen egitasmoak ez zuen argirik ikusiko». *Txistu*-ri eta euskarazko istoriotxoak zituzten beste argitalpenei buruz, ikus egile beraren *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Cuadernos de Sección. Komunikabideak, Eusko Ikaskuntza, 1995.
- (51) *Argiaren Egutegian*, 1927.
- (52) Kizkitza, «Txistu, nuestro apoyo», *Euzkadi*, 1927ko otsailak 26.

- (53) Alfonso Carlos Saiz Valdivieso, *Triunfo y tragedia del periodismo vasco*, Madril, 1977, 99. or.
- (54) Noizean behin Donostiako *El Pueblo Vasco*-ren laguntzailer izan ziren Bon. Mac-Killo, Telletxea eta Inazia Zabalo «Nor-Nai». Txikiren arreba zen Inazia Zabalo (Donostia 1905- Bartzelonan 1939). Rogelio Gordonekin ikasia zen. Bere marrazkiak *Agere* eta *Junior* aldizkarietan argitaratu ziren, baita *Argia*-ko almanakan ere. Hauetako batzuk Matxin Labayenen Txiki marrazkilaria ta umoredun. *Txiki dibujante y humorista*, Donostia, 1974 eta Joxean Muñoz y Jabier Díaz Noci, «Txiki», Donostia, 2003. Bartzelonara joango zen Inazia Zabalo 1931 aldera eta badirudi bere marrazkigintzan hantxe jarraitu zuela 1939. an bonbardaketa baten biktima hil zen arte.
- (55) *Aberrí*-ren hilabete guxtitako bizitzan –1923ko maiatzean ez zen jada asteroko argitalpena–, balio kaxkarreko txiste batzuk argitaratu zituen Felix Artetak.
- (56) Tarteka txiste, karrikatura eta istoriotxo batzuk argitaratuko ditu 1923 eta 1927 bitartean Luziano Quintana «Nik» marrazkilarik.
- (57) Marrazkilaririk ohikoena «Pisarrin» izan zen. Gerora, barneko arazo zenbaitengatik 1931ean egunkaria *Excelsius* deitzera etorriko bada ere, bere sinadura azaldu egingo da.
- (58) Fernando García de Cortázar eta Manuel Monteroren *Historia de Vizcaya*, Donostia, 1980, II. libk., 68. or.
- (59) *El Liberal*-ek bertako eskuren baten txiste batzuk emango ditu 1931ean.
- (60) Hogeiko hamarkadan *La Voz de Guipúzcoa*-n azalduko dira noizean behin Lole de Aram, Adan Etxekalte, Fetxu eta Nikol besteak beste.
- (61) *El Pueblo Vasco*-n, 1921eko urriak 11.
- (62) *La Voz de Guipúzcoa*, 1926 (uztailaren 1, abuztuaren 31; irailaren 3,4,5,9,10). Donostiako *El Pueblo Vasco*, 1926 (Irailaren 2 eta 4). Erakusketaz zela-eta, eskuratzea lortu ez dudak katalogo bat argitaratu zuten, non Manuel Abril, Luis Tapia, Emilio Písón, ea.-en umorezko oharrak eta Forain, Bon, Fresno, K-Hito, Lagarde, Txiki, Gezala, Jose Arrue, Antequera Azpiri ea-en karrikaturak azaltzen ziren (Donostiako *El Pueblo Vasco*-n, 1926ko irailak 2).
- (63) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1925ko uztaillak 1 eta 4. Amuak trapuzko bi karrikaturekin esku hartu zuen.
- (64) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1925ko uztaillak 15.
- (65) Donostiako *El Pueblo Vasco*-n, 1925ko irailak 6; *Euskalerraren Alde*-n, 259. znb., 1925ko uztailla, 344. or. Rosa eta Rumi-k «zurezko karrikaturak» aurkeztu zituzten. Hondarribiko Erakusketari buruzko berrí gehiago aurki daitezke Pilar Mur-en *La Asociación de Artistas Vascos*-en, Bilbo, 1985, 107. or.
- (66) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1925ko uztaillak 4.
- (67) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1925ko uztaillak 15.
- (68) *El País Vasco*-n, 1926ko otsailak 7; *La Voz de Guipúzcoa*-n 1926ko otsailak 7.
- (69) Pedro Gómez Aparicio, *Historia del periodismo español*, IV. libk., Madril, 1981, 250. or.
- (70) *Ibid.*, 257-261. or. Manuel Azaña-k bere *Memorias políticas*-en 1931ko abuztuaren 20an ospaturiko Ministro Kontseiluari buruz idatzi zuenez: «Les digo (a los ministros) que se hace en los periódicos católicos del Norte una propaganda subversiva en la que francamente se incita a la rebelión» (Pedro Gómez Aparicio-k aipaturikoa, *op. cit.*, 260. or.).
- (71) Barne-Arazaotako Ministroa da hitz egiten duena, *La Gaceta del Norte*-n, 1935ko irailaren 22.
- (72) Alfonso Carlos Saiz Valdivieso, *Triunfo y tragedia del periodismo vasco*, Madril 1977, 255. or.
- (73) *El Día*-n lankide izan ziren tarteka Arozena, Goiko eta Antequera Azpiri.
- (74) Lehiaketa, antza denez, irakurleek bidalitako botoen balibidea erabiliz konpondu zen. «Albiñanada» deituriko txistea gertatu zen garaille. (*Euzkadí*-n, 1934ko maiatzaren 4 eta ekainaren 20a).
- (75) Inoizka *Euzkadí*-ko kolaboratzaileak izan ziren Mon, Goiko eta Cri-To.
- (76) Alfonso Carlos Saiz Valdivieso, *op. cit.*, 283. or.
- (77) Aurkitutako hiru zenbakietako bat *Euzko* astekariaren laugarren zenbakiaren barruan zegoen (1932ko abuztuaren 20an). *Euzko*-n Kili-Kilik (1932.ean Tximino izengoitiaz) eta Gazteluk (1933.ean «Peru Malluki» sailleko lehen istoriotxoekin) esku hartu zuten.
- (78) *Euzkadí*-n, 1933 (uztailaren 28 eta 30; abuztuaren 1,2,3 eta 4).
- (79) Jose Anjel Ascunze, *San Sebastián, capital cultural (1936-1940)*, Donostia, 1999, 116. or.
- (80) Jabier Díaz Noci-ren *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Cuadernos de Sección. Komunikabideak, Eusko Ikaskuntza, 1995, 229. or.
- (81) Antonio Elorza, *Ideologías del nacionalismo vasco*, Donostia, 1978, 320-439. or. Euskara eta haurtzaroko ekimen pedagogikoel buruz «Xabier Lizardi» poetak 1927an (Euskaltzaleak fundatze garaian) artikulua sail bat idatzi zuen, zeinetan hizkuntza babesteko haurren prestakuntzari erabateko lehentasuna ematen zion (*Ibid.*, 438. or, 225. oharra).
- (82) Jose Luis de la Granja, *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, Madril, 1986, 104 eta 309. or.
- (83) Primo de Riveraren Diktadura garaian *La Gaceta del Norte*-k oso bikainak ez ziren Currio, Mon eta César Estefanía bezalako marrazkilarien karrikaturak argitaratu zituen batez ere. Lasheras Madinabeitia eta César Estefaniak sendotasun gutxiko txiste eta istoriotxoak argitaratu zituzten gainera. Errepublikako lehenengo urteetan Mon eta Goikok ere ez zuten ekarpen handirik egin.
- (84) Garai honean, maila apalago batean Mon eta Goikok ere esku hartu zuten.
- (85) Migel Legarrak (Donostia, 1918) *Pelayos* izeneko haur aldizkarian esku hartu zuen gerra zibila bitartean, gerora *El Diario Vasco*-n sartuko zelarik.
- (86) Adelina Moya, «El arte guipuzcoano entre la renovación y la innovación», *VV.AA.-n, Arte y artistas vascos e los años 30*, Donostia, 1986, 149. or. Honela eratu ziren sariak jarduerak: Eskultura: 1.500 pezeta; Litografía: 450 pezeta; Dekorazio-arte: 400 pezeta; Industria-arte: 100 pezeta. Pintura, Dekorazio-arte eta Industria-arte sari batzuk banatu ziren.
- (87) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1932ko irailaren 3, 7 eta 10ean; *El Pueblo Vasco*-n, 1932ko irailaren 13 eta 15ean.
- (88) *El Día*-n, 1936ko ekainaren 24.
- (89) Zehaztu gabeko datuz Jose eta Alberto Arruek Eibarko *Adelante* astekari sozialistan marrazki batzuk argitaratu zituzten, Maiatzaren 1. go ospakizunak zirela-eta.
- (90) *Vida Vasca*-n Arrueren esku hartzea 1934ean amaituko da, gerra zibilaren ostean berriro jarraitzeko.
- (91) Jose Arrue, «Autobiografía», *VV.AA.-n, Jose Arrue Pintores y escultores de ayer, hoy y mañana*, III. libk., 27. sorta, La Gran Enciclopedia Vasca Argit., Bilbo.
- (92) Irrintzi, «Lo que veo en Arrue», *Euzkadí*-n, 1913ko uztaillaren 1a. «Juan de la Encina» deitu Rikardo Gutiérrez Abascal-ek defentsazko bide bera jarraitzen du Madrilako *España* aldizkarian argitaraturiko artikulua batean («Jose Arrue, kostunbrista» 1916ko urtarrilaren 6an): «Esan gentes que gozan una cierta fama de adustas en el resto de España, son en manos de Jose Arrue las gentes más divertidas del mundo. Si no fuera porque en sus tipos difieren tanto, se les podría comparar en cuanto a jovialidad, sed y apetito, a aquellos lugareños tratados a cuerpo de rey, de Teniers o Brouwer. El poeta Verhaeren y su amigo Darío de Regoyos vieron en un tiempo cosas muy sombrías, aquí donde Jose Arrue no oye ni por casualidad un toque de ánimas o de agonía. Verhaeren y Regoyos tenían en parte razón: es el pueblo vasco un pueblo sombrío, taciturno, ensimismado, que rumia pertinaz la idea de la muerte. Jose Arrue tiene también en parte razón: es el pueblo vasco un pueblo de regocijo, amante de la vida, sensual, cantor y bailarín».
- (93) J.M. de Ojarbide, «El Gran Txiki, un caricaturista vasco», *Euzkadí*-n, 1923ko irailaren 2a.
- (94) «Para los artistas, un certamen interesante», *Euzkadí*-n, 1925eko otsailaren 11.
- (95) Jose Arrue, «Con motivo de un certamen interesante», *El Liberal*-en, 1925eko otsailaren 13.
- (96) Joan de Irigoien, «Estampas vascas», *VV.AA.-n, Goiko, ambiente y obra*, Bilbo, 1948, 163-164. or. «Jebo» hitza Bilbon baserriarrari deitu ohi zitzaioneko izena da.
- (97) J.M. Salaberria, «Por qué se emborracha el vasco», *El Coitao*-n, 2. znb., 1908ko otsailaren 2an; M. de Unamuno, «Por qué se emborracha el vasco», *El Coitao*-n, 3. znb., 1908ko otsailaren 9a.
- (98) M. de Unamuno, «Abajo la coidadez», *El Coitao*-n, 1. znb., 1908ko urtarrilaren 26a.
- (99) 1948an Bizkaiko Foru Aldundiak bere karrikatura eta irudiztatzeekin liburu bat argitaratu zuen (*VV.AA., Goiko, ambiente y obra*, Bilbo). Oso agerian agertzen dira, (aldizka *Euzkadí*, *El Día*, *Excelsius* eta *Ekin*-en parte hartu zuen) marrazkilaria eskainitako «omenezko argitalpen» honen ondorio politikoak, prentsa nazionalista baztertera utzi baitzuen, 1932tik aurrera, *La Gaceta del Norte*-n lan egiteko, hemen txiste eta umorezko irudiztatzean argitaratuz. «Gogor» izengoitia hartuta, Gokoetxeak txiste politikoak ere egin zituen 1931 eta 1932an *Adelante!* izeneko bilbotar aldizkari katolikorako.
- (100) Zubiaurre anaien obraren zati batean, eta baita Aurelio Artetarenean ere karrikaturen osogari batzuk ikus daitezke.
- (101) Honi buruzkoetan ikus: Ramon Basterra, «Un costumbrista del Pirineo (M. Aranz Castellano)», *El Pueblo Vasco*-n, Donostia, 1923ko apirilak 23; Bonifacio Etxegarai, «Pepe Artola, un donostiarra popular», *La Gaceta del Norte*-n, 1929ko maiatzak 28; Kurtulu, «Aranaz Castellanos y sus cuadros vascos», *Aberrí*-n, 1918ko ekainaren 15a.
- (102) J. Frances, «La vida artística», *Nuevo Mundo*-n, 1916ko maiatzaren 26a.
- (103) «P. Antequera Azpiri», *Enciclopedia Universal Ilustrada*, Espasa-n, eranskina, I. libk., 1930; Idoia Estornes, «P. Antequera Azpiri», *Diccionario Enciclopédico Vasco*, Auñamendi-n, 1970; *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1927ko abuztuak 27.

- (104) P. Antequera Azpiri, *La publicidad artística para todos*, Burgos, d.g., 202. or.
- (105) J.S. Valdivieso, «Antequera Azpiri o el hombre que ve el mundo desde arriba», *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1923ko uztailak 1.
- (106) Marrazki jendetsu hauen sailkapen bat Jose Maria Unsainen *Guipuzcoa en los dibujos de Eduardo Lagarde (1924-1932)*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1987.
- (107) Teknika honen bidez egin zituen 1925ean Marokoko gerrari buruzko zenbait apunte *in situ*.
- (108) M. Flores Kaperotxipi, *Arte Vasco*, Buenos Aires, 1954, 147. or.
- (109) Jose Antonio Duranen iritzi «las conferencias de Castela eran un verdadero show, debido a la ilustración ágil y rápida que las acompañaba» (*El primer Castela. Biografía y antología rotas*, Madril, 1979, 65. or. 82. oharra). Lagardenen jendaurreko emanaldiei buruz ikus daiteke, *La Voz de Guipúzcoa*-n: 1927ko ekainaren 2a, 1930eko martxoaren 2a, 1930eko martxoaren 25a, 1930eko abenduaren 12a, 1931eko urtarrilaren 7a; *El Diario Vasco*-n: 1935eko maiatzaren 4a, 1936ko otsailaren 5a.
- (110) *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1929ko maiatzak 3 eta 4a.
- (111) Auñamendi liburuak Matxin Labayenek Xabier Lopéz Mendizabalekin batera eginiko bilduma bat da, Antonio Maria Labayenen hitzaurrea duena. Argitalpen hau, hain goizik egin delako, zalanizari gabeko merezimenduak dituena bada ere, aukeratutako txisteez ez dute alor horretako osoko ikuspegia ematen, *Argia* ren *Egutegia* almanakatik (1923-1932) ateratakoak baitziren ia denak. Hau ere ez dugu esan gabe beste pasako, aukeratutako txiste askotan, originalean marrazkiaren oinean zeuden testuak elkarrizketa globoez ordezkatuak izan zirela, era horretan Txiki aurreikusitako konposaketan aldaketa garrantzizkoak emana.
- (112) «Txiki» izeneko erakusketa Joxean Muñoz eta Txabi Basterretxeak asmatu eta koordinaturikoa izan zen. «*Txiki*» liburuak (Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia, 2003) Joxean Muñoz eta Jabier Diaz Nociren testuak ditu.
- (113) «El gran Txiki, Un caricaturista vasco», *Euzkad*-n, 1923ko irailaren 2an.
- (114) *El Pueblo Vasco*-n, Donostia, 1927ko martxoaren 18an.
- (115) Pedro Sarasqueta, «Humoristas vascos. Pim, Pam, Pum», *La Voz de Guipúzcoa*-n, 1931ko abenduaren 31an.
- (116) Oso litekeena bezala idatzi behar da Mirri izan zela Bilboko *El Pueblo Vasco*-n (1910-1912) «Chirlora» eta *Klin-Klon*-en (1911) «Sapi» sinatzen zuen marrazkigilea bera: antzekoak baitira estilistikako aztarrenak.
- (117) «Las caricaturas de Euzkadi», *El Nervion*-en, 1913ko maiatzaren 19an.
- (118) Urte horietan (1921-1922), Kili-Kili-k *Kendu* aldizkari nazionalistan ere parte hartuko du.
- (119) «Padre de la criatura el Sr. González Reguera», *El Liberal*-en, 1922ko uztailak 15. *Euzkad*-k erantzunaren erantzuna argitaratu zuen. «Para que *El Liberal* no cavile» (1922ko uztailak 16).
- (120) Antonio Elorza, *Ideologías del nacionalismo vasco*, Donostia, 1978, 448. or.
- (121) Francesc Fontbona, «La ilustración gráfica. Las técnicas fotomecánicas», VV.AA., *El grabado en España (siglos XIX y XX)*, Summa Artis. Historia General del Arte-n, Madril, 1988, XXXII. Libk., 561. or.
- (122) Bere txisteeetan Madril aldeko erreferentzia batzuk egiten ditu. *La Gaceta del Norte*-n 1934ean argitaraturiko ohar batean aditzera ematen denez Frog ez zen Bilbon bizi.
- (123) Francesc Fontbona, *op. cit.*, 561. or.

Argitaldarien oharra

Buruko eta oineko testu gehientsuenak ukitu beharrean gertatu gara, irakurtzeko zailtasunak eraginda.

KOMIKIAREN AURREKARIAK EUSKAL HERRIAN (1890-1939)*

Gure tradizio plastikoaren eta argitalpen munduaren mugak ezagutzen dituztenentzat nahiz komikia, azken urteotako ahalegin eta lorpenak gorabehera, oraindik bermatzetik urrun dagoen komunikabide bat dela jakin badakitenentzat, harrigarria gerta liteke Euskal Herriko komikiaren historiaz jardutean XIX. menderaino atzera egitea. Ez gara existitzen ez den tradizio bat asmatzen hasiko, eta ezta oinorde apala baino ez dena handiesten ere. Euskal Herrian istoriotxoak sortzeko lehen ahaleginetako batzuk –ahalketsuak eta bakunak– ezagutzera eman nahi ditugu, ez besterik. Istoriotxo horiek, kalitate narratiboari edo komikiaren berariazko lengoaiaren garapenari begira interes urrikoak diren arren, askotan grafikoki aski duinak dira.

Komikia edo istoriotxoa, elkarlotutako irudi eta testuen sekuentzia bidezko narrazioa, Antonio Martinek adierazi bezala «metaketa prozesu baten ondorio da, non komunikazio grafikoan oinarritutako esperientzia ezberdinak, garai eta gizarte ezberdinetan antzeko emaitzetan islatzen direnak, biltzen baitira».¹

Jarraian egiaztatu ahal izango denez, Euskal Herrian ere ematen da aipatu metaketa eta bilakaera prozesua.

■ XIX. MENDEA

XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren hasierako urteetan, ilustrazioa eta umore grafiko nabarmen garatu ziren prentsa espainiarrean. Fenomeno hori, askotariko erritmo, kalitate eta ñabardurez, mendebaldeko herrialde guztietan eman zen. Irudiak testuaren aldean izan zuen estimazio berri eta gero eta handiagoaren oinarrian prentsaren industrializazioa eta erreproduzio tekniken aurrerabidea egon ziren. Aldizkari satirikoak izango dira karikatura edo txistearen garapenerako euskarri edo gune nagusiak, eta bi adierazpen grafiko horien hedapen narratibotik komikia sortuko da.

Espainiako argitalpen gune nagusi ziren Madril etaartzelonen aldean apalki garatu arren, garai horretan euskal hiriek ere aldizkari satiriko eta umorezkoen loraldi nabarmena ezagutu zuten. Bizialdi laburreko argitalpen horiek neurri handi batean desagertu egin direnez edota aurkitzen eta kontsultatzen zailak direnez, ezinezkoa da haien ezaugarri buruz irizpide orokorrak ezartzea. Ikuskatu ahal izan ditudan aleei eta baliabide inprimatu ezberdinek eskainitako erreferentzia idatziei begira, pentsa liteke aldizkari horietako askok nolabaiteko umorezko ilustrazioak, karikaturak edo txistek barne hartzen zituztela. Baliteke istoriotxoak ere sartu izana.

Istoriotxotzat har ez daitezkeen arren, euskal prentsan argitaratutako antzeko lehen adierazpen grafikoak 1868 eta 1869an Ricardo Becerro de Bengoa («R. Bay») egile polifazetikoak Gasteizko *El Mentirón* aldizkari satirikoarentzat paratutakoak dira. «Madrildarren erakusketa iraunkorra» («Exposición permanente de tipos madrileños»), «Gauetz Arkupeetan» («Por la noche en los Arcos») edo «La Gaceta-ren irakurleak» («Los lectores de La Gaceta») bezalako istoriotxoak ezaugarri ezberdineko gizabanako edo taldeek garatutako jarduera bat beraren aldibereko eszenak agertzen dituzten biñetez –laukiekin edo gabe– taxututa daude.

Gasteizko beste argitalpen batean, *El Danzarín* (1889) izenekoa, komikiaren aurreko dei genezakeenaren beste adibide bat aurki dezakegu. Ignacio Diaz de Olanok –gerora obra ezaguneko

pintore bihurtuko zena— «Galop» ezizenaz zezenketa arratsalde baten ikuspegi umoretsua eskaintzen du, plazan gertatutakoaren ondoz ondoko une ezberdinak bata bestearen alboan jarriz.

Baina 1890ean Donostiako *La Galerna* astekaria agertu arte, ez dugu istoriotxotik hurbilago dauden sekuentzia narratiboak aurkituko. Apirilaren 27an, Juan Garcia aldizkariaren noizean behingo kolaboratzaileak «Sua!! Sua!!» («¡¡Fuego!! ¡¡fuego!!») aurkeztuko du, formatu bertikaleko lau biñetatan eta bakarrizketa zein elkarrizketa aditzera ematen duten testu ez argitzaileez. Kontakizun ñimiño horretan —umore aldetik arrakasta handirik gabea— testuak eta irudiak elkarren premia dute. Hori urrats garrantzitsua da komikiaren bilakaeran.

La Galerna-n dira, halaber, Federico Alvarez «Efea»-ren lanak, 1890ean jaio eta zenduko zen aldizkari horretan gehien agertzen den marrazkilaria. Kutsu kostunbristako kontakizun grafikoak aurkezten ditu, hala nola «Gertakari historikoa» («Suceso histórico»), «Donostiako gastronomia» («Gastronomía donostiarra»), «Pasadizoa» («Sucedido») —ondoz ondoko bi emanalditan argitaratua— edo «Hemengo gertaerak» («Cosas de aquí»). Sarritan, Efearen lanek aleluia orriak ematen dute, komikiak baino.

XIX. mendeko Donostian argitaratutako beste agerkari batzuk badira kontuan hartu beharrekoak: *La Semana Euskara* eta *El Thun Thun*. Biak 1894an jaioko dira. Astekari umoretsuak izaki, orrialdeetan txisteak, ilustrazioak eta istoriotxoak jasotzen dituzte, denbora-pasa eta literatur atalekin batera, euskaraz eta gazteleraz.

La Semana Euskara-n —ikuskatutako lau aleen arabera—, marrazkilaria nagusia Federico Guevara izan zen. Interes berezia dute «Ipuin baturroa» («Cuento baturro») eta «Diru bila joan eta...» («Ir por lana») istoriotxoek, garai hartan ohikoa zenaren kontra egileak testua eta irudia uzartzen baititu, biñeta batzuetan elkarrizketa edo pertsonaien pentsaera igorpen gunera hurbilduz. Marrazketa baldar samarra bada ere, «Diru bila joan eta...» istoriotxoak badu beste interesgune bat ere, asmo politiko jakina ageri duen aurrenekoa baita: German Gamazo ministroak Nafarroan izandako esku-hartzearen iruzkin kritikoa.

El Thun Thun aldizkarirako —28 ale kaleratu ostean desagertu zena— ilustrazioak, txisteak eta istoriotxoak egin zituen Victoriano Iraola euskarazko poeta eta antzerkigileak, agerkaria argitaratzen zeneko tailer grafikoaren jabea ere bazena. Eskaintzen dituen istorio apurren artean, «Berrezko eran kopiatzen» («Copiando del natural») nabarmentzen da, garaiko Donostiarako umore berde samarra ageri duen pantomima grafiko ederra.

■ XX. MENDEAREN HASTAPENAK

Urte batzuk geroago, 1907 eta 1908an, Iraolak *Baserritarra*-n, «Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintzako interesak defendatzen zituen» argitalpena, zenbait txiste eta istoriotxo aurkeztuko ditu, euskara jator eta herrikoia lagun, bere umorismo grafikoan ohikoa den bezala. «On Kosmerentzat» izenburua daramana (1907ko abenduaren 7a) euskaraz argitaratutako lehenengo istoriotxoa izan zen.

Irudia mendearen bigarren hamarkadaz geroztik hasiko da bidea urratzen Euskadiko eguneroko prentsan. Urte horietan, egunkari batzuek bertako egileek moldatutako txisteak eta karikaturak argitaratzeari ekingo diote, baina istoriotxoa artean ohiz kanpokoia zen. Eguneroko prentsan aurkitu ahal izan dudana aurreneko istoriotxoa —akaso zehatzagoa litzateke kontakizun ilustratu laburtzat definitzea— Bilboko *El Pueblo Vasco*-k argitaratu zuen, 1911n. Haren egile Gustavo de Maeztu pintoreak «Don Agapitoren eta Don Baltasarren arteko duelua» («El duelo de Don Agapito y Don Baltasar») tragedia xelebrea kontatu zuen, zaluki marraztutako bost biñetetan.

■ "TELES ETA NIKO"

Baina komikiaren lengoaiaren ikuspegitik, obra isolatu horrek baino interes handiagoa du «Teles eta Niko» serie anonimoak. 1918an eman zen argitara *Euzko Deya*-n, Eusko Alderdi Jeltzaleari lotutako argitalpena, hamabost egunero Bilbon ateratzen zena. Hamahiru aletan baino ez ziren agertu Teles eta Nikoren abenturak, baserritar erara jantzitako mutikoa eta neskatila, bihurrikeriak egiten argitasun handia ageri zutenak. Istoriotxo horien egilearen asmoa ez zen ezein arau soziologiko urratzea, gizonezko eta emakumezkoen rol banaketa tradizionalari dion begiruneari erreparatuta ohartuko garenez: Teles txapela eta abarkekiko mutilak hartuko du beti aurrea ekintzak burutzerakoan, eta baita bizkorrago agertu ere, Niko neskatilaren aurrean.

Bat-batean egindako marrazketan akatsak nabari badaitezke ere, eta biñeten oinean testu lagungarriak (euskaraz) erabili arren, «Teles eta Niko» interesgarria bada, serie moduan pentsatutako aurreneko euskal istoriotxo delako da, eta, bestalde, elkarriketako globo edo bunbui-loa baliatzen duelako, herabeki bada ere; azken hori komikiaren oinarritzko baldintza da, haren adiera hertsian behintzat. «Teles eta Niko» serieak euskal komikiaren aurrekari gisa duen balioa indartzen dute, gainera, bertan ageri diren zeinu zinetiko, metafora bisual eta onomatopeiek.

Hogeiko hamarkadan, irudia gero eta leku handiagoa hartzen joango da eguneroko prentsan. Txiste eta karikatura gehiago daude, baina berezko marrazkilariak egindako istoriotxoak bakanak izango dira artean. Han eta hemen zenbait lantxo utziko dituzte Pedro Antequera Azpirik, Eduardo Lagardek, «Agur»-ek (seguruenik Roman Bonet, «Bon» marrazkilari kataluniarraren ezizena), Ignacia de Zabalok eta Jose Arruek, kasu gehienetan marrazketagatik bakarrik interesgarriak.

■ HAUR KOMIKIAK EUSKARAZ

1923ko maiatzean, istoriotxoen aldizkari berriazko bat argitaratzeko proiektu bat planteatu zen, Iruñeko kaputxinoen ekimenez. Kongregazio hark *Zeruko Argia* euskarazko aldizkari erlijioso argitaratzen zuen. Asmoa *TBO* eta *Pepito* (?) aldizkariaren antzeko haur aldizkari bat argitaratzea zen, hura ere euskaraz, hain zuzen ere euskara sustatu eta bermatzeko. Argitalpen proposamena –behin-behineko izen gisa *Umeentzako euskal ingitxoa* hartu zuena– Euskaltzaindiaren aurrean aurkeztu zen, baina, ezezagun zaizkigun arrazoiengatik, hura ez zen hezurmamitu.²

Primo de Rivera jeneralaren irailaren 23ko erreboltaz Diktadura garaia helduko da. Irakurle guztiei zuzendutako umorezko aldizkariekin batera, aldi hartan, Madrilen eta Bartzelonan, hainbat pedagogok eta ordena erlijiosok haurrentzako aldizkari ilustratu ugari sortuko dituzte, asmo ebanjelizatzailez. Katalunian, katalanaren aurkako neurriak neurri, 1923 eta 1930 bitartean gutxienez zortzi haur aldizkari berri argitaratuko dira, komunitatearen berezko hizkuntza eta kultura bermatzeko helburuz.

■ "TXISTU"

Testuinguru horretan sortzen da Donostian *Txistu* haur aldizkaria, *Argia*-k sustatua. Azken hori, era berean, apaiz eta laikoen talde batek argitaratutako euskarazko astekaria da, batik bat baserri munduari zuzendua, eta astekari horretan dago, hain zuzen, *Txistu*-ri buruz topatu ahal izan dugun arrasto grafiko bakarra. 1927ko urtarrilean lehen alea atera baino zenbait hilabete lehenago, *Argia*-k proiektua iragarri zuen, haurrentzako aldizkari berriak gutxi gorabehera izango zuen azalaren itxura erakutsiz eta, gainera, zortzi orrialde izango zituela adieraziz, horietatik bospasei marrazkiekin, eta gainerakoak irakurgai eta denbora-pasekin.³ Aipatu «azal» horretan, «Mu-tikoak bezelaxe» istoriotxo arkaiko eta moralismo joerakoa nabarmentzen da, zeinetan marrazkilari anonimo batek zenbait animalia grazia bereziz gizatiartzen baititu.

Txistu-ren izaera amateurraren adierazgarri, Madrilen bizi ziren zenbait euskal ikaslek aldizkarian parte-hartze aktiboa izan zuten. Jakina da hastapenetan bederen arkitekturako ikasle batzuek original ugari bidali zituztela, argitaratuak izan zitezten. Kolaborazio hori Madrilen Abdon Alaiza arabarrak –astekariaren bultzatzaile nagusietakoa– burututako kultur animazioko lanaren fruitu izan zen seguruenik.

Txistu-ren kolaboratzaile grafikoaren artean ziren, akaso, Juan de Zabalo («Txiki») eta haren arreba Ignacia («Nor-Nai»), bi marrazkilariok 1925 eta 1927 bitartean zenbait istoriotxo, beren lañotasunean xarmangarriak, egin baitzituzten *Argia*-ren editoreek argitaratutako *Argiaren Egutegia* almanakarako.

Txistu irteterakoan, *Argiaren Egutegia*-ren publizitatea familiako gurasoei zuzendu zitzairen, aldizkariak lortu nahi zuen xedea aditzera emanez: «Sarritan diozu ezin dituzula seme-alabak euskaldundu. Hemendik aurrera, ezingo zara horretaz kexa». *Euzkadi* egunkari nazionalistak babes osoa eman zion aldizkari berriari. Engracio de Aranzadi («Kizkitza») euskal nazionalismoaren ideologo gailenak honakoa idatzi zuen horren inguruan: «Haurrek euskaraz irakur dezaten, horretara behartu behar dira. Bat-batean ez dira horretan jartzen. Baina behartu, horretaz ohartzen ez diren moduan behartu behar dira; kementsu eta eztilki derrigortu. Horretan saiatzen da *Txistu*, euskaraz idatzitako egunkari umoretsu eta grafikoa».⁴

Prentsako erreferentziengatik dakigu *Txistu*-k gutxienez hamabi ale argitaratu zituela.

■ "ZERUKO ARGIA"

Txistu agertu zen urte berean, 1927an alegia, aurrez aipatu *Zeruko Argia* aldizkaria –Iruñeko kaputxinoen euskarazko hilabetekaria– istoriotxoak sartzen hasiko da, aldizkakotasun irregularrerez, 1934 arte. Maizen ageri den egilea Otermin da, zenbaitetan «Arrayoztarra» ezizena erabiltzen duena. Beste kolaboratzaile batzuek nahiago izango dute, ordea, anonimo jarraitzea. Oro har, marrazketa eskaseko istoriotxoak dira, asmo moralistaz eginak, argiro ebanjelizatzaileak ez direnean. Guztiek testua biñetaren oinean eramango dute. Urte horietako bilakaeraren adierazle gorenak Oterminen erabilitako metafora bisualak (esaterako, begian emandako ukabilkadaren ondotik ateratzen diren izarrak) dira.

■ CELEDÓN

Hogeiko hamarkadan zehar, *Celedón*, *Vitoria* edo *Alava* bezalako Arabako argitalpenetan aleluia orriekin harreman estua duten zenbait irudi sekuentzia agertzen dira.

Celedón urtekari umoretsuan, Obdulio Lopez de Uralde marrazkilariak Zeledon Gasteizko jaietako pertsonaia enblematikoaren lehenengo *abentura* egin zuen 1923an, kalitate grafiko bikainaz. Zeledonon tabernaz tabernako ibilerek jarraipena izango dute hain trebeak ez ziren marrazkilari batzuen eskutik, Francisco Toribio Escasena kasu. Aipatu azken egileak pertsonaia nagusiak baserritarrak zituzten beste istoriotxo batzuk ere paratu zituen, Arabako eskualde jakin batzuetako hizkera jasoz.

Zeledonon istoriotxoek zenbaitetan balio erantsia dute, garaiko errealitate sozial edo politikoa islatzen dutelako. Errepublikako urteetako asaldura eta kezka giroa antzematen da, adibidez, Escasenak 1933an egindako «Estilo Berria» («Nuevo estilo») istoriotxoan. Nabarmendu behar da, halaber, sarritan pertsonaia produktuen edo Gasteizko denden publizitatea egiteko erabiltzen zela.

■ JOSE ARRUE

Bilboko *Vida Vasca* urtekarian ere zenbait istoriotxo argitaratu ziren, 1925 eta 1932 bitartean. Horietan, Jose Arruek baserritarren istorioak kontatzen zituen, aurrekari gisa 1924an *El Liberal*-en ondoz ondoko komiki-banda moduan argitaratutako «Manu-Bola eta Pepa Akullu Bilboko jaietan» («Manu Bola y Pepa Acullu en las fiestas de Bilbao») istoriotxo umoretsua zutenak.⁵

Bilboko *Norte* aldizkariarentzat (1935-1936), berriz, Jose Arrue polifazetikoak haurrentzako istorioak egin zituen.

Arrueren istoriogile lana ez zen bertako argitalpenetara mugatu. Madrilgo *El Sol* egunkari errepublikar ospetsuko «Maestros de la Historieta» atalean, Espainiako umorismo grafikoaren izenik behinenekin jardun zuen: Bagaria, Castelao, Robledano, Tono, Lopez Rubio, eta abar. *El Sol*-ek 1926 eta 1931 bitartean argitaratu zituen komiki-bandetan, Arruek baserritarren inguruko anekdotekin –batzuk besteak baino barregarriagoak– jarraitu zuen, eta II. Errepublika heltzear zegoela, zenbait istoriotxo antikerikal aurkeztu zituen, gerora Madrilgo *Crisol* eta *Luz* egunkarietan ere atera zirenak.

Eduki politikoak albo batera utzita, hogeigarren hamarkadaren bukaeran Arruek istoriotxo batzuk moldatu zituen Argentinako zenbait argitalpenentzat, *La Razón* egunkaria edo *La Baskonia* almanaka kasu.

Arruek marrazketa errealistari eta biñeta azpiko testuaren egituraketa tradizionalari eutsi zion beti. Elkarrizketa bunbuiloak ageri dituen «Zorte onekoak badira» («Los hay que tienen suerte») istoriotxoak, *El Sol*-en argitaratua, salbuespen gozoa baino ez da.

■ 30EKO HAMARKADAKO PRENTSA

Hogeita hamarreko urteetako lehen erdialdean, eguneroko prentsak aurreko hamarkadaren joera berari eutsiko dio, eta bertako egileen istoriotxoak oso noizean behin azalduko dira. Horien artean, aipagarriak dira Felix del Po-zo, Eusebio Martin Ygartiburu, Miguel Angel Aguirreche, «Kili-Kili» eta «Frag» egileen ekarpenak.

1931n, Eusebio Martin Ygartiburu Don Cirineoren istoriotxo umoretsuak argitaratzen hasiko da *La Voz de Guipúzcoa*-n, baina jarraipen eskasa izango dute.

Gerardo Fernandez de la Reguera («Frag»), *La Gaceta del Norte*-n txiste politiko ugariaren egile eta Madrilgo *Gracia y Justicia* umorezko aldizkariaren kolaboratzaile nabaria, aipatu egunkariaren argitaratutako istoriotxo bakar baten –zenbait emanalditan aurkeztua– egile ere bada, hain zuzen Pitocha eta Porritoren abentura fantastikoena (1934).

«Kili Kili» prentsa nazionalistako umoregile grafiko jori eta adierazkorrak –zeinaren egiazko izena ez baitut egundaino desestaltzerik lortu– serie bat argitaratu zuen *Euzkadi* egunkarian, «Kili Kili Semanal» izenekoa. Aleluia orrien (testua errimatua biñeten oinean, eta sekuentzia narratiborik eza) adierazkortasun mugean barruan, 1932ko zenbait gertakari politiko modu satirikoan iruzkindu zituen.

Beste egunkari nazionalista batek, *El Día*-k, istorio anonimo eta bakun batzuk argitaratu zituen, beren *naif*izaeran nolabait xarmagarriak.

■ JUAN DE ZABALO "TXIKI"

Interesgarriak dira, batez ere dokumentu historiko moduan, Juan de Zabalo «Txiki»-k 1932 eta 1933an aurretik aipatu *Argia* euskarazko astekariarentzat, zeinak II. Errepublika garaian nazionalismo jeltzalearen aldeko jaidura agertu baitzuen, egindako lanak. «Kili-Kili Semanal» sailaren kasuan bezala, zaila da, egiaz, honakoak istoriotxotzat definitzea, aleluien eredu tradizionalatik hurbilago daudelako.

Argia-ren arduradunek euskal historiaz jardutean edo Autonomia Estatutuaren aldeko kanpaina egitean mezu politikoak bermatzeko bitarteko eraginkortzat jo bide zituzten Txikiren marrazki soil eta eskematikoak; izan ere, argitalpena batik bat landa eremuetara zuzendua zegoen, non alfabetizazio maila murriztagoa baitzen.

■ "PERU MALLUKI"

1933an, *Euzko* astekari nazionalista erradikalak Gazteluren lau istoriotxo argitaratuko ditu. Horietan, pertsonaia nagusia Peru Malluki baserritarra da, Jose Arruek asmatutako beste batzuen tanke-rakoa. Aipatu pertsonaiaren ibilerek jarraipena izango dute, laburra bada ere, joera politiko bereko *Jagi Jagi* aldizkarian. Umore sena bizkorregia ez badu ere, Gaztelu oso marrazkilaria pertsonala da, elkarrizketa-bunbuiloa etengabe erabiltzen duena. *Jagi Jagi* aldizkarian, halaber, Jose Maria Saralegui-ren («Sagi») zenbait istorio argitaratuko dira.

Errepublikaren urte horietan, bestalde, interes berezia duten haurrentzako hiru argitalpen sortuko dira: *Gastetxu*, *Txiki* eta *Poxpolin*.

■ "GASTETXU"

Gastetxu orri solte bat zen, alde batean hiru tintetan inprimatua, eta bestean zuri-beltzean. Ikuskatutako hiru aleek aditzera ematen dutenez, istoriotxoak, txisteak eta denbora-pasak jasotzen zituen, bizkaiera erabiliz. Bilboko Ordorika litografian inprimatua, 1932 eta 1934 bitartean Bilbon argitaratutako *Euzko* astekari jeltzale erradikalaren gehigarri gisa banatzen zen. *Gastetxu*-n lan egin zuten marrazkilarien artetik «J. M. A.» (Arano?), eduki politiko handiko istoriotxo baten egile, eta Antonio Santafe Largatxa, urte batzuk geroago batik bat pintore moduan ezaguna izango zena, nabarmentzen dira.

1933ko uztailan, *Euzkadi* egunkariak *Txiki* astekaria luze gabe agertzekoa zela iragarri zuen. Aipatu astekaria EAJk urte berean Bilbon sortutako Bizkaiko Euzko Gastetxu Batza haur taldearen organoa zen. *Txiki* ez zen inoiz kioskoetara iritsiko, argitaratutako ale bakarra konfiskatua izan baitzen, Bizkaiko gobernadore zibilararen aginduz. Fiskaltzak astekariaren zenbait eduki salatu eta gero, gobernu poliziak Sabin Etxean gordeta zegoen edizio osoa –10.000 ale– konfiskatu zuen, eta horren ondotik eraikin berean kokatutako EAJren zenbait erakunde itxiak izan ziren: Biz-kai Buru Batzarra, Euskal Idazkaritza Orokorra, Batzokia eta Eusko-Ikas-tola Batza.⁶ Argitalpenaren ezaugarriak ezezagunak zaizkigu, ez baita alerik aurkitu eta horri buruzko informazio-rik ere ez baitago; hala ere, seguruenik istoriotxorik barne hartu zuen.

■ "POXPOLIN"

Poxpolin istoriotxo, txiste eta denbora-pasen haur aldizkaria, osoki euskaraz idatzia, 1935ean argitaratu zen lehenengoz, Isaac Lopez Mendizabalek Tolosan zeukan argitaletxe-inprimategian (geroago, administrazioa Donostiara aldatu zen). Lopez Mendizabal idazle garrantzitsu eta EAJko buruzagiak aurrez Bartzelonako *TBO* aldizkariaren argitaletxearen baimena lortu zuen, Urda, Serra Massana, Cuvillier, Forton, Opisso eta abarren zenbait istoriotxo erabiltzeko –debalde, haren seme Xabierren esanetan–. *Poxpolin*-en berezko produkzioan Juan de Zabalo «Txiki» nabarmendu zen batik bat.

Hari zor zitzaizkion –batez beste– aldizkariaren zortzi orrialdetatik bi. Argitalpenaren beste kolaboratzaile batzuk David Alvarez eta Juan Antonio Irazusta (Jon Andoni) izan ziren.⁷

TBO, garai hartako Espainiako haur aldizkarietan arrakasta komertzial handienekoa (hogeita hamarrekota urteetan izenburua orokortu egingo da, haurrentzako argitalpen guztiak barne hartuz), jarraitu beharreko bidea erakutsi zuen aldizkaria izan zen. *Poxpolin*-ek haren konposizio nahasia eta istoriotxoaren gaineko ikuskera kontserbadorea –biñeten oinean testu lagungarri ugariduna, eta bunbuiloaren erabilerarekiko uzkur, testua eta irudia integratzeko baliabide gisa–mimetikoki kopiatu besterik ez zuen egin. Bere adierazpideen barruan, Txikik nortasun berezia emango dio aldizkariari, txiste eta ilustrazio bakan batzuekin batera biziki didaktikoak eta zenbaitetan moralistak ziren istoriotxo umoretsuak edo kondairetan oinarrituak, ipuin herrikoiak edo pertsonaia historikoen biografiak argitaratuz.

Txikiren marrazkiekin, *Poxpolin*-ek kutsu euskaltzale eta konfesionala hartu zuen, EAJren eremu ideologikora hurbilduz. Aldizkariaren izena bera ere esanguratsua da: aipatu alderdiak sortutako dantza eta kanturako haur taldeek «Poxpoliñak» izena zuten. Jakina da, bestalde, Jose Ariztimuño «Aitzol» apaiza, euskal nazionalismoaren pertsonaia ezaguna, gidoilari lanetan aritu zela.⁸ EAJrekiko lotura zuzena bihurtuko zen, 1936. urtea baino lehenago Gipuzko Buru Batzarrak argitalpenaren ardura hartu baitzuen. Hala ere, *Poxpolin*-ek zuzeneko ezin eragin politiko saihestu nahi izan zuen. Itxura batean, aldizkaria ideia nagusi batekin eratu zen, Aitzolek sortutako Euskaltzaleak kultur elkartearen izpirituarekin bat eginez: euskararen babes eta zabal-kundeari zentzu apolitiko eta euskaltzalea eranstea, eta ez hertsiki nazionalista. Euskarazko haur hezkuntzaren garrantzia izan zen, hain zuzen ere, elkarte horrek –hogeita hamarrekota urteetan oso dinamikoa– bereziki azpimarratu zuen puntuetako bat. Isaac Lopez Mendizabalek berak euskararen didaktikaren inguruan ardura handia zuen, hainbestearino ezen haurren euskalduntzeari buruzko zenbait liburu argitaratu baitzituen, hedapen handia izan zutenak.

Poxpolin-ek euskarari egin zion ekarpen apal eta txalogarria errotik moztu zuen gerra zibilak. Antza denez, 13 ale kaleratu ziren, hilean behin. Editorearen familiak 11 ale ditu –dagoen bildumarik osatuena da–, aldizkariaren harpidedun batek, gerran garaile suertatu zirenek hain subertsiboa zen argitalpen bat edukitzeagatik eragin zitzaketan errepresalien beldur, Alegiako base-ri batean, trenkada aizun baten atzean, gordetzeko ardura hartu izanari esker. Urte gogorrenak igaro ostean, *Poxpolin*-en aleak berreskuratu eta haiek –saguen arinki karraskatuak– Isaac Lopez Mendizabali eman zitzaizkion.⁹

■ GERRA ZIBILA

Gerra zibilean zehar, legezketasun errepublikarra defendatzen zuten indarrek ez zuten komikiaren komunikazio botereari probetxu ateratzen jakin. Aurkitu ahal izan dugun salbuespen bakarra Jose Arruek *Erri*-n –Euzkadiko Alderdi Komunistak 1937an Bilbon argitaratutako astekaria– atera zituen istoriotxoena da. Beti istoriotxoaren kontzeptu tradizionalari jarraiki, Arruek gerraren zenbait alderdi –adibidez, aire alarma, bonbardaketak, janaria eskuratzeko ilarrak edo babeslekuetako bizitza– islatzen asmatu zuen, gai horien inguruan ikuspegi umoretsu bat agertzeak berez distortsio ekarri arren.

«Bando nazionala» deitutakoan, gauzak beste modu batera gertatu ziren. Mola jeneralaren soldaduek Donostia hartu ondoren, hiria inguruko argitalpen gune nagusia bihurtu zen, eta helduentzako aldizkarietaz gain –*Fotos* eta *Vértice* aldizkarietaz zenbait istoriotxo atera zituzten–, *Flecha*, *Pelayos*, *Flechas y Pelayos* eta *Chicos* haur aldizkariak argitaratu ziren. Bestalde, gerraren azken hilabeteetan Editorial Española sortu zen, propaganda makinieriarekin loturarik ez zuen sozietatea, zeinak abenturazko koaderno umorezko eta fantastikoak argitaratu baitzituen.

Donostia egun batetik bestera komikiaren argitalpen gune garrantzitsua bilakatu zedin, bi gertakari esanguratsu uztartu ziren. Alde batetik, hirian idazle, kazetari eta marrazkilari ugari –gehienak madrildarrak eta kataluniarrak– pilatu ziren, eta, bestetik, gaitasun tekniko handiko tailer grafikoak zeuden; horien artean, Talleres Offset Nerecán handiak nabarmentzen ziren, zalantzarik gabe inguruko tailer grafikorik onenak.¹⁰

Ez dirudi bertako egileek haurrentzako argitalpen horietan sobera parte hartu zutenik, ezizenen erabilera oparoak identifikazioa eragozten duen arren. Miguel de Legarrak («Miguel») «Junta Nacional Carlista de Guerra» izenekoak ateratzen zuten *Pelayos* aldizkariak argitaratutako «Mu-

gimendu Nazionalaren Historia» («Historia del Movimiento Nacional») serie luze, arkaiko eta gerrazalearen kapituluren bat marraztu zuen.

Pelayos-en, Maria Claret-ek bere ilustratzaile eta istoriogile ibilbideari ekin zion, denboraren joanarekin, gero eta trebezia grafiko handiagoa erakutsiz, *Flecha* astekari falangistan eta *Flechas y Pelayos* agerkarian, «Unificación de la Falange y el Requeté» dekretuaren ondoren aurrekoen batasunetik sortutakoa, jarraipena izango zuena.

Hala *Flecha*-n nola *Flechas y Pelayos*-en lan egin zuen *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikarrek karikaturagile izandako Santiago Dueñasek («Santi»). Egile horrek berdin egiten zituen abenturazko istoriotxoak, komiki iparramerikarraren urratsei jarraiki, eta grafismo konbentzional baina adierazkorreko umorezko istoriotxoak.¹¹

Carlos Saenz de Tejadak eta Cobrerros Urangak *Pelayos* aldizkarirako azalen bat taxutu zuten.

Gerra bukatuta, argitalpen munduaren egoera pribilegiozkoa denbora batez mantenduko da. Donostian, *Flechas y Pelayos*, *Chicos*—Espainiako komikiaren aldizkari mitikoa— eta aurrez aipatu Editorial Española-ren koadernoak zenbait hilabete gehiagoz argitaratuko dira. Garai hartan haur aldizkari bat sortu ere egingo da: *Maravillas*, *Flechas y Pelayos*-en gehigarria. Gerora, argitalpen horiek Madril edo Bartzelonatik jarraituko dute beren ibilbidea.¹²

Donostiako eguneroko prentsak probetxu ona atera zion gerra garaiko marrazkilari atzerritarren ugaritasunari. *El Diario Vasco*-k Serra Massana eta A. Kemer-en kutsu politikoko istoriotxoak argitaratu zituen. *Unidad* arratsaldekoak, berriz, Tono eta Avelino Aroztegui izan zituen kolaboratzaile.

■ OHARRAK

* Lan hau 1989an *Antecedentes del cómic en Euskadi. 1894 1939* (Tarttalo Argitaletxea, Donostia) izenburuz argitaratutakoaren bertsio berria da. Testuaren moldaketan datu berriak eta askotariko aldaketak sartu dira. Istoriotxoaren hautaketari dagokionez, ohartarazi behar da honakoak gehitu direla: «Madrildarren erakusketa iraunkorra» («Exposición permanente de tipos madrileños»), «La Gaceta-ren irakurleak» («Los lectores de La Gaceta»), Izenbururik gabea (Zezenketa) (Sin título (corrida de toros)), «Suat! Suat!» («¡Fuego! ¡fuego!»), «Gertakari historikoa» («Suceso histórico»), «Donostiako gastronomia» («Gastronomía donostiarra»), «Pasadizo» («Suceso»), «Emakume itoa Pasaian» («La ahogada de Pasajes»), «Avioneta doktoarearen istoriotxoa», («Historieta del Dr. Avioneta»), «Peru Malluki» (urtarrilak 28) eta «E-13 agente sekretua» («El agente secreto E 13»). Nire esker ona agertu nahi diet, beren laguntza baliotsuagatik, honakoei: Inaxio Mugica (gaztelararako itzulpenen egilea), Xabier Lopez de Mendizabal, Soco Romano, Jose Luis Saenz de Ugarte, Idoia Estornes Lasa, Pilar Mur, Maxi Alonso, Jesus Aranzabal, Ana Iza, Ernesto Santolaya, Marisa Perez de Arenaza, Carmelo Garitaonandia, Eneida Rodriguez, Enrique Villa eta Juan Maria Mendizabal.

1. Antonio Martín, *Historia del cómic español: 1875 1939*, Bartzelona, 1978, 1. orr. Antonio Martinek ikerlan monografikoa eskaini zion Espainiako komikiaren jaiotzari XIX. mendean: *Los inventores del cómic español (1873 1900)*, Madril, 2000.

2. Argia aldizkariak (1923ko maiatzaren 13a) proiektu horren berri eman zuen. Erreferentzia: Javier Díaz Noci, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Sailletako Koadernoak. Komunikabideak, Eusko Ikaskuntza, 1995, 223. orr. Liburu horrek, halaber, euskarazko istoriotxoekiko argitalpenei —*Txistu*, *Gastetxu* eta *Poxpollin* kasu— buruzko informazioa eskaintzen du.

3. *Argia*, 261 zka., 1926ko apirilaren 18a.

4. Kizkizta, «Txistu, nuestro apoyo», *Euzkadi*, 1927ko otsailaren 26a.

5. Jose Arruek bere txiste grafiko eta istoriotxoetan baserri munduari buruz duen ikuspegiaren gainean, ikus José María Unsain, «José Arrue, humorista político», *Arbola*, 13 14 zka., 1987ko Azaroa-Abendua. Artikulu horren bertsio bat ageri da liburuki honetan argitaratutako *El humor gráfico en la prensa de Bilbao y San Sebastián* (1865 1936) lanean.

6. *Euzkadi*, 1933 (uztailak 28 eta 30; abuztuak 1, 2, 3 eta 4).

7. Jose Angel Ascunze, *San Sebastián, capital cultural (1936 1940)*, Donostia, 1999, 114. orr.

8. *Ibidem*, 116. orr.

9. Xabier Lopez Mendizabalek, editorearen semea, 1986an eskainitako informazioa.

10. 1925ean jada Talleres Offset Nerecán haiek *Pinocho* inprimatu zuten, Madrileko Saturnino Calleja argitaletxearen haur aldizkari entzutetsua.

11. Literaturaren alorrean, Alvaro de la Iglesiaen kolaborazioa nabarmendu behar da *Flecha* eta *Flechas y Pelayos* aldizkarietan; hainbat ezizen erabili zituen, hala nola «Condestable Azul», «El Cadete Azul», «Peribañez» edo «Alcapone».

12. 1936 eta 1940 bitartean Donostian argitaratutako aldizkariak xeheki aztertutako dira honako liburuan: Jose Angel Ascunze, *San Sebastián, capital cultural (1936 1940)*, Donostia, 1999.

